

Euskadiko Eskola Kontseilua

HEZKUNTZA EUSKADIN

2013-2015 TXOSTENA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

1. ATALA. HEZKUNTZA-SISTEMAREN PLANGINTZA

SARRERA

1.1.- JAIOTZA KOPURUA EUSKADIN

1.2.- ESKOLA MATRIKULA

1.2.1.- Haur Hezkuntzako matrikularen bilakaera

- Haur Hezkuntzako lehen zikloa

- 0-2 tarte
- 2 urtekoen irakasmila

- Haur Hezkuntzako bigarren zikloa

1.2.2.- Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzako matrikularen bilakaera

- Lehen Hezkuntza

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

1.2.3.- Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzako matrikularen bilakaera

- Batxilergoa

- Lanbide Heziketa

1.2.4.- Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak

- Egoera orokorra

- Curriculum anitzeko programak

- Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak (HLPP)

1.2.5.- Matrikularen bilakaera hezkuntza-sistema osoan

1.2.6.- Ikasleen ratioa ikasgelako

1.2.7.- Helduen Hezkuntza Iraunkorra (HHI)

1.2.8.- Araubide bereziko irakaskuntzak

- Arte-irakaskuntza

- Kirol-irakaskuntza

- Hizkuntzen irakaskuntza

1.3.- IKASLEEN ADIERAZLE SOZIAL ETA EKONOMIKOAK

1.3.1.- Irakastereduak eta euskararen hizkuntza-adierazleak

- Irakastereduak, geruzak eta euskalduntze-indizea
- Biztanleria, ikasleak eta euskararen erabilera

1.3.2.- ISEK indizea

1.3.3.- Dirulaguntzadun ikasleak

1.3.4- Atzerritar ikasleak

1.4.- ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

2. ATALA. IKASTETXEETAKO PROZESUAK: EBALUAZIOA, BERRIKUNTZA ETA ANTOLAMENDUA

SARRERA

2.1. 2015eko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

2.1.1. ED-2015 ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 4. mailan

- Emaizten bilakaera
- Emaiztei loturiko faktoreak.
- Analisiak geruzen, lurraldeen eta berritzegune-esparruen arabera

2.1.2. ED-2015 ebaluazioa DBHko 2. mailan

- Emaizten bilakaera
- Emaiztei loturiko faktoreak.
- Analisiak geruzen, lurraldeen eta berritzegune-esparruen arabera

2.2. IKASLEEN EBALUAZIO AKADEMIKOA

2.2.1 Emaizta akademikoak eta ondorengo etapetara igarotzea

2.2.2 Analisia geruzen eta lurraldeen arabera.

2.3. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA, IKASTETXEETAKO BERRIKUNTZA ETA BERE EBALUAZIOA

2.3.1 Prest_Gara

2.3.2 Irakasleen prestakuntzaren modalitateak

2.3.3 Berritzeguneetako eta Ingurugelako prestakuntza-jarduerak

2.3.4 Garatu eta Prest_Gara programetako ikastaroak

2.3.5 Beste sail eta erakunde batzuekin elkarlanean sortutako ekimenak

2.3.6 Hezkuntza inklusiboaren pertzepzioa Euskadiko DBHko ikastetxeetan.

2.4. ASKOTARIKO PROGRAMEN ETA ESPERIENTZIEN EBALUAZIOA

2.4.1 Ikastetxe publikoetako zuzendaritzaren ebaluazioa

2.4.2 Hezkuntza Marko Hirueledunaren ebaluazioa

2.4.3 Hamaika Esku programaren ebaluazioa

2.4.4 Hauspoa esperientziaren ebaluazioa

2.5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

3. ATALA. HEZKUNTZA-SISTEMAREN FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK SARRERA

3.1. EUSKADIKO EGOERA SOZIO-EKONOMIKOA

3.2. HEZKUNTZAREN ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK

3.3 HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILAREN AURREKONTUAK

3.3.1. Hasierako aurrekontua eta egindako aurrekontua

3.3.2 Aurrekontuaren banaketa atalka

3.3.3. Programen arabera Aurrekontu Banaketa

3.3.4. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako programen banakapena, atalen eta azpiprogramen arabera

3.3.5. 1. eta 6. atalen azterketa: langileen gastuak eta inbertsioak ikastetxe publikoetan

3.3.6. Ikastetxe pribatuen itunpekotzea

3.4. IKASTETXE PUBLIKOETAKO IRAKASLEEN PLANTILAREN AZTERKETA

3.4.1. Plantilen, eta irakasle/ikasgela, ikasle/ikasgela eta ikasle/irakaslea ratioen bilakaera

3.4.2. Irakasle/ikasgela ratioaren banaketa zenbait aldagaien arabera

3.4.3. Irakasleen egonkortasuna

3.5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

- GEHIGARRIAK

1. Gehigarria: Euskadiko Eskola Kontseiluak emandako Irizpen eta Txostenak 2013-14 eta 2014-15 ikasturteak

2. Gehigarria: 2012-13 Txostenean dauden proposamenen jarraipena

- ERANSKINAK

SARRERA

Euskadiko Eskola Kontseiluak Txosten bat aurkeztu du 2016. urteon Hezkuntzari buruz 2013-14 eta 2014-15 ikasturteetan zehar, eta harekin betetzen du Osoko Bilkuran hartutako konpromisoa, aipatu txostena egiteko jardueran indarreko ikasturtearekiko distantzia distantzia txikiena izan dadin, hau da, ikasturte batekoa.

2013-2015 tarte lotua dago beste araudi-esparru bati, aldatu egiten baita Haur hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza, Batxilergo eta Lanbide Heziketako curriculumen Dekretuetan. Aldaketok aurkeztu dira Kontseilu honetan aintzat hartzeko irizpen eskabidearen bidez.

Dekretuok garatzen dira abiapuntutzat hartuz HEZIBERRI 2020an hainbat hezkuntza eragile lagun diseinatutako hezkuntza eredu pedagogikoaren esparrua; aipatu egitasmo horretan sartuak daude oinarrizko erreferentziak zehazteko, ikasleen irteerako profilak artatuz etapa bakoitzean. Tarte horretan Irakasleen Prestakuntza Plan berri bat ere garatzen da, “Prest Gara” deritzana, eta informazioa ematen da hari buruz bigarren kapituluan.

Txosten honen egitura eta 2012-13ko Txostenarena dira ia-ia berdinak; eranskinetan bakarrik erabaki da lehenaren ordeztu –“Hezkuntza eta prestakuntza 2020” europar estrategiaren adierazleei buruzkoa da– beste bat jartzea, informazioa dakarrena, hain zuzen, Kontseiluan denboraldi horretan onartutako irizpenen gainean. Aldaketa horretarako arrazoiatarikoa da zenbait adierazle gaurkotu ez izana; horren harira, guk egokiago deritzagu informazio osoa hurrengo 2015-16 txostenean sartzeari.

Hiru kapitulu aurkezten dira, zerari dagozkionak: hezkuntza sistemaren plangintza, ikastetxeetako prozesuak –ebaluazioa, berrikuntza eta antolakuntza– eta finantzatzea eta baliabideak. Gainera, bigarren eranskin batean gaurkotu egiten da azken Txostenean (2012-13) edukita dauden proposamenen jarraipena, eta azken finean sartzen dira eranskin batzuk, kapituluetan zehar aztertutako kontuak aipatzen dituztenak, hain zuzen.

Lehen kapituluak oinarrizko gaiei ekiten die irakaskuntzaren programazio orokorrerako; izan ere, eskola postuak sortu, kendu eta aldatzeko irizpideak daude, logikoki, gure ikasleen jaiotza eta matrikulazio kopuruko datuen mende. Bestalde, era berezian izan dira hizpide bi gai: bata hezkuntza laguntzarako premia berezia duten ikasleei dagokiena, eta bestea biztanleriari, ikasleei eta euskararen erabilerari buruzkoa.

Bigarren kapituluan, PISA 2015 azken ebaluazioko datuak argitaratu ez direnez gero, ebaluazioa Diagnostika 2015 delakora mugatzen da, eta 2014-15 ikasturteko akademikora.

Atal berri bat sartu da, ekimenei dagokiena prestakuntza edo berrikuntzarako, beste sail eta erakunde batzuk lagun dituelarik; eremu horretan, informazioa ere aurkezten da ikastetxe publikoetako zuzendaritza eginkizunaren eta programa berri eta

esperientzien -Hamaika Esku edo Hauspoa- ebaluazioari buruz, besteak beste. Kapituluak amaiera dauka aipamen batekin, Kontseiluaren aldetik martxan jarritako ekimen baten gainean, hezkuntza inklusiboaren hautematea aztertzeko xedez Euskadiko DBHko ikastetxeetan.

Hirugarren kapituluan, kontuan edukita testuinguru sozioekonomikoa hizpide izandako izandako tartean, aztertzen dira, besteak beste, hezkuntzaren adierazle ekonomikoi nagusiak, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren aurrekontuak, hezkuntza arloari dagozkiorik.

Eskerrak eman nahi dizkiet bihotzez parte hartu duten lagun guztiei, hemen bertan jasotako gaiak hausnartu, eztabaidatu eta adosteko asmoz. Ahaleginak egin dira hobekuntza proposamen zehatz-zehatz batzuk jasotzeko, irizpide teknikoak eta Kontseilu honen kezka nagusia baitituzte euskarri; izan ere, ardura hori ikasleei arretaz laguntzea baino ez da, hezkuntza sistema egoki baten aldetik, eta horrek gauza izan beharra dauka pertsona bakoitzari ahalik eta ongien erantzuteko.

Maite Alonso Arana
Euskadiko Eskola Kontseiluko Presidente

Bilbon, 2016ko uztailaren 6an

EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAREN KIDEAK

Txostenaren onarpen garaian (2016ko uztaila)

Maite Alonso Arana (Presidente)
Isabel Kapanaga Ruiz de Loizaga (Presidenteordea)
Eva Blanco Ochoa (Idazkari Teknikoa)
Igone Abio Zapiain
Andoni Agirrebeitia Abendibar
Patxi Xabier Aizpurua Tellería (Batzorde Iraunkorra)
Asier Aloria Sánchez
Itsaso Andueza Fernández
Yoana Arambalza Zalbidea
Eduardo Arrieta Arrieta
Iñaki Azpitarte Pujana (Batzorde Iraunkorra)
Anxo Blanco Navas
Danel Bringas Egilior
Eusebio Cadenas Cordero
Blanca Casado Fonseca
Asunción Eguren Cendoya
Ana Eizagirre Sagardia
Nestor Eriz Laskurain
Xabier Garagorri Yarza
Begoña Garamendi Ibarra
Pablo García de Vicuña Peñafiel
Xabier Irastorza Garmendia
Juan Carlos Jauregui Beraza (Batzorde Iraunkorra)
Amaia Jauregiberri Goenaga (Batzorde Iraunkorra)
M^a Luisa Jaussi Nieva
Ane Landeta Fernández
Carlos López Losada (Batzorde Iraunkorra)
Javier Llantada Zabala
Carmelo Martínez López
Ane Morales Mujika
Mari Tere Ojanguren Villalabeitia (Batzorde Iraunkorra)
Mikel Ormazabal Loinaz
Mikel Pagola Tolosa (Batzorde Iraunkorra)
Iñaki Prusilla Muñoz
Ana Isabel Puente Martínez
Ismael Redondo Rojo
Antxon Rodríguez Restegui (Batzorde Iraunkorra)
Raimundo Rubio Carcedo (Batzorde Iraunkorra)
Axier San Miguel Arenaza
Josu San Pedro Montalbán
Alfonso Tejedor García de Vicuña
Nerea Undabarrena de la Coteria
Lorea Unzilla Gorriti
Usoa Urbieta Egaña

HEZKUNTZA-SISTEMAREN PLANGINTZA

1. ATALA. HEZKUNTZA-SISTEMAREN PLANGINTZA

SARRERA

Lehen atal honetan hezkuntza-sistemaren plangintzari eragiten dioten zenbait alderdi aztertzen dira, hala nola jaiotza-tasaren bilakaera, hezkuntza-etapa eta irakaskuntza bakoitzeko matrikula, ikasle/gela ratioa, ikasleen adierazle sozial eta ekonomikoak eta ikasleen aniztasunari emandako erantzuna.


Ahal izan den kasu guztietan, aldagaiak eskola-mapako guneen eta hezkuntza-sareen arabera aztertu dira.

Eranskinen atalean, aztertutako alderdi guztiei buruzko datu kualitatiboen banaketa osoa aurkezten da.

1.1. JAIOTZA KOPURUA EUSKADIN

2014. urtean aurreko bi urteetan izandako jaitsiera handia gelditu da; susperraldi txiki bat izan da (% 1,4), jaiotza kopurua 19.378ra heldu delarik.

Jaiotza kopuruaren bilakaera Euskadin 1998tik 2014ra




2014an jaiotza kopuruaren igoera batez ere Araban (% 5,7) izan da, gainerako beste bi lurraldeetan igoera apalagoa izan delarik.

Jaiotza kopuruaren bilakaera Euskadiko hiru lurraldeetan 2013tik 2014ra


	2013	2014	Azken urteko Δ
Araba	3.099	3.277	% 5,7
Bizkaia	9.732	9.740	% 0,1
Gipuzkoa	6.287	6.361	% 1,2
Euskadi	19.118	19.378	% 1,4

Hiriburuei dagokienez, jaiotza kopurua hiruretan igo da. Vitoria-Gasteizen (2.554) segida historikoan 2011n izandako gehieneko baliora (2.556) heldu da ia, eta Bilboko jaiotza kopuruarekiko (2.771) aldea murriztu egin da




40.000 biztanletik gorako gainerako udalerrietan, jaiotza kopuruak susperraldi txiki bat izan du, Getxoren kasuan izan ezik (1.1 eranskina).

Jaiotza kopuruaren bilakaera Euskadin 40.000 biztanletik gorako udalerrietan, hiriburuetan salbu, azken hamabost urteetan zehar.



Atzerriko amengandik jaiotako haurren ehunekoak igotzen jarraitu du. Euskadin oro har % 18,3ra heldu da, eta Araban % 25,1era. Gipuzkoako ehunekoa (% 17,7) Bizkaikoa (% 16,5) baino handiagoa izan da.

**Atzerriko amengandik jaiotako haurren ehunekoa lurraldeen arabera.
2002tik 2014ra arteko bilakaera**



Behar diren eskola-plazak etorkizunerantz proiektatzerakoan, kontuan hartu beharreko alderdirik garrantzitsuena jaiotza kopuruaren bilakaera da. Eskolatzeko aldia oso luzea dJaiotza kopuruarenenez, jaiotza kopurua denbora tarte zabala batean aztertzea komeni da.

Hartara, azken bost urteetan jaiotza kopuruan jaitsiera bat (% -8,9) izan bada ere, azken hamar urteetako konparazioan ia aldaketarik (% -0,9) ez dela izan ikus daiteke, eta, baita ere, azken hamabost urteetako tartean igoera nabarmena (% 17) izan dela (1.2 Eranskina).


Jaiotza kopuruaren bilakaera lurraldeen arabera 1998tik 2014ra, bost urteko tarteetan

	Batez bestekoa 1998-1999	Batez bestekoa 2003-2004	Batez bestekoa 2008-2009	Batez bestekoa 2013-2014	Azken 15 urteetako Δ	Azken 15 urteetako Δ	Azken 15 urteetako Δ
Araba	2.285	2.752	3.217	3.188	% 39,5	% 15,8	% -0,9
Bizkaia	8.408	9.901	10.701	9.736	% 15,8	% -1,7	% -9,0
Gipuzkoa	5.758	6.778	7.205	6.324	% 9,8	% -6,7	% -12,2
Euskadi	16.450	19.431	21.122	19.248	% 17,0	% -0,9	% -8,9

Aztertutako hiru denbora tarteetan Arabako igoerak Bizkaikoak baino handiagoak izan dira, eta horiek Gipuzkoakoak baino handiagoak.

Azken 10 urteetako konparazioa eskola-guneei arabera egiten badugu, sei eskola-gunetan jaiotza kopuruak % 20tik gorako igoera izan duela ikus daiteke (Ekialdeko lautada, Arabako Mendiak, Igorre, Amurrio eta Barakaldoko udalerrria), eta beste muturrean % 15etik % 20ra bitarteko jaitsiera izan duela zenbait eskola-gunetan (Trapaga, Hernani, Bidasoa Garaia, Urola Garaia, Arrigorriaga eta ErErrenteria) (1. mapa eta 1.2 eranskina).

1. mapa. Jaiotza kopuruaren bilakaera azken hamar urteetan (2003-2004 ertaina 2013-2014 mediara), eskola guneen arabera



2.

1.2. ESKOLA MATRIKULA

Hezkuntza-etapetako ikasleen matrikularen bilakaera aztertu da Haur Hezkuntzatik Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzaraino, eta baita Helduen Hezkuntza Iraunkorrekoa eta Araubide Bereziko Irakaskuntzetakoa ere.

1.2.1. Haur Hezkuntzako matrikularen bilakaera

Haur Hezkuntzaren kasuan, 1. zikloa 0, 1 eta 2 urtekoen irakasmailek osatzen dute, eta horien barruan, atal honetan, bi tarte bereizten dira. 0-2 tarte eta 2 urtekoen irakasmila.

– Haur Hezkuntzako lehen zikloa

• 0-2 tarte

Haur eskoletan matrikulatutako haurren kopuruak jaitsiera nabarmena izan du azken bi ikasturteetan. Jaitsiera handiagoa izan da ikastetxe publikoetan (% -22) – Haurreskolak eta udal eskolak– ikastetxe pribatuetan (% -10) baino –haur eskola pribatuak eta beste hezkuntza-etapa batzuk eskaintzen dituzten itunpeko ikastetxeak–.

**0-2 tarteko matrikularen bilakaera Euskadin.
2012-13 eta 2014-15 ikasturteen artean, hezkuntza-sarearen arabera**

	2012-2013	2013-2014	2014-2015	azken 2 ikasturteetako Δ	
				k	%
Publikoa	6.954	6.051	5.400	-1.554	% -22
Pribatua	6.501	6.141	5.865	-636	% -10
Guztira	13.455	12.192	11.265	-2.190	% -16

Azken hamar ikasturteetako bilakaeran goranzko joaera ikusi da 2011-2012 ikasturtera arte. Ikasturte hartan matrikulak gehieneko balioa izan zuen (% 39), eta handik aurrera jaisten joan da 2014-2015 ikasturtean % 35,2ra heldu arte.

0-2 tarteko eskolatze-indizearen bilakaera Euskadin azken hamarkadan

	05-06	06-07	07-08	08-09	09-10	10-11	11-12	12-13	13-14	14-15
Matrikula	8.493	9.600	11.178	11.800	12.495	13.100	13.759	13.455	12.192	11.265
Jaiotza kopurua (1)	32.737	33.077	33.774	34.806	35.267	35.034	35.279	34.869	33.278	32.037
Eskolatze-indizea	%25,9	%29,0	%33,1	%33,9	%35,4	%37,4	%39,0	%38,6	%36,6	%35,2

(1) Urte bateko haur guztiak hartzen dira kontuan, eta adin horretatik beherako haurren bi heren.

Lurraldeei dagokienez, eskolatze-indizea zenbat eta handiagoa izan, handiagoa izan da jaitsiera. Eskolatze-indizerik altuena (% 39,1) Gipuzkoakoa izan da, eta bertan izan du jaitsierarik handiena (-4,8 puntu). Beste muturrean, Bizkaian eskolatze-indizea horren erdia jaitsi da (-2,4 puntu), eskolatze-indizerik baxuena (% 32,7) izan duelarik.

0-2 tarteko eskolatz-indizea, lurraldeen arabera. 2012-2013 ikasturtetik 2014-2015 ikastertera

	2012-13			2013-14			2014-15			Azken 2 urteetako Δ
	Matrik.	Jaiotzak (1)	Eskolatz-indizea	Matrik.	Jaiotzak (1)	Eskolatz-indizea	Matrik.	Jaiotzak (1)	Eskolatz-indizea	
Araba	2.162	5.624	% 38,4	1.994	5.466	% 36,5	1.842	5.284	% 34,9	-3,5
Bizkaia	6.176	17.582	% 35,1	5.654	16.702	% 33,9	5.305	16.225	% 32,7	-2,4
Gipuzkoa	5.118	11.663	% 43,9	4.544	11.110	% 40,9	4.118	10.528	% 39,1	-4,8
Euskadi	13.455	34.869	% 38,6	12.192	33.278	% 36,6	11.265	32.037	% 35,2	-3,4

(1) Urte bateko haur guztiak hartzen dira kontuan, eta adin horretatik beherako haurren bi heren.


Bi faktoreak –hezkuntza-sarea eta lurraldea– konbinatuz gero, ikastetxe pribatueta hiru lurraldeetan matrikularen jaitsiera (% -10) berdina izan dela ikus daiteke, baina ikastetxe publikoetan jaitsiera ezberdina izan da lurralde bakoitzean, Arabako % 17tik Gipuzkoako % 27ra joan delarik.

0-2 tarteko matrikularen bilakaera lurralde eta hezkuntza-sarearen arabera. 2012-13 ikasturtetik 2014-15 ikastertera

		2012-2013	2013-2014	2014-2015	Azken 2 ikasturtetako Δ	
					k	%
Araba	Publikoa	1.459	1.315	1.213	-246	% -17
	Pribatua	702	679	629	-73	% -10
	Guztira	2.162	1.994	1.842	-320	% -15
Bizkaia	Publikoa	2.590	2.281	2.073	-517	% -20
	Pribatua	3.586	3.373	3.232	-354	% -10
	Guztira	6.176	5.654	5.305	-871	% -14
Gipuzkoa	Publikoa	2.903	2.455	2.114	-789	% -27
	Pribatua	2.215	2.089	2.004	-211	% -10
	Guztira	5.118	4.544	4.118	-1.000	% -20

Lurraldeen arteko aldeak handiagoak dira eskolatz-indizea eskola-guneeen arabera aztertzen bada. 2014-2015 ikasturteko datuen arabera, Euskadiko batez besteko eskolatz-indizea % 35,2 izanik, bost eskola-gunetan –Leioa, Txorierri, Bermeo, ErErrenteria eta Arrasate– indizea % 50ekoa baino handiagoa izan da, baina beste muturrean zenbait eskola-gunetan –Ekialdeko lautada, Ermua, Sestao, Bilbo, Abanto, Eibar eta Lasartealde– indizea ez da % 25era heldu (2. mapa eta 1.3 eranskina). Txostena egiteko Sailak haur eskolatzat erregistratutako ikastetxeetako datuak bakarrik sartu dira. Horri dagokionez, alde handia ikusten da hiru hiriburueta indizeen artean, Bilboko indizea (% 23) Vitoria-Gasteizetik (% 36), eta batez ere Donostitik (% 42), oso urrun geratzen baita.

1 mapa. 0-2 tarteko eskolatze-indizea, eskola-guneen arabera. 2014-15 ikasturtea



- **2 urtekoen irakasmaila**


2014-2015 ikasturtean 2 urtekoen irakasmailan eskolatz-indizea % 93 baino apur bat altuagoa izan da, bi ikasturte lehenagoko indizearekiko aldaketa handirik izan gabe. Ikasle kopuruaren jaitsiera 2012an izan zen jaiotza kopuruaren jaitsierarekin batera joan da.

2 urtekoen irakasmailako matrikularen bilakaera hezkuntza-sarearen arabera.

2012-13 eta 2014-15 ikasturteak

	2012-13		2014-15		Azken bi urteetako Δ	
	Matrikula	Eskolatz indizea	Matrikula	Eskolatz indizea	Matrikula	Eskolatz indizea
Ikastetxe. publikoak	10.932	% 51,7	10.600	% 51,6	-332	-0,1
Ikastetxe pribatuak	8.787	% 41,5	8.508	% 41,4	-279	-0,1
Guztira	19.719	% 93,2	19.108	% 93,1	-611	-0,1

Irakasmila honetan ikastetxe publikoetako eskolatz-indizea ikastetxe pribatuetako indizea baino hamar puntu altuago mantendu da.



Lurraldeei dagokienez, 2 urtekoen irakasmailan eskolatz-indizea Gipuzkoan (% 96) eta Araban (%94,5) Bizkaian (% 90,6) baino altuagoak izan dira.

2 urtekoen irakasmailako matrikularen bilakaera hezkuntza-sare eta lurraldeen arabera.

2012-13 eta 2014-15 ikasturteak

		2012-2013		2014-2015		Azken ikasturteko Δ	
		Matrikula	Eskolatz indizea	Matrikula	Eskolatz indizea	Matrikula	Eskolatz indizea
Araba	Publikoa	2.026	% 60,5	1.946	% 59,1	-80	-1,4
	Pribatua	1.143	% 34,2	1.167	% 35,4	24	1,2
	Guztira	3.169	% 94,7	3.113	% 94,5	-56	-0,2
Bizkaia	Publikoa	5.208	% 49,1	5.019	% 48,5	-189	-0,6
	Pribatua	4.476	% 42,2	4.354	% 42,1	-122	-0,1
	Guztira	9.684	% 91,4	9.373	% 90,6	-311	-0,8
Gipuzkoa	Publikoa	3.698	% 51,3	3.635	% 52,7	-63	1,4
	Pribatua	3.168	% 43,9	2.987	% 43,3	-181	-0,6
	Guztira	6.866	% 95,2	6.622	% 96,0	-244	0,8

Zenbait eskola-gunek, Txorierrik eta Amorebietak kasu, inguruko eskola-guneetako ikasleak hartzen dituzte, eta beraz, eskolatze-indizea, bertan jaiotako ikasleen kopuruarekin konparaturik, % 100 baino handiagoa izaten da. Beste muturrean, eskolatze-indizea % 80ra heltzen ez deneko zazpi eskola-guneen artean Erandio (% 66), Ekialdeko lautada (% 74) eta Sestao (% 75) azpimarratu beharko genituzke (3. mapa eta 1.4 eranskina).

Ikasgelako ikasle kopurua konparatzen badugu, ikasle/gela ratioa Bizkaian (16,9) eta Araban (16,8) Gipuzkoan baino handiagoa izan dela ikusten da.


Okupazio erlatiboari dagokionez, onartutako gehieneko kopurua ikasgelako 18 ikasle izanik, okupazio-tasa Bizkaian eta Araban % 93 baino handiagoa izan da, baina Gipuzkoan % 82an geratu da.

2 urtekoen irakasmailako ikasgelen okupazio-tasa lurraldeen arabera. 2014-2015


	<i>Ikasleak</i>	<i>Ikasgelak</i>	<i>Batez besteko ratioa</i>	<i>Okupazio-indizea</i>
Araba	3.113	185	16,8	% 93,5
Bizkaia	9.373	555	16,9	% 93,8
Gipuzkoa	6.622	446	14,8	% 82,5
Euskadi	19.108	1.186	16,1	% 89,5

Bi urtekoen irakasmailan okupazio-tasarik handiena izan duten eskola-guneak Bilbo Handia osatzen dutenak dira, Vitoria-Gasteiz, Ermua eta Andoainekin batera. Erandion, Ermuan, Barakaldon eta Portugaleten okupazio-tasa % 100 baino handiagoa izan da (4. mapa 1.5 eranskina).

3. mapa. Bi urtekoen irakasmaila. Eskolatzeta:2012an jaiotako en artean, eskola-guneko ikastetxeetan eskolatutako haurren ehunekoa. 2014-2015 ikasturtea




4. mapa. Bi urtekoen ikasgelen okupazio-tasa eskola-guneen arabera 2014-2015 ikasturtean (gehieneko kopurua: 18 plaza gelako)



– **Haur Hezkuntzako bigarren zikloa**


2014-2015 ikasturtean, 63.432 ikasle matrikulatu dira, kopurua bi urte lehenagoko ikasturtetik ia aldatu ez delarik.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloko matrikularen bilakaera azken hamarkadan.
Ikastetxe guztiak



Ikasleen matrikularen banaketa ikastetxe publikoetan (% 52,2) eta ikastetxe pribatuetan (% 47,8) mantendu egin da, Araban ikasleen % 61,2 ikastetxe publikoetan matrikulatu direlarik.

Haur hezkuntzako bigarren zikloko matrikularen ehunekoa ikastetxe publikoetan eta pribatuetan. Azken hamarkadako bilakaera




1.2.2.- Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzako matrikularen bilakaera

Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzaren barruan, alde batetik Lehen Hezkuntzako matrikularen bilakaera aztertzen da, eta bestetik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako matrikularena.

- Lehen Hezkuntza


Matrikulak goranzko erritmoa izan du 126.873 ikaslekoa izatera heldu arte. Azken bi ikasturteetan zehar urteko % 1,9ko igoera izan du.

Lehen Hezkuntzako matrikularen bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Matrikularen igoera antzematen da ikastetxe publikoetan, ikasle guztien % 51,2 hartu baitute. Ikastetxe pribatuak % 48,8 matrikulatu dute.


Lehen Hezkuntzako matrikularen ehunekoa ikastetxe publikoetan eta pribatuetan. Azken hamarkadako bilakaera



– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza


Matrikulak urtean % 2,2ko erritmoan igotzen jarraitu du 2012-13 eta 2014-15 ikasturteetan, 77.193 ikasletara heldu arte..

DBHko matrikularen bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Ikasleen % 53,5 ikastetxe pribatueta matrikulatu dira, aurreko bi ikasturteetan baino apur bat gutxiago; ikastetxe publikoetan ikasleen % 46,5 matrikulatu dira.


DBHko matrikularen ehunekoa ikastetxe publikoetan eta pribatueta. Bilakaera azken hamarkadan



Oinarrizko Hezkuntza (Lehen Hezkuntza eta DBH) oro har kontuan harturik, ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasleen ehunekoari dagokionez, aldakortasun handia ikusten da eskola-gune batetik bestera (1.7 eranskina eta 5. mapa)

Ikastetxe publikoetako matrikula ikasle guztien % 70 baino handiagoa izan da hamaika eskola-gunetan (Hernani, Mendebaldeko Araba, Arrigorriaga, Ekialdeko Lautada, Galdakao, Basauri, Uribe-Kosta, Erandio, Elgoibar, Lasarte eta Ermua). Ikastetxe pribatueta matrikula, berriz, ikasle guztien % 70 baino handiagoa izan da sei eskola-gunetan (Andoain, Txorierri, Abando, Uribarri, Cruces eta Amorebieta).

5. mapa. Oinarrizko Hezkuntzako (Lehen Hezkuntza eta DBH) ikastetxe publikoetan matrikulatutako ikasleen ehunekoa, eskola-guneen arabera.
2014-2015 ikasturtea




1.2.3.- Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzako matrikularen bilakaera

Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzaren barruan, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako matrikularen bilakaera aztertzen da.

- Batxilergoa


Batxilergoko ikasleen kopurua ere hazi da, urteko % 1,3ko erritmoan, 30.243 ikasletara heldu arte.

Batxilergoko matrikularen bilakaera hazken hamarkadan. Ikastetxe guztiak



Ikastetxe publikoetako matrikula ikasle guztien % 50,8ra jaitsi da. Ikastetxe pribatuetan % 49,2 matrikulatu da.

Batxilergoko matrikularen ehunekoa ikastetxe publikoetan eta pribatuetan. Bilakaera azken hamarkadan



Batxilergoko modalitaterik eskatuenei dagokienez, hezkuntza-etapa horretako ikasleen erdiak baino gehiagok Zientzia eta teknologia hautatu duela ikus dezakegu. Hezkuntza-sareei dagokienez, Zientzia eta teknologia modalitateko ikasleen % 45 ikastetxe publikoetan daude, eta % 54, itunpeko ikastetxe pribatuetan. Giza eta gizarte zientziak modalitatean ikasleen % 53 ikastetxe publikoetan daude, eta % 47 ikastetxe pribatuetan. Arte plastikoak modalitatea oso minoritarioa da, eta itunpeko ikastetxeetan bi talde baino ez daude. Arte eszenikoak musika eta dantza modalitatea Bizkaiko ikastetxe publiko batean bakarrik irakasten da.

Emakumezkoen presentziari dagokionez, 2013-2014 ikasturteko datuen arabera, ikasle guztien % 60 inguru neskak dira modalitate guztietan, Zientzia eta teknologia modalitatean izan ezik, modalitate horretan neskak % 46 baitira.

Batxilergoko matrikula modalitateen arabera. 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteak


	2013-2014		2014-2015	
	<i>Ikasleak</i>	<i>Taldeak</i>	<i>Ikasleak</i>	<i>Taldeak</i>
Arte eszenikoak, musika eta dantza	84	2	135	4
Arte plastikoak, diseinua eta irudia	1.021	35	1.078	38
Zientzia eta teknologia	15.401	582	15.735	599
Giza eta gizarte zientziak	13.073	501	13.249	488
Guztira	29.607	1.120	30.243	1.129


*Zenbait ikaslek irakasgai komunak bakarrik ikasten dituzte. 28 izan dira ikasturte bakoitzean.

– Lanbide Heziketa

Lanbide Heziketako matrikulak igoera handia izan du 2012-2013 eta 2013-2014 ikasturteen artean, urteko % 5 ingurukoa, bai erdi-mailan bai goi mailan. Matrikula 14.188 ikasletara heldu da erdi-mailan eta 20.980ra goi mailan.


Lanbide Heziketako Erdi-mailako eta Goi mailako matrikularen bilakaera azken hamarkadan. Ikastetxe guztiak





Matrikularen igoeraren atalik handiena ikastetxe publikoetan gertatu da, tasa ikasle guztien % 59,1era heldu baita. Gainerako % 40,9 ikastetxe pribatueta matrikulatu dira..

Matrikularen ehunekoa ikastetxe publikoetan eta pribatueta Lanbide Heziketan lurraldeen arabera. Azken hamarkadako bilakaera



Azkenik, aipatu beharra dago Ikas-ekinezko Erregimeneko Lanbide Heziketa Dualean matrikulatutako ikasle kopurua nahiko handitu dela. Programa hori 2012-2013 ikasturtean abian jarri zen gazteen langabeziari aurre egiteko eta gazteen kualifikazioa eta espezializazioa sustatzeko. Programan ikastetxeko ikaste-irakaste prozesua eta enpresako lana konbinatzen dira. 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan igoera handia izan da bai ikastetxeen kopuruan (publikoak zein itunpekoak), eta baita enpresen kopuruan eta ikasleen kopuruan ere.


	Ikastetxe publikoak			Itunpeko ikastetxeak			Guztira		
	Ikastetx.	Ikasleak	Enpresak	Ikastetx.	Ikasleak	Enpresak	Ikastetx.	Ikasleak	Enpresak
2012-2013	11	79	67	16	45	40	28	124	95
2013-2014	18	119	91	26	119	94	44	238	176
2014-2015	30	215	167	28	187	144	58	402	311

Tituludun berrien lan munduratzeari dela eta, Euskal Enplegu Zerbitzuak (Lanbide) inkesta bat egin zuen 2011-2012 ikasturtean LHko gradu bat lortu zuten ikasleen artean. Inkesta urte bat beranduago egin zitzaion, 2013. urtean.

Aztertutako datuak 2012ko promozioiko ikasleen % 75,5ek emandako erantzunei dagozkie.

Enplegua dutenen ehunekoa (bai lanpostu finkoa, aldi baterakoa, autonomoa edo prestakuntza ordaindua) bi puntu jaitsi da aurreko urtetik, % 37,5eraino. Ikasten ari direnen ehunekoa hiru puntu igo da (% 38,2) eta enplegu dutenena gailendu du. Hirugarren multzoa, langabezian daudenena, puntu bat jaitsi da, % 23,7raino.

Ikasten jarraitzea, enplegua eta langabezia Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi mailako gradua bukatu eta handik urte batera. Gradua bukatutako urteak: 2007tik 2012ra



1.2.4.- Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak

- Egoera orokorra

Hezkuntza Inklusiboaren esparruan Aniztasunaren Tratatueraren Plan Estrategikoa erreferentzia-puntu garrantzitsua izan da 2013-14 eta 2014-15 ikasturteetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzuteko behar diren baliabideen kontzeptualizaziorako eta kudeaketarako.

Plan horretan hezkuntza-premia bereziak dituen ikasleak desgaitasuna edota portaera-arazo larriak dituztenak hartzen dira. Ikasle horiei erantzun egokia emateko Europar Batasunaren gomendioetan oinarritutako zenbait kultura, politika eta jarduerak inklusibo uztartu behar dira. Gomendio horiek Europar Batasunak desgaitasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko Ekintza Plana (2006-2015) diseinatzeko erabili

zituen. Hartara, horrelako kasuetan, ikaslearen beharrei ohiko eskola-ingurunean erantzuteko aukeraren balorazio goiztiarra ahalbidetu behar da, behar dituen laguntza motak eta laguntzaren intentsitatea kontuan izanik.

Jakina denez, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek *hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen* multzoaren atal bat osatzen dute. Kontzeptu zabalago horretan, ikasteko arazoak dituzten ikasleez gain, adimen-gaitasun handiko ikasleak sartzen dira, eta, baita ere, hezkuntza sisteman berandu sartu direnak, egoera pertsonalagatik edo eskola-historiagatik premia bereziak dituztenak eta aldekoa ez den gizarte-egoeran dauden ikasleak.

Aniztasunaren erantzunak irakasleen, familiaren eta bestelako profesionalen (batzuetan osasun eta gizarte teknikariak) koordinazioa eta lankidetzak eskatzen du, horrela banakako laguntza ingurune berezietan ematea alde batera uzten delarik.

Erabil daitezkeen baliabideen artean, ohiko neurriak nahiko ez direnean, 1998ko uztailaren 24ko Aginduan araututako Curriculum Anitzak daude hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat, eta, baita ere, Hezkuntza Sailburuordeak 2012. urtean finkatutako Jarraibideak, hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen kontzeptua jasotzen dutenak.

Berariazko baliabideak esleitzerakoan, hala behar denean, lehentasuna hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman ohi zaie. Hala ere, ikasle horiek guztiek ez dituzte baliabide behar berberak izaten –ez baliabide motaren aldetik, ezta arretaren iraupenaren aldetik ere. Eta hortik ikasleen datu kuantitatiboen eta erabilitako baliabideen arteko konparaziozko analisiak egiteko zailtasuna, baliabide horiek aldatu egiten baitira desgaitasunak edo portaera-arazo larriak curriculumerako sarbidea kasu bakoitzean zenbateraino oztopatzen duten kontuan izanik.

2014-15 ikasturtean hezkuntza-etapetan oro har hezkuntza-premia berezietako 6.960 ikasle izan genuen, 2 urtekoen irakasmailatik Batxilergorainoko ikasleen % 2,19, aurreko ikasturtean baino 0,15 puntu gehiago.

Datuen bilakaera desgaitasun motaren arabera bakarrik aztertzen badugu, igoerarik adierazgarrienak mugitzeko desgaitasuna duten ikasleen kasuan (% 16) eta portaera-arazo larriak dituzten ikasleen kasuan (% 15,7) gertatu direla ikus dezakegu. 2014-15 ikasturteko batez besteko hazkunde orokorra % 9koa izan da 2013-14 ikasturtearekiko.

Hezkuntza-premia berezietako ikasle kopuruaren bilakaera 2013-14 eta 2014-15 ikasturteetan, desgaitasun motaren arabera

	2013-2014	2014-15	Azken ikasturteko Δ
Entzumen desgaitasuna	359	398	% 10,9
Mugitzeko desgaitasuna	682	791	% 16,0
Adimen desgaitasuna	2.021	2.070	% 2,4
Ikusmen desgaitasuna	209	215	% 2,9
Garapenaren nahaste orokorrak	1.645	1.904	% 15,7
Jokabide-arazo larriak	1.236	1.337	% 8,2
Desgaitasun anitza	234	245	% 4,7
HPBko ikasleak guztira	6.386	6.960	% 9,0

Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleei dagokienez, aurreko taulan adierazitako datuez gain, alde batetik *sailkatu gabe*ko ikasle multzo bat (532 eta 585) dagoela ikus daiteke, kasu gehienetan hasierako irakasmailetan eskolatutako ikasleak, oraindik behin betiko diagnosis ez dutenak. Beste aldetik, hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak dituzten ikasleen kopurua bi ikasturte horien artean oro har % 14,9 hazi da, baina igoerarik handienak premia tipologia hauetan gertatu dira: ikasteko berariazko zailtasunak (% 26,8), adimen-gaitasun handia (% 23,9) eta AGHA (% 17,9). Azkenik, *tipologietan sailkatu gabe*ak (625-667) ataleko ikasleek hezkuntza-laguntzaren berariazko premia diagnostikatua dute, baina diagnosis ez dago zuzenki lotua deskribatutako tipologiei.

Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasle kopuruaren bilakaera 2013-14 eta 2014-15 ikasturteetan,

	2013-2014	2014-2015	Azken ikasturteko Δ
HPBko ikasleak guztira	6.386	6.960	% 9,0
Hizkuntza eta komunikazioaren nahasteak	1.290	1.442	% 11,8
Ikasteko berariazko zailtasunak	1.019	1.292	% 26,8
Heltzeko moteltasuna	1.123	1.243	% 10,7
AGHA	787	928	% 17,9
Mugako adimen gaitasuna	2.782	3.165	% 13,8
Adimen gaitasun handia	306	379	% 23,9
Tipologietan sailkatu gabeak	625	667	% 6,7
HLBPko ikasleak guztira	7.932	9.116	% 14,9
Definitu gabeak	532	585	% 10,0
Ikasleak guztira	14.850	16.661	% 12,19

Ikasle kopurua hezkuntza-etapen arabera aztertzen badugu, aipatu beharrekoa da Batxilergoan izan den igoera, bai ikastetxe publikoetan (% 52,8) baita itunpeko ikastetxeetan (% 42,3) ere.

Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasle kopuruaren bilakaera hezkuntza-etapetan

	2013-2014		2014-2015		Azken ikasturteko Δ	
	<i>Publikoa</i>	<i>Itunpekoa</i>	<i>Publikoa</i>	<i>Itunpekoa</i>	<i>Publikoa</i>	<i>Itunpekoa</i>
HH (2 urtetik gora)	1.527	888	1.646	956	% 7,8	% 7,7
LH	4.682	2.792	5.127	3.018	% 9,5	% 8,1
DBH	2.144	1.777	2.448	1.930	% 14,2	% 8,6
DOBH (Batxilergoa)	532	508	813	723	% 52,8	% 42,3
Guztira	8.885	5.965	10.034	6.627	% 12,9	% 11,1
	14.850		16.661		% 12,19	

Lurraldeetako bilakaerari dagokionez, Araban izan da igoerarik handiena eta baita ikastetxe publikoen eta itunpekoen arteko alderik handiena ere.

Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasle kopuruaren bilakaera hezkuntza-etapetan lurraldeen arabera

	2013-2014		2014-2015		Azken ikasturteko Δ	
	<i>Publikoa</i>	<i>Itunpekoa</i>	<i>Publikoa</i>	<i>Publikoa</i>	<i>Itunpekoa</i>	<i>Publikoa</i>
Araba	1.724	972	2.045	1.124	% 18,6	% 15,6
Bizkaia	4.489	2.916	5.003	3.229	% 11,5	% 10,7
Gipuzkoa	2.672	2.077	2.986	2.274	% 11,8	% 9,5
EAE	8.885	5.965	10.034	6.627	% 12,9	% 11,1
% hezkuntza-sarean	% 59,8	% 40,2	% 60,2	% 39,8	0,4	- 0,4

Ikasle horiei arreta emateko giza baliabide batzuk behar dira, ohiko irakasleen lana osatzen duten espezialistak, besteak beste, Pedagogia Terapeutikoko (TP) irakasleak, Entzumen eta Hizkuntzako (EHI) irakasleak eta Hezkuntza Laguntzako (HL) espezialistak. Espezialista horiei esker banakako arreta modu ezberdinetan antolatu daiteke, bai ohiko ikasgela barruan eta baita ikasgelatik kanpo ere.

Espezialista horiei buruzko datuak ondorengo taulan azaltzen dira. Aipatu beharrekoa da PTko irakasle kopuruaren igoera (17 irakasle gehiago ikastetxe publikoetan eta 1 gehiago itunpekoetan), eta baita HLko irakasle kopuruaren igoera (28) ikastetxe publikoetan eta jaitsiera (6) itunpeko ikastetxeetan.

PTko eta HLko irakasle kopurua 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan, ikastetxe guztietan

	2013-2014		2014-2015		Azken bi ikasturteetako Δ	
	<i>Publikoa</i>	<i>Itunpekoa</i>	<i>Publikoa</i>	<i>Itunpekoa</i>	<i>Publikoa</i>	<i>Itunpekoa</i>
PT	943	446	960	447	17	1
EHI	120	25	121	25	1	0
HL laborala	669	432	697	427	28	-6

Lurraldeen arabera azpimarratu beharko litzateke PTko eta HLko irakasleen kopurua igo egin dela Bizkaian eta Araban, eta mantendu egin dela Gipuzkoan.

PTko eta HLko irakasleen kopuruaren bilakaera 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan lurraldeen arabera.

	2013-2014		2014-2015		Azken bi ikasturteetako Δ	
	<i>PT</i>	<i>HL</i>	<i>PT</i>	<i>HL</i>	<i>PT</i>	<i>HL</i>
Araba	243	226	250	228	7	2
Bizkaia	758	559	768	581	10	22
Gipuzkoa	388	215	389	314	1	-1
Guztira	1.389	1.100	1.407	1.123	18	23

Arestian aipatutako irakasleez gain, beste agente batzuek ere hartzen dute parte, adibidez, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, materialen transkribatzaileak eta moldatzaileak, zeinuen hizkuntzako interpreteak eta Berritzeguneetako edo Itsuen Baliabidetegiko aholkulariak. Ikastetxetik kanpoko agenteak dira guztiak dira, eta ikasle horien diagnosia, trataera eta jarraipena egiten laguntzen dute.

Egoera pertsonalagatiko hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleei arreta emateko badira beste baliabide batzuk, *ospitaleko ikasgelak* deitzen direnak. 2014-2015 ikasturtean ikasgela horietan 1.873 ikaslek jaso zuten arreta, 207 ikaslek *etxeko arreta*, eta 54 ikaslek, *arreta terapeutiko-hezigarria*.

Hezkuntza-laguntzaren berariazko premiarik handienak dituzten ikasleen multzo bat *Gela egonkorretan* eta *Zereginen ikaskuntza geletan* eskolatzen da. Egoera horretan 2014-2015 ikasturtean, guztira, 1.212 ikasle egon dira, haien arteko 474 Haur eta Lehen Hezkuntzako gela egonkorretan, 263 DBH eta DOBHko gela egonkorretan eta 475 ikasle Zereginen ikaskuntza geletan.

Gela egonkorretako eta Zereginen ikaskuntza geletako ikasleen kopurua ikastetxe publikoetan eta itunpekoetan, hezkuntza-etapen arabera. 2013-14 eta 2014-15 ikasturteak

		Publikoak		Itunpekoak		Guztira	
		13/14	14/15	13/14	14/15	13/14	14/15
Gela egonkorrak	Hasierako etapak	125	123	330	351	455	474
	DBH+DOBH	169	173	82	90	251	263
Zereginen ikaskuntza gelak		282	288	175	187	457	475
Guztira		575	583	587	626	1.163	1.212

Azken bi ikasturteetan, hezkuntza bereziko Gela egonkorretan eta Zereginen ikaskuntza geletan eskolatutako ikasleen kopurua igo egin da (Gela egonkorretan 31 ikasle gehiago, eta Zereginen ikaskuntza geletan 18 ikasle gehiago).

Gela egonkorretako eta Zereginen ikaskuntza geletako ikasle kopuruaren bilakaera 2013-2014 eta 2014-2015 ikasturteetan, lurraldearen eta hezkuntza-sarearen arabera

	2013-2014				2014-2015				Azken ikasturteko Δ			
	GE		ZIG		GE		ZIG		GE		ZIG	
	Pub.	Itunp.	Pub.	Itunp.	Pub.	Itunp.	Pub.	Itunp.	Pub.	Itunp.	Pub.	Itunp.
Araba	104	25	73	21	103	27	67	28	-1	2	-6	7
Bizkaia	179	202	97	113	182	215	102	113	3	13	5	-
Gipuzkoa	11	185	112	41	11	199	119	46	-	14	7	5
EAE	294	412	282	175	296	441	288	187	2	29	6	12
%	41,7	58,3	61,7	38,3	40,2	59,8	60,6	39,4	6,5	93,5	33,4	66,6

Gela egonkorretako ikasle kopuruaren igoera (31 ikasle) batez ere Bizkaiko eta Gipuzkoako itunpeko ikastetxeetan izan da, eta Zereginen ikaskuntza geletako ikasle kopuruaren igoera, Arabako eta Gipuzkoako itunpeko ikastetxeetan.

- Curriculum Anitzeko programak

Curriculum Anitzeko programak, 1997ko uztailaren 9ko Aginduan arauturik, DBH ikasteko aukerako bide bezala proposatu dira. Derrigorrezko Hezkuntzako titulua lortu ahal izateko, ebaluazio bat egin ondoren, curriculumeko edukiak, jarduerak, praktikak eta irakasgaiak ohikoa ez den modu batean antolatzea eta metodologia berezia behar duten ikasleentzat dira programa horiek.

2014-2015 ikasturtearen bukaeran, Oinarrizko Hezkuntzaren Dekretuak, 40. artikuluan, honela definitu zituen ikaskuntza eta errendimendua curriculum-aniztasunaren bidez hobetzeko programak: *“programa horiek batez ere izango dira ikasteko edo eskolara egokitze zailtasun nabariak dituzten ikasleentzat, ikasketa edo ahalegin-faltagatik ez denean, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko moduan daudenean”*. Zehazpen hori berria da 1997ko Aginduak arautzen zituen programekiko: *“DBHko irakasmilak normaltasunez gainditu ez dituzten ikasleentzat, 16 urtetik gorako eta 18 urtetik beherakoentzat, adin horrekin bukatzen baitzaie oinarrizko ikasketak ikastetxe arruntetan egin ahal izateko epea”* eta de facto onartzen du hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleei eman beharreko arreta.

Curriculum anitzeko programetako ikasleak ikasle guztien % 5,2 izan ziren DBHko 2. zikloan, bai 2013-2014 ikasturtean, baita 2014-2015 ikasturtean ere.

Ikasle horiek % 8,1 izan ziren ikastetxe publikoetan eta % 2,9 itunpeko ikastetxe pribatuetan. Horien artean Kristau Eskolaren kasua aipatu beharko litzateke, programa horretan ikasleen % 4,4 izan baitzituen.

Curriculum anitzeko programetako ikasle kopurua ikastetxe motaren arabera.

2014-15 ikasturtea eta 2013-14 ikasturtearekiko konparazioa

	2012-13 Ikasleen % programan	2014-15			Bi ikasturteetako Δ
		Ikasleak programan	DBHko 2. zikloko ikasleak guztira	Ikasleen % programan	
Ikastetxe publikoak	% 8,7	1.305	16.177	% 8,1	-0,4
Ikastetxe pribatuak guztira	% 3,3	578	19.777	% 2,9	-0,4
Kristau Eskola	% 4,6	481	10.955	% 4,4	-0,2
Partaide	% 1,1	37	4.674	% 0,8	-0,3
Beste elkarte batzuk	% 1,8	60	4.148	% 1,5	0,3
Araba	% 6,5	347	5.341	% 6,5	0,0
Bizkaia	% 5,2	929	17.926	% 5,2	0,0
Gipuzkoa	% 5,05	607	12.687	% 4,8	-0,7
Guztira	% 5,4	1.883	35.954	% 5,2	-0,2

Lurraldeei dagokienez, Araba (% 6,5) nabarmendu da.

Curriculum Anitzeko programetan ikasleen ehunekorik handiena izan duten eskola-guneak Basurtu-Zorrotza (% 18), Erandio eta Igorre (% 14), Vitoria-Gasteiz Iparraldea (% 12), eta Araba Mendebaldea eta Txurdinaga-Otxarkoaga (% 10) izan dira. Beste muturrean, Arabako Mendietan, Ekialdeko Lautadan eta Trapagan curriculum anitzeko ikaslerik ez da izan, eta Txorierrin, Eibarren, Tolosan eta Enkarterrian ikasle horiek ez dira % 3ra heldu (1.12 eranskina).

- Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak (HLPP)/Oinarrizko Lanbide Heziketa

Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak ikasketak uzteko arriskuan dauden 16 eta 17 urteko (salbuespen gisa 15 urteko) ikasleentzat dira, gazte horiek gizartean, hezkuntzan eta lan munduan integratzea errazteko. Programa horiek 1985ean sortu ziren, eta HLPP programa ikasi ondoren Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua ikasleen % 30 inguruk lortzen du. Praktikak egin ondoren profesionaltasun-agiria ikasleen % 68 inguruk lortzen du. Programa horiek hezkuntza-sistematik kanpo dauden ikasleak erakartzeko ahalmen handia dute.

LOMCE legeak 2014-2015 ikasturtean programa horien ordez Oinarrizko Lanbide Heziketa arautu zuen 127/2014 Errege Dekretuaren bidez (EHAA, 2014ko martxoaren 6). Proiektu horretan Kontseiluaren balorazio positiboa jaso zuten zenbait aspektu ez ziren jaso behin betiko dekretuan.

, baina proiektu horretan balorazio positiboa jaso zuten zenbait aspektu ez ziren bildu

Eusko Jaurlaritzak, aldaketa berriak abian jartzeko, denbora luzeagoa behar zela argudiatuz, behin-behineko izaeraz 41/2014 Dekretua (EHAA, 2014/04/07) atera zuen, Prestakuntza Iragankor Bateratua Programak (PIBP) 2014-2015 ikasturterako bakarrik arautzen zituen.

Ondoren, 86/2015 Dekretuak (EHAA, 2015eko ekainaren 12) Oinarrizko Lanbide Heziketa arautu eta ezarri zuen, aurreko dekretua ordezkatu zuelarik. 2014-2015 ikasturtean HLPPko lehen mailan matrikulatutako ikasleek hurrengo ikasturtean Oinarrizko Lanbide Heziketako 2. maila ikasi ahal izan dute.

Oinarrizko Lanbide Heziketa arautu eta ezarri zuen Dekretuaren proiektuari buruzko 15/02 Irispenean, Kontseilu honek HLPP programen ereduarekiko jarraitutasuna bazuela adierazi zuen, bi alderdi kritiko ikusten bazituen ere:

- Programan sartzeko adina, oro har, 16 urtetik 15era jaistea.
- Ikasleak Eskola Graduatu titulua lortzeko, Helduen Hezkuntza Iraunkorreko ikastetxeekin batera (HHI), prestatzen zituzten borondatezko moduluak desagertzea.

Dekretuan honako berrikuntza hauek aipatu beharko genituzke:

- Ikasle/gela gehieneko ratioa 15ean mantendu da. Hala ere, ratioa 20ra hel daiteke promozionatu ez duten ikasleen kasuan eta hezkuntza-sistemara berandu sartu diren ikasleen kasuan.
- B irakasteredua Lanbide Heziketa osoan ezartzea onartzen da.

- Txandakako Prestakuntza Duala sartu da ziklo horietan.

2014-15 ikasturtean 2.294 ikaslek ikasi zuten geroago Oinarrizko Lanbide Heziketako programak deituko ziren Prestakuntza Iragankor Bateratua Programetako (PIBP) lehen maila. 1.985 ikaslek Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programetako bigarren maila ikasi zuten. Guztira, bi ikasturtetan % 4,6ko jaitsiera izan da.

HLPPko ikastetxe, talde eta ikasle kopurua ikastetxe motaren arabera.

2012-13 eta 2014-15 ikasturteak

	<i>Ikastetxe kopurua</i>		<i>Talde kopurua</i>		<i>Ikasle kopurua</i>	
	<i>2012-13</i>	<i>2014-15</i>	<i>2012-13</i>	<i>2014-15</i>	<i>2012-13</i>	<i>2014-15</i>
Itunpekoak eta elkarteak	34	34	201	179	2.628	2.390
Udak ikastetxeak	26	26	134	125	1.636	1.649
Bestelako ikastetxe publikoak	8	7	20	18	220	240
Guztira	68	67	355	322	4.484	4.279

Lurraldeka aztertzen badugu, jaitsiera batez ere Bizkaian gertatu dela ikus daiteke.

HLPP/OLHko udalerri, ikastetxe, talde eta ikasle kopurua lurraldearen arabera.

2012-13 eta 2014-15 ikasturteak

	<i>Udalerri kopurua</i>		<i>Ikastetxe kopurua</i>		<i>Talde kopurua</i>		<i>Ikasle kopurua</i>	
	<i>2012-13</i>	<i>2014-15</i>	<i>2012-13</i>	<i>2014-15</i>	<i>2012-13</i>	<i>2014-15</i>	<i>2012-13</i>	<i>2014-15</i>
Araba	6	6	13	13	51	48	656	652
Bizkaia	20	19	31	30	212	188	2.709	2.453
Gipuzkoa	14	14	24	24	92	86	1.119	1.174
Euskadi	40	39	68	67	355	322	4.484	4.279

Hiru hiriburuetakoko bilakaerari dagokionez, gauza bera gertatu da .

HLPP/OLHko ikasle gehien izan duten udalerriak. 2012-13 eta 2014-15 ikasturteak


	<i>2012-13</i>	<i>2014-15</i>
Bilbo	1.301	1.099
Vitoria-Gasteiz	527	528
Donostia	465	470

Espezialitaterik eskatuenak, 500 ikasletik gora, sukaldeko eta zerbitzuetako operadorea eta ile-apaindegiko laguntzailea izan dira berriro. Ondoren, soldadurako, ibilgailuen konponketako eta instalazio elektrikoetako operadorea izan dira, 300 ikasle ingururekin.

1.2.5.- Hezkuntza-sistema osoko matrikularen bilakaera


Hezkuntza-etapa guztiak batera harturik, 2014-15 ikasturtean 363.282 matrikulatu ziren. Matrikula azken bi ikasturteetan % 1,6ko erritmoarekin hazi da.


Hezkuntza-sistema osoko matrikularen bilakaera azken hamarkadan. Hezkuntza-etapa eta ikastetxe guztiak.



Hezkuntza-sareei begiraturik, ikastetxe publikoetako matrikula urteko bi hamarren igo da bi urte horietan, ikasle guztien % 51,2 matrikulatzera heldu delarik

Ikastetxe publikoetako eta pribatueta matrikularen ehunekoa hezkuntza-etapa guztiak (HH, LH, DBH, Batxilergoa eta LH) kontuan izanik, lurraldeen arabera. Bilakaera azken hamarkadan





Hezkuntza-sare pribatuaren barruan, Kristau Eskolak, itunpeko ikastetxeen elkarteak, hezkuntza-sistema osoko ikasleen % 23,8 matrikulatu du 2014-15 ikasturtean, eta Partaide elkarteak, ikasleen % 12,1.

Unibertsitatez kanpoko hezkuntza-etapetako (0-19) matrikula ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeen elkarte negusietan. 2012-13 eta 2014-15 ikasturteetako bilakaera

Ikastetxe mota	Ikasle kopurua			Ikasle guztien %		
	2012-13	2014-15	Bi ikasturteetako Δ	2012-13	2014-15	Bi ikasturteetako Δ
Ikastetxe publikoak	179.891	186.129	6.238	% 50,8	% 51,2	0,4
Kristau Eskola	86.326	86.512	186	% 24,4	% 23,8	-0,6
Partaide	42.271	43.967	1.696	% 11,9	% 12,1	0,2
Bestelako ikastetxe prib.	45.482	46.674	1.192	% 12,8	% 12,8	0,0
Ikastetxe guztiak	353.970	363.282	9.312	% 100,0	% 100,0	0,0

1.2.6.- Ikasle/gela ratioa

Ikasle/gela ratioa hezkuntza-etapa guztietan igo da azken hamarkadan, 2004-05 ikasturtetik 2014-15 ikasturtera. Erdiko ikasturtea, 2009-10, kontuan hartzen badugu, goranzko bilakaera bost urteko bi aldietan gertatu da Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan. DBHn eta Batxilergoan 2009-10 ikasturtean jaitsiera txiki bat izan ondoren, intentsitate handiagoko igoera gertatu da 2014-15 ikasturtera arte.

Ikasle/gela ratioaren bilakaera azken hamar ikasturteetan hezkuntza-etapa guztietan


		2004-05			2009-10			2014-15		
		Ikasle kopurua	Gela kopurua	Ikasle/gela ratioa	Ikasle kopurua	Gela kopurua	Ikasle/gela ratioa	Ikasle kopurua	Gela kopurua	Ikasle/gela ratioa
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	Pub.	26.584	1.532	17,4	30.765	1.693	18,2	33.116	1.734	19,1
	Prib.	26.841	1.228	21,9	30.407	1.333	22,8	30.316	1.310	23,1
Lehen Hezkuntza	Pub.	47.038	2.757	17,1	56.456	3.089	18,3	64.983	3.329	19,5
	Prib.	51.424	2.386	21,6	56.751	2.480	22,9	61.890	2.599	23,8

DBH	Pub.	29.810	1.674	17,8	31.402	1.727	18,2	35.860	1.784	20,1
	Prib.	40.683	1.805	22,5	38.167	1.743	21,9	41.333	1.731	23,9
Batxilergoa	Pub.	17.430	674	25,9	15.521	608	25,5	15.371	573	26,8
	Prib.	14.748	609	24,2	13.908	587	23,7	14.872	556	26,7
Lanbide Heziketa	Pub.	15.118	1.001	15,1	15.800	977	16,2	20.799	1.030	20,2
	Prib.	13.599	798	17,0	12.538	717	17,5	14.369	690	20,8

2014-15 ikasturtean, ikasle/gela ratorik handiena Batxilergoan izan zen, eta urte horietako igorarik handiena Lanbide Heziketan gertatu zen.

Hezkuntza-sareak konparaturik, ikasle/gela ratioa ikastetxe pribatuetan ikastetxe publikoetan baino handiagoa izan da, Batxilergoan izan ezik, 2014-15 ikasturtean ia berdindu bazen ere. Derrigorrezko etapetan, hezkuntza-etapen arteko konparazioan, gelako 4,3 ikasleko aldea izan da da Haur Hezkuntzan eta 3,8 ikaslekoa DBHn.

Ikasle/gela ratioa hezkuntza-etaparen eta hezkuntza-sarearen arabera. 2014-2015 ikasturtea



Lurraldeen arteko konparazioan, Haur Hezkuntzan et Oinarrizko Hezkuntzan ez dago ia alderik, baina Lanbide Heziketan eta batez ere Batxilergoan Arabako ratioa Gipuzkoakoa baino 4,1 puntu handiagoa da.

Ikasle/gela ratioa hezkuntza-etaparen eta lurraldeen arabera. 2014-2015 ikasturtea

	Araba			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Ikasle kop	Gela kop.	Ratioa	Ikasle kop	Gela kop.	Ratioa	Ikasle kop	Gela kop.	Ratioa
HH (2. zikloa)	10.231	467	21,9	31.646	1.526	20,7	21.555	1.051	20,5
LH	19.144	876	21,9	64.223	2.997	21,4	43.506	2.055	21,2
DBH	11.598	528	22,0	38.846	1.762	22,0	26.749	1.225	21,8
Batxilergoa	4.405	148	29,8	15.474	578	26,8	10.364	403	25,7
Lanbide Heziketa	6.506	286	22,7	16.699	815	20,5	11.963	619	19,3


Ratioa eskola-guneen artean konparatzen denean, aitzitik, alde handiak ikusten dira (1.10 eta 1.11 eranskinak; 6. eta 7. mapak). Lehen Hezkuntzako batez besteko ratioa 21,4 izanda, eta baliorik baxuenak Arabako Mendietan (12,7), Igorren (15,5), Arabako Errioxan (16,2), Lea-Artibain (17,2) eta Amurrión (17,5) gertatu dira. Baliorik altuenak

Bilboko bi gunetan —Abando (24) eta Begoña (23,4)—, Txorierrin (23,6), Bidasoan (23,4%) eta Amorebietan (23,3) izan dira.


Hezkuntza-sareen arteko konparazioan, ratioen arteko alderik handienak Arrasaten (10,9), Bilbo Handian –Txurdinaga-Otxarkoaga (8,5), ErErrekalde (8,3), Abando (7,2)—, Abanton (7,6) Sestaon (7,4)), Mungian (7,1) eta Txorierrin (7) izan dira.

Beste muturrean, eskola-gune batzuetan ratioa altuagoa izan da ikastetxe publikoetan, hala nola Ekialdeko Lautadan (-4,3), Hernanin (-1,8), edo apur bat baxuagoa, adibidez Arabako Errioxan (0,3), Lasarten (0,7) Arrigorriagan (1,0), Lea-Artibain eta Urola Erdian (1,7).

6. mapa. Ikasle/gela ratioa Lehen Hezkuntzan eskola-guneen arabera. 2014-15 ikasturtea



7. mapa. Ikasle/gela ratioa Lehen Hezkuntzan. Hezkuntza-sareen arteko aldea eskola-guneen arabera. 2014-15 ikasturtea



1.2.7.- Helduen Hezkuntza Iraunkorra (HHI)

Pertsona helduen hezkuntzan HHI arautua eta HHI ez-arautua sartzen dira. Ondoren aurkezten diren datuetan ikus daitekeen bezala, aldi horretan matrikularen jaitsiera bat (% 13,7) izan da hezkuntza arautuan eta igoera bat (% 9,9) hezkuntza ez-arautuan.

2014ko maiatzean Ebazpen bat atera zen, prestakuntza-programa ez-arautuak irakasteko behar ziren baldintzak zehazten zituen. Ebazpenak eragina izan zuen zenbait alderditan. Adibidez, gaztelania edo euskara ikasteko etorkinen berariazko taldeak, ordura arte HHI arautuko 1. graduari sartzen zirenak, HHI ez-arautuan sartu dira. Gainera, hezkuntza ez-arautuko ikastalde kopurua ezin da hezkuntza arautuan martxan dauden ikastaldearen kopurua baino handiagoa izan. Horrez gain, hezkuntza ez-arautuko ikastaldeko ikasle kopurua ezin da 15 baino txikiagoa izan, ikastetxeko Zuzendaritzak onetsitako salbuespenezko kasuetan izan ezik.

– Pertsona helduen hezkuntza arautua

Ia oso-osorik ematen da ikastetxe publikoetan, eta 2012-2013 eta 2014-2015 ikasturteetan matrikula % 13,7 jaitsi da, 16.585 ikaslekoa izatera heldu delarik.

HHI arautuko matrikula ikastetxe motaren arabera.

2012-13 eta 2014-15 ikasturteen arteko konparazioa

	2012-13	2013-14	2014-15	Bi ikasturteetako Δ
Ikastetxe publikoak	18.871	15.236	16.192	-2.679
Itunpeko ikastetxeak	348	296	393	145
Guztira	19.219	15.532	16.585	-2.634

Lurraldeei dagokienez, jaitsierarik handiena Araban izan da, gero Gipuzkoan eta azkenik, Bizkaian.

HHI arautuko matrikula lurraldearen motaren arabera.

2012-13 eta 2014-15 ikasturteen arteko konparazioa

	2012-13	2013-14	2014-15	Bi ikasturteetako Δ	
Araba	3.556	2.691	2.805	751	% -21,1
Bizkaia	9.790	8.189	8.984	806	% -8,2
Gipuzkoa	5.873	4.652	4.796	1.077	% -18,3
Euskadi	19.219	15.532	16.585	2.634	% -13,7

– **Helduen hezkuntza ez-arautua**

HHI ez-arautuko matrikula oro har %9,9 igo da bi urtetan. Gipuzkoan izan da igoerarik handiena %24,9

HHI ez-arautuko ikastetxe, talde eta ikasle kopurua lurraldearen arabera.

2014-15 ikasturtea eta 2012-13 ikasturtearekiko konparazioa

	2012-13	2013-14	2014-15	Bi ikasturteetako Δ	
Araba	1.714	2.797	1.689	-25	% -1,5
Bizkaia	6.564	7.375	6.812	248	% 3,8
Gipuzkoa	3.971	6.011	4.958	987	%24,9
Guztira	12.249	16.183	13.459	1.210	% 9,9

1.2.8.- Araubide bereziko irakaskuntzak

Arte-irakaskuntza, Kirol-irakaskuntza eta Hizkuntzen irakaskuntza sartzen dira atal honetan.

– **Arte-irakaskuntza**

Musika-irakaskuntzak, Dantza-irakaskuntzak eta Arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntzak osatzen dute.

– **Musika-irakaskuntza**

Musika-irakaskuntza arautua eta ez-arautua izan daiteke.

2014-15 ikasturtean, 2.484 ikasle matrikulatu dira Musika-irakaskuntza arautuan; 1.164 ikasle oinarritzko graduan eta 1.320 ikasle erdiko graduan. Oinarritzko graduan ikasleen % 61 emakumeak ziren eta erdiko graduan, % 56.

Musika-irakaskuntzako matrikula oinarritzko graduan eta erdiko graduan.

2014-15 ikasturtea

	Publikoa			Pribatua			Ikastetxe guztiak		
	Oinarritzko gradua	Erdiko gradua	Guztira	Oinarritzko gradua	Erdiko gradua	Guztira	Oinarritzko gradua	Erdiko gradua	Guztira
Araba	228	239	467	45	0	45	273	239	512
Bizkaia	350	540	890	372	223	595	722	763	1.485
Gipuzkoa	169	318	487	0	0	0	169	318	487
Euskadi	747	1.097	1.844	417	222	639	1.164	1.320	2.484
2012-2013	742	1.060	1.802	478	253	731	1.220	1.313	2.533

Musikene ikastetxean, 306 ikasle egon dira matrikulaturik Musika-irakaskuntzako goi graduan, guztiak ikasketa plan berrian.

Musika-irakaskuntzako goi graduako matrikula. 2014-15 ikasturtea

	2012-13	2013-14	2014-15
Plan zaharra	223	301	306
Plan berria	95	8	0
Guztira	318	309	306

Musika-irakaskuntza ez-arautuan 37.899 matrikulatu dira 2014-15 ikasturtean, haien % 63 ikastetxe publikoetan. 2013-14 ikasturtearekin konparata, Ikastetxe publikoetako matrikula % 4 igo da, eta ikastetxe pribatuetakoa, berriz, % 1,3 jaitsi da. Ikasleen % 58 emakumeak ziren.

Musika-irakaskuntza ez-arautuko matrikula. 2014-15 ikasturtea

	<i>Ikastetxe publikoak</i>		<i>Ikastetxe pribatuak</i>		<i>Guztira</i>		
	<i>Matrikula</i>	<i>Ikastetxeak</i>	<i>Matrikula</i>	<i>Ikastetxeak</i>	<i>Matrikula</i>	<i>Ikastetxeak</i>	<i>Bi ikasturteetako Δ</i>
Araba	1.981	6	749	4	2.730	11	-1,4
Bizkaia	9.565	18	2.871	10	12.436	29	-0,1
Gipuzkoa	12.230	19	10.503	29	22.733	48	3,1
Euskadi	23.776	43	14.123	43	37.899	86	1,7
Euskadi 12-13	23.022	42	14.251	46	37.273	88	

– **Dantza-irakaskuntza**

2014-15 ikasturtean 95 ikasle matrikulatu dira Vitoria-Gasteizeko José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioan, 53 erdiko graduari, eta 42 goi mailan. Zazpi gizonezko bakarrik matrikulatu dira. 2012-13 ikasturtean 98 ikasle egon ziren matrikulaturik.

– **Arte plastikoak eta diseinua**

Arte plastikoen eta diseinuaren goi mailako ikasketak 217 ikaslek egin dituzte. Goi Mailako Prestakuntza Zikloetan, irakasgai horretan, 355 ikasle egon dira matrikulaturik, % 57 ikastetxe publikoetan. Oro har, ikasle guztien % 28 emakumeak ziren; Goi mailako graduari, % 29 eta goi mailako ikasketetean, % 27.

Arte plastikoen eta diseinuaren irakaskuntzako matrikula. 2014-15 ikasturtea

	<i>Goi Mailako Prestakuntza Zikloak</i>			<i>Goi mailako ikasketak</i>
	<i>Ikastetxe publikoak</i>	<i>Ikastetxe pribatuak</i>	<i>Guztira</i>	<i>Ikastetxe publikoak</i>
Araba	111	0	111	217
Bizkaia	38	92	130	0
Gipuzkoa	55	59	114	0
Euskadi	204	151	355	217

– Kirol-irakaskuntza

2014-15 ikasturtean 985 ikasle matrikulatu dira Kirol-irakaskuntzan, % 69% ikastetxe publikoetan. % 84k erdiko graduiko ikasketak egin ditu, eta % 16k goi graduikoak. 2012-2013 ikasturtearekiko, matrikula % 48 igo da, batez ere goi graduari. Ikasleen % 10 emakumeak ziren.

Kirol-irakaskuntzako matrikula. 2012-13 eta 2014-15 ikasturteak

	2012-13			2013-14		
	Publikoa	Itunpekoa	Guztira	Publikoa	Itunpekoa	Guztira
Erdiko gradua	357	228	585	586	244	830
Goi gradua	56	27	83	94	61	155
Guztira	413	255	668	680	305	985

– Hizkuntzen irakaskuntza

2014-15 ikasturtean 29.075 ikasle matrikulatu dira Hizkuntzen irakaskuntzan 14 Hizkuntza Eskola Ofizialetan (HEO). Ez da ia aldaketarik izan 2012-13 eta 2014-15 ikasturteetako matrikularen artean. Ikasleen % 66 emakumeak ziren.

Bilboko HEOn bakarrik irakasten dira italiara, portugesa edo errusiera bezalako hizkuntzak. Beste zazpi HEOn atzerriko hiru hizkuntza irakasten dira (ingelesa, frantsesa eta alemana).

Hizkuntza ofizialei dagokienez, euskara hamaika HEOn irakasten da, eta gaztelania hiru HEOn.


Hizkuntza Eskola Ofizialetako hizkuntzak, ikasle eta talde kopurua.
2012-13 eta 2014-15 ikasturteak

	Frants.	Ingl.	Euskara	Alem.	Gaztel.	Italiara	Portug.	Errus.	2012-2013		2014-2015	
									Ikasleak	Taldeak	Ikasleak	Taldeak
Bilbo	x	x	x	x	x	x	x	x	6.722	243	6.673	242
Vitoria-Gasteiz	x	x	x	x	x				4.181	157	4.297	157
Donostia	x	x	x	x	x				3.295	122	3.452	121
Getxo	x	x	x	x					2.892	107	2.815	107
Barakaldo	x	x	x	x					2.766	99	2.625	99
Irun	x	x	x	x					1.834	72	1.814	72
Durango	x	x	x	x					1.822	77	1.685	78
Eibar	x	x	x	x					1.233	53	1.242	53
Basauri	x	x	x						928	35	985	36
Tolosa	x	x							754	33	790	33
Santurtzi	x	x							780	30	787	30
Zalla	x	x	x						686	25	661	25
Bermeo	x	x	x						657	27	650	27
Ordizia	x	x							552	27	599	27
Guztira	14	14	11	8	3	1	1	1	29.102	1.107	29.075	1.107

Hizkuntzarik hautatuena, alde handiarekin, ingelesa izan da (13.948 ikasle), gero euskara (6.292) eta frantsesa (5.344).

2012-13 ikasturtetik 2014-15 ikasturtera frantseseko eta italierako matrikula apur bat igo zen, eta ingeleseko eta euskarakoa, berriz, jaitsi.

**Hizkuntza Eskola Ofizialetako matrikula hizkuntzaren arabera.
2012-13 eta 2014-15 ikasturteak**




Ikasleak Hizkuntzen Europako erreferentzia markoan oinarritutako sei irakasmailatan banatzen dira. Aipatutako markoko azken maila (C2) ez da irakasten, eta B1 maila bitan banatzen da, B1.1 eta B1.2.

Deskribatutako sei irakasmailetakoko matrikula asko aldatzen da hizkuntza batetik bestera. Ingelesean eta euskararen matrikula igotzen doa A1etik B2ra bitartean, eta bi kasuetan matrikularik handiena maila horretan eman da. Euskararen kasuan B2 mailako matrikula ia mantendu egin da C1 mailan, baina ingelesaren kasuan azken irakasmaila horretan matrikula erdira murriztu da.

Frantsesaren eta alemanaren kasuetan joera alderantzizkoa izan da, hasierako mailetakoko matrikula handia izan den arren, mailetan gora joan ahal murriztu egin baita. C1 mailako matrikula hasierako A1 mailakoa baino bost eta zazpi aldiz txikiagoa izan da hurrenez hurren.

Hizkuntza Eskola Ofizialetako matrikula, mailen arabera, matrikula handieneko lau hizkuntzetan. 2014-15 ikasturtea



1.3.- IKASLEEN ADIERAZLE SOZIAL ETA EKONOMIKOAK

1.3.1.- Irakastereduak eta euskararen hizkuntza-adierazleak

Hizkuntza ofizialei dagokienez, ikasleen zenbait adierazle aztertu dira. Lehen irakastereduen aukerei lotutako euskalduntze-indizea da, eta bere bilakaera aztertu da.

Bigarren adierazlea familian erabiltzen den hizkuntza nagusiari dagokio, eta ikuspuntu ezberdinetatik aztertu da, alde batetik 2015eko Ebaluazio Diagnostikoko probetako datuetatik, eta bestetik, 2011ko erroldan familian euskara erabiltzeari buruz jaso ziren datuetatik.


Horrez gain, Arrue Proiektuan eskolaren inguruneko euskararen erabilerari buruz ateratako zenbait ondorio sartu dira, analisi horretan kontuan hartzeko modukoak baitira.

- Irakasteredua, geruzak eta euskalduntze-indizea

Ikasle gehienak D ereduan matrikulaturik daude hezkuntza-etapa guztietan, Lanbide Heziketan izan ezik. Azken urteetan, familiak irakasteredua aukeratzeko momentua denboran aurrera joan ahala, irakasteredu horretako ikasleen ehunekoa gero eta handiagoa izan da. Hartara, 2014-15 ikasturtean D ereduak ikasleen ehunekorik altuena Haur Hezkuntzako 2. zikloan izan du (% 76), gero Lehen Hezkuntzan (% 71), DBHn (% 63) eta Batxilergoan (% 60).

Alderantziz, A ereduan ikasleen ehunekoa oso txikia izan da Haur Hezkuntzan (% 4), Lehen Hezkuntzan (% 6) eta DBHn (% 11), baina askoz altuagoa Batxilergoan (% 39) eta batez ere Lanbide Heziketan (% 74).¹


Ikasleen banaketa irakastereduetan hezkuntza-etapa guztietan. Ikastetxe guztiak. 2014-15



¹ Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza-etapetan ofizialki B eredurik ez dago, baina irakasgai bat edo beste euskaraz ikasten duten ikastaldeak B eredukotzat hartzen dira. Etapa horietako ikasleen % 1 dira.


Sei hezkuntza-sare/irakasteredu geruzak derrigorrezkoaren aurreko eta derrigorrezko hezkuntza-etapetan aztertzen badira, 2014-15 ikasturtean ikasleen ehunekorik altuena hartu duen irakasteredua D eredua izan dela ikus daiteke, ikasleen adina zenbat eta txikiagoa izan, ehunekoa hainbat eta altuagoa izan delarik. Zehatz-mehatz, Haur Hezkuntzako 2. zikloan ikasleen % 48,2 D ereduan matrikulatu da, eta DBHn, ikasleen % 39,2. Horrez gain, D eredu pribatuaren geruzan antzera gertatu dela ikus daiteke, ehunekoa Haur Hezkuntzan % 27,9ra heldu delarik. B eredu pribatuaren geruza tarteko egoera batean dago, eta gainerako hiru geruzetan ehunekoak % 1etik % 5era bitartekoak izan dira, hezkuntza-etaparen arabera.

Ikasleen ehunekoa sare/irakasteredu sei geruzetan DBHn, Lehen Hezkuntzan eta Haur Hezkuntzan (2. zikloa). 2014-15 ikasturtea



Derrigorrezkoaren ondoko hizkuntza-etapei dagokienez, Batxilergoan D eredu publikoaren geruza da nagusi (ikasleen % 36,7), gero A pribatuaren geruza (% 24,6) eta D pribatuaren geruza (% 23,3). Lanbide Heziketan, berriz, A ereduko bi geruzak dira nagusi.


Ikasleen ehunekoa sare/irakasteredu sei geruzetan Batxilergoan eta Lanbide Heziketan. 2014-15 ikasturtea



Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza-etapetan D ereduaren bilakaera mantsoagoa izan da, batez ere Lanbide Heziketan, grafikoan ikus daitekeen bezala. Beste alde batetik, DBHn 2004-05 ikasturtean ikasleen % 24 matrikulatu ziren, 2009-10 ikasturtean, % 28, eta 2014-15 ikasturtean, % 26.

Datorren ikasturtetik aurrera B ereduaren hezkuntza-etapa horietara zabaldu ahal izango da, Oinarrizko Lanbide Heziketa arautzen duen Dekretuan aipatzen den bezala. Esplizituki esaten da lanbide heziketan euskarazko irakaskuntza bultzatuko dela, D ereduaren eskaintza zabalduz eta B ereduaren eskaintza modu progresiboan eta planifikatuan ezarritik, euskarazko ikaskuntza eta profesionalizazioa sendotzeari begira.

Ikasleen ehunekoa D ereduaren DBHn, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan azken 10 urteetan




Euskalduntze-indizeari dagokionez, jarraian ikastetxeetan irakastereduen artean egindako hautaketak 0-100 eskala batean adierazten dira.

Euskalduntze intentsiboaren irakastereduen aldeko aukera, D ereduaren aldekoa bereziki, gero eta handiagoa denez, indizearen balioak gero eta altuagoak izaten dira irakasmaitan behera joan ahala. Hartara, hezkuntza-sare publikoko ikastetxeetako euskalduntze-indizea igo egin da DBHko 4. mailatik (87) Haur Hezkuntzako 3 urtekoen irakasmaitara (96).

Berdin gertatu da ikastetxe pribatuetan, euskalduntze-indizea 64tik 76ra igoen baita bi irakasmaita horien artean.

Euskalduntze-indizea irakasmaiten eta hezkuntza-sarearen arabera. 2014-15 ikasturtea



Eskola-guneen araberrako banaketan, DBHko hezkuntza-etapa (batez besteko euskalduntze-indizea, 76) aztertzen badugu, 100 puntuko euskalduntze-indizea duten

bederatzi eskola-gune ikus ditzakegu. Horrek esan nahi du ikastetxe guztietan eskaintza bakarra D ereduarena dela (1.13 eranskina eta 8. mapa). Ondoren, euskalduntze-indizea 90 baino handiagoa duten beste 13 eskola-gune daude.

Beste muturrean, euskalduntze-indizea 50 puntu baino baxuagoa duten lau eskola-gune daude, eta horrek esan nahi du A ereduan D ereduan baino ikasle gehiago daudela matrikulaturik. Eskola-gune horiek ErErrekalde (40), Araba Mandebaldea (46), Txorierri (47) eta Abando (48) dira.


Ezaugarri orokor gisa, D ereduaren aldeko aukera ikastetxe publikoetan ikastetxe pribatuetan baino arinago hazten ari da, euskalduntze-indizeen arteko aldeak adierazten duen bezala (etapa honetan ikastetxe publikoetako indizea pribatuetakoa baino 23 puntu handiagoa da).

Eskola-guneen araberrako banaketan, indizeen arteko aldea 50 puntukoa edo handiagoa da zenbait eskola-gunetan, hala nola Txorierrin, Abanton, Ekialdeko Lautadan, Arrigorriagan edo Hernanin. Eskola-gune horietan euskalduntzea hezkuntza-sare publikoari lotu loturik dago.


Kontrako muturrean, hamar eskola-gunetan, bereziki Arabako Errioxan eta Txurdinaga-Otxarkoagan, hezkuntza-sare pribatuko indizea sare publikoko indizea baino altuagoa da, baina alde txikiagoarekin (1.14 eranskina eta 9. mapa).

Euskalduntze-indizea 3 puntu igo da 2012-2013 ikasturtetik. Igoerarik aipagarrienak euskalduntze-indizerik baxuena zuten eskola-guneetan, adibidez Araba Mendebaldea (35etik 46ra), Vitoria-Gasteiz Hegoekialdea (49tik 53ra), ErErrekalde (33tik 40ra), Abando (42tik 47ra), eta igoera txikiagoarekin (45etik 47ra), Txorierri.

8. mapa. Irakastereduengatiko euskalduntze-indizea, eskola-guneen arabera. DBHko ikasleak. 2014-15 ikasturtea



9. mapa. Hezkuntza-sareetako euskalduntze-indizearen arteko aldea (publikoa-pribatua) eskola-guneen arabera. DBHko ikasleak. 2014-15 ikasturtea



- Biztanleria, ikasleak eta euskararen erabilera

ISEI-IVEIk Euskadiko Ebaluazio Diagnostikoari buruz argitaratzen dituen txostenetan erakusten den bezala, ikasleen etxeko hizkuntza euskara denean, ikasketetako emaitzak, oro har, hobeak izaten dira. Kontuan izan behar da ez dela bakarrik aldagai honek eragiten baizik eta beste aldagai batzuk esandako Txostenetan azaltzen den bezala.

Hori dela eta, 2015eko Ebaluazio Diagnostikoko probetan euskararen erabilerari buruz jaso zen informazioa oso interesgarria da. Beste alde batetik, Kontseiluak analisi zehatzagoa egin ahal izateko datuak, eskola-guneei dagozkienak kasu, eskuratu nahi dituzenez, 2011ko erroldan euskara familian erabiltzeari buruzko datuek² abagune egokia ematen diote —eskola-gune bat baino gehiago duten udalerriak zatitu ezin diren arren.

ISEI-IVEIk *2015eko Ebaluazio Diagnostikoan* aztertu duen adierazleari dagokionez, familian euskaraz hitz egiten duten ikasleak % 25,9 dira Lehen Hezkuntzako 4. mailan, eta % 20,7 DBHko 2. mailan.

2013ko Ebaluazio Diagnostikotik indizeak puntu bateko igoera izan du bi kasuetan.

Lurraldeei dagokienez, honako datu hauek lortu dira:

Familiako hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoa, lurraldearen eta irakasmilaren arabera


	<i>LH 4</i>	<i>DBH 2</i>
Araba	% 7,6	% 4,4,
Bizkaia	% 18,2	% 12,9
Gipuzkoa	% 44,9	% 38,3
Euskadi	% 25,9	% 20,7

2011ko erroldatik lortutako datuen arabera, Euskadiko biztanleria osoaren % 21ek familian euskaraz hitz egiten du. Hizkuntza-aniztasun handiaren ondorioz, euskalduntze-indizearen balioa ikaragarri aldatzen da eskola-gune batetik bestera: indizerik altuena Lea-Artibain (% 74) eta Urola Erdian (% 72) izan da, biztanleriaren gehiengoak familian euskaraz hitz egiten dueneko hamar eskola-guneren multzo baten barruan; beste eskola-gune batzuetan, berriz, indizea % 5 edo txikiagoa da, adibidez Nerbioaren ezker aldeko bost eskola-gunetan (Sestao, Barakaldo, Santurtzi, Portugalete eta Trapaga), edo Arabako Errioxan eta Araba Mendebaldean (1.16 eranskina eta 10. mapa).

Hiriburuei dagokienez, Donostian indizea % 22 da, Euskadiko batez bestekoaren parekoa, eta Bilbon eta Vitoria-Gasteizen indizea % 7 da.

² Iturria: EUSTAT

10. mapa. Familian euskeraz hitz egiten duten ehunekoa. 2011ko errolda. (EUSTAT)




Beste alde batetik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Soziolinguistika Klusterrarekin batera, *Arrue Proiektuaren* hiru edizio gauzatu ditu. Proiektuaren xedea ikasleek euskara ikastetxearen ingurunean zenbat eta nola erabiltzen duten aztertzea da, 2011, 2013 eta 2015eko Ebaluazio Diagnostikoan Lehen Hezkuntzak 4. mailan eta DBHko 2. mailan ebaluatutako euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak erreferentzia bezala harturik..

Proiektuaren analisiaren esparrua euskararen erabilerari eragiten dioten aldagaiek osatzen dute, ikasleak –ikasgelan eta ikasgelatik kanpo– haien artean komunikatzen direnean, eta baita bi leku horietan irakasleekin komunikatzen direnean ere. Neurketarako 0-5 puntuko eskala bat erabili da..

Lehen Hezkuntzako 4. mailaren kasuan, ondorengo grafikoan adierazten den bezala, emaitzak oso antzerakoak izan dira analisia gauzatu den hiru edizioetan, euskararen erabilera orokorrak balio ia berdinak izan baititu.


Baliorik altuenak ikasgela barruan irakasleekiko komunikaziorako erabileran lortu dira. Bigarren tokian, ikasgelatik kanpo irakasleekiko komunikaziorako erabileran; gero, hurbil samar, ikasgela barruan ikasleen arteko komunikazioan, eta azkenik, urrun samar, ikasleen arteko harremanetan jolastokian.

Euskararen erabilera ikastetxearen ingurunean Lehen Hezkuntzako 4. mailan, 2011, 2013 eta 2015eko Ebaluazio Diagnostikoetan



DBHko 2. mailan ere emaitzak antzerakoak izan dira hiru edizioetan. Kasu horretan, euskararen erabilera orokorrak Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino balio apalagoak izan ditu. Hala eta guztiz ere, ikasgela barruan irakasleekiko harremanetan izan dira baliorik altuenak, hiru edizioetan igo direlarik.


**Euskararen erabilera ikastetxearen ingurunean DBHko 2. mailan,
2011, 2013 eta 2015eko Ebaluazio Diagnostikoetan**



Bigarren erabilpen-esparrua, Lehen Hezkuntzako 4. mailan bezala, ikasgelatik kanpo irakasleekiko harremanak izan dira; balioak hiru edizioetan igo dira. Gero, ikasgela barruan ikasleen arteko harremanak izan dira, eta, azkenik, ikasleen arteko harremanak jolastokian.


Analisian 2015eko Ebaluazio Diagnostikoan lortutako euskara-mailaren erreferentzia (hasierakoa-erdikoa-aurreratua) sartzen bada, Lehen Hezkuntzako 4. mailan euskara-maila zenbat eta altuagoa izan, euskararen erabilera hainbat eta handiagoa dela ikus daiteke, eta, beraz, puntuazioak altuagoak direla kasu guztietan, puntuaziorik apalena beti jolastokian ikasleen arteko harremanetan lortu delarik.

Euskararen erabilera kompetentzia horretan lortutako mailen arabera. Lehen Hezkuntzako 4. maila



DBHko 2. mailan berdin gertatzen da; euskara-maila zenbat eta altuagoa izan, euskararen erabilera handiagoa izan da.

Euskararen erabilera konpetentzia horretan lortutako mailen arabera. DBHko 2. maila




Kasu horretan ere, baliorik apalenak ikasgelatik kanpo ikasleen arteko harremanetan izan dira, eta altuenak ikasgela barruan irakasleekiko harremanetan. Hala ere, irakasmaila horretan irakasleekiko harremanetan ikasgelatik kanpoko erabileraren balioak ikasgela barruko erabileraren balioetara hurbildu dira.

1.3.2. ISEK indizea

Indize sozio-ekonomikoa eta kulturala (ISEK) ikasleek ebaluazio diagnostikoetako galdera-sortetan emandako erantzunetatik kalkulatzen da. Galderetan hainbat alderdi aipatzen dira, hala nola gurasoen maila profesionala, familiaren ikasketa-mailarik altuena, etxean dituzten liburuen kopurua edo kultura-ondasun jakin batzuk (prentsa, aldizkari espezializatuak, ordenagailuak, Internet...)

Ikastetxe bakoitzeko ikasleen batez besteko ISEK indizea ikasle bakoitzaren datuetan oinarriturik kalkulatzen da. EAEko batez besteko indizea 0 da. Hezkuntza-etapa eta edizio bakoitzean ebaluatutako lagineko ikasleen datuekin konparatu daitezke.

Geruzetako ISEK indizea eta ikasleen ehunekoa 2015eko Ebaluazio Diagnostikoan. Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila



ikasleen % geruzan	2,7	4,0	40,2	6,4	22,5	24,3		1,3	4,6	45,2	3,8	19,7	25,3
--------------------	-----	-----	------	-----	------	------	--	-----	-----	------	-----	------	------

Datuen argitan, ez da joera aldaketarik antzematen 2013ko Ebaluazio Diagnostikoko datuetatik, itunpeko sareko geruzetan ISEK indizearen balioak positiboak izan baitira, eta sare publikoko geruzetan, berriz, negatiboak. Beste alde batetik, alderik handienak

ikasleen ehunekorik txikiena eskolatzen duen A ereduan gertatu dira, eta alderik txikienak, ikasleen ehunekorik handiena eskolatzen duen D ereduan.

Ikasleen ISEK indizea Ebaluazio Diagnostikoaren bost edizioetan hezkuntza-sarearen arabera

		2009	2010	2011	2013	2015
DBH 2	Ikastetxe publikoak	-0,22	-0,22	-0,25	-0,24	-0,23
	Itunpeko ikastetxeak	0,15	0,17	0,19	0,22	0,21
	Sareen arteko aldea	0,37	0,39	0,44	0,46	0,44
LH 4	Ikastetxe publikoak	-0,23	-0,25	-0,25	-0,26	-0,23
	Itunpeko ikastetxeak	0,23	0,25	0,26	0,27	0,24
	Sareen arteko aldea	0,46	0,50	0,51	0,53	0,47

Hezkuntza-sareetako ISEK indizeen arteko aldeak ebaluazioaren bost edizioetan zehar izan duen bilakaera aztertzen badugu, aurreko edizioan izan zen joera apurtu dela ikus dezakegu, eta, baita ere, sareen arteko aldea murriztu egin dela.

1.3.3. Dirulaguntzadun ikasleak

2014-15 ikasturteko datuen arabera, 3-19 urteko ikasleen % 36k eskola-materialerako dirulaguntza izan du (HLPP programak kontuan hartu gabe), eta 2-16 urteko ikasleen % 21,4k jantokirako dirulaguntza izan du. Jantokirako dirulaguntza izan duten ikasleen ehunekoa handiagoa izan da Bizkaian, EAEko batez bestekoa baino 2,6 puntu handiagoa.

Dirulaguntzadun ikasleen ehunekoa lurraldeetan. 2012-13 eta 2014-15 ikasturteak

	Eskola-materialerako dirulaguntza izan duten ikasleak		Jantokirako dirulaguntza izan duten ikasleak	
	2012-13	2014-15	2012-13	2014-15
Araba	% 38	% 38	% 20	% 20
Bizkaia	% 38	% 38	% 24	% 24
Gipuzkoa	% 34	% 34	% 17	% 18
Euskadi	% 36,7	% 36,0	% 21	% 21,4

Datuek bi ikasturteetan ia aldaketarik ez dela adierazten digute.

Dirulaguntzadun ikasleen ehunekoa hezkuntza-sareetan eta haien arteko aldea. 2012-13 eta 2014-15 ikasturteak

	Ikastetxe publikoak		Ikastetxe pribatuak		Aldea	
	2012-13	2014-15	2012-13	2014-15	2012-13	2014-15
eskola-materialerako dirulaguntza izan duten ikasleen %	% 44,0	% 43,7	% 30,2	% 28,9	% 13,8	% 14,8
jantokirako dirulaguntza izan duten ikasleen %	% 30,2	% 30,8	% 13,1	% 11,8	% 17,1	% 19,0


Dirulaguntzadun ikasle gehiago egon da ikastetxe publikoetan ikastetxe pribatuetan baino, eta haien arteko aldea hazi egin da, batez ere jantokirako dirulaguntzetan, hazkundera 2 puntukoa izan baita.

Eskola-guneen araberrako banaketan, eskola-materialetarako dirulaguntzen kasuan, Euskadiko batez besteko% 26 izanik, dirulaguntza izan duten ikasleen ehunekorik altuenak Basurtu-Zorrotzan (% 72), ErErrekalden (% 66), Sestaon (% 62), Trapaganen (% 56) eta Begoñan (% 55) izan dira, eta ehunekorik baxuenak Txorierrin (% 15), Arrasaten (% 20), Donostia Ezkerraldean (% 23) eta Bergaran (% 26) izan dira (1.18 eranskina).


Jantokirako dirulaguntzen kasuan, Euskadi osoko batez bestekoa % 21 izanik, ehunekorik altuenak Basurtu-Zorrotzan (% 54), Errekalden (% 51), Sestaon (% 37), Erandion (% 37) eta Ibaiondon (% 37) izan dira, eta ehunekorik baxuenak, berriz, Arrasaten (% 8), Urola Erdian (% 8) eta Txorierrin (% 9) izan dira (11. mapa).

Orain eskola-guenetako banaketan hezkuntza-sareen arteko aldea aztertzen bada, Euskadiko batez besteko aldea 19 puntukoa izanik –% 31 ikastetxe publikoetan, % 12 ikastetxe pribatuetan–, alderik handienak Txurdinaga-Otxarkoagan (48 puntu), Crucesen (29 puntu), Erandion (32 puntu), Vitori-Gasteiz Hegoekialdean (30 puntu) izan dira, eta Gipuzkoan, Andoainen (44 puntu). Kontrako muturrean, bi eskola-gunetan –Hernani (-41 puntu), Lea-Artibai (-2 puntu)– dirulaguntzadun ikasleen ehunekoa ikastetxe pribatuetan ikastetxe publikoetan baino handiagoa izan da (1.19 eranskina eta 12. mapa).

11. mapa. Hezkuntza-etapetan guztira eskola-materialerako dirulaguntza izan duten ikasleen ehunekoa eskola-guneen eta eskola-barrutien arabera. 2014-15 ikasturtea



12. mapa. Jantokirako dirulaguntza izan duten ikasleen ehunekoa. Hezkuntza-sareen arteko aldea eskola-guneen arabera. 2014-15 ikasturtea



1.3.4. Atzerritar ikasleak


2014-15 ikasturtean *Oinarrizko Hezkuntzako* ikasle guztien % 6,6 atzerritarrek ziren, aurreko ikasturtean baino zazpi hamarren gutxiago. Atzerritar ikasleen ehunekoa ikastetxe publikoetan (% 8,9) ikastetxe pribatuetan (% 4,5) baino bi aldiz handiagoa izan da. Ikastetxe pribatuen artean, Kristau Eskolako ehunekoa Euskadiko batez bestekora hurbildu da, baina gainerako ikastetxe pribatuen elkarrekin ehunekoa nahiko apalagoa izan da.

Atzerritar ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzan (LH eta DBH), hezkuntza-sarearen arabera. 2013-14 ikasturtean eta 2012-13 ikasturtearekiko konparazioa

	2014-15			2012-13	Azken bi ikasturteetako Δ
	Atzerriko ikasleak	Ikasleak guztira	Atzerriko ikasleak %	Atzerriko ikasleak %	
Ikastetxe publikoak	9.187	100.843	% 9,1	% 9,9	-0,8
Ikastetxe pribatuak guztira	4.378	103.223	% 4,2	% 4,8	-0,6
Kristau Eskola	3.139	54.318	% 5,8	% 6,4	-0,6
Partaide	639	26.939	% 2,4	% 2,6	-0,2
Gainerako elkarrekin	600	21.966	% 2,7	% 3,0	-0,3
Guztira	13.565	204.066	% 6,6	% 7,3	-0,7

Atzerriko ikasleen kopurua 2011-12 ikasturtetik jaisten joan bada ere, ikastetxe mota bakoitzeko ikasle horien ehunekoaren joera mantendu egin da.


Atzerritar ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzan, ikastetxe motaren arabera. 2012-13, 2013-14 eta 2014-15 ikasturteak



Bi hezkuntz-sareetan, atzerritar ikasleen kontzentrazioa batez ere A ereduaren izan da, eta gero hezkuntza-sare publikoko B ereduaren. Ondorioz, atzerritar ikasleak ikasle guztien % 44,1 dira A eredu publikoaren –eta oso minoritarioaren– geruzan, % 20,4 B eredu publikoaren geruzan eta % 7,7 A eredu pribatuaren geruzan.


D eredu publikoa (% 6,3), B eredu pribatua (% 5,0) eta D eredu pribatua (% 2,8) batez bestekotik behera geratu dira.

**Atzeritar ikasleen ehunekoa sare/irakasteredu geruzetan. Oinarrizko Hezkuntza.
2012-13 eta 2014-15 ikasturteak**



Hala eta guztiz ere, termino absolutuetan atzeritar ikasle gehien matrikulatu dituen geruza D eredu publikoa (5.577) izan da, bere tamaina handiagoa baita. Gero, alde handiarekin B eredu pribatua (2.061), A eredu publikoa (1.826) eta B eredu publikoa (1.784) izan dira.

Atzeritar ikasleen ehunekoa sare/irakasteredu geruzetan. Oinarrizko Hezkuntza. 2014-15 ikasturtea



Hezkuntza-sare publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzan Afrikatik, batez ere Ipar Afrikatik, datozen ikasleak kontzentratzen dira, eta itunpeko hezkuntza-sarean Hego Amerikatik datozen ikasleak maioritarioak dira. Berdin gertatzen da bi hezkuntza-sareetako DBHn eta DOBHn, atzeritar ikasleen % 50 inguru kontinente horretatik etorriak baitira.

Atzeritar ikasleak, hezkuntza-etaparen, sarearen eta jatorriaren arabera. 2014-15 ikasturtea

	HH		LH		DBH		DOBH	
	Pub	Prib	Pub	Prib	Pub	Prib	Pub	Prib
Ipar Afrika	2.112	174	1.820	235	605	168	368	130
Hego Amerika	708	252	1.227	559	1.199	1.271	1.023	900
Europar Batasuna	827	347	1.053	472	597	351	338	196
Gainerako Afrika	895	103	705	118	182	82	226	111
Asia/Ozeania	473	192	585	277	307	198	122	74
Gainerako Amerika	184	94	405	211	263	301	182	140
Gainerako Europa	100	28	144	70	80	65	79	54
Euskadi	5.314	1.192	5.950	1.942	3.237	2.436	2.348	1.606

*Hezkuntza-etapa hauetan nazionalitate ezezaguneko beste 43 ikasle daude

Bizilagun gehien duten herriak kontuan hartzen baditugu, atzerritar ikasleen tasarik altuena Vitoria-Gasteizkoa (10,8) izan da, eta gero Bilbokoa (% 7,5). Hezkuntza-sareen arteko alderik handiena Getxokoa izan da, ikastetxe publikoetako tasa ikastetxe pribatuetakoa baino 2,5 aldiz handiagoa izan baita.


**Atzerritar ikasleen ehunekoa Euskadiko 6 herririk handienetan ikastetxe motaren arabera, eta hezkuntza-sareen arteko aldea (ehunekoen arteko ratioa). 2014-15 ikasturtea
2012-13 ikasturtearekiko konparazioa**

	2014-15				Sareen arteko aldea (ratioa) 2012-13	Sareen arteko aldea (ratioa) Azken ikasturt. Δ
	<i>Ikast. pub.</i>	<i>Ikast. prib.</i>	<i>Ikast. guztiak</i>	<i>Sareen arteko aldea (ratioa)</i>		
Bilbao	% 10,7	% 5,4	% 7,5	2,0	1,9	0,1
Vitoria-Gasteiz	% 16,3	% 4,6	% 10,8	3,5	3,0	0,5
Donostia	% 7,3	% 4,4	% 5,5	1,7	1,5	0,2
Barakaldo	% 10,2	% 7,6	% 9,2	1,3	1,9	-0,6
Getxo	% 11,7	% 4,6	% 8,1	2,6	3,3	-0,7
Irun	% 9,6	% 5,0	% 7,9	1,9	2,0	-0,1
Euskadi	% 9,1	% 4,2	% 6,6	2,1	2,1	0,0


Atzerritar ikasleen ehunekorik altuena izan duten eskola-guneak Errekalde (% 18,3), Arabako Errioxa (% 15,5) eta Vitoria-Gasteiz Iparraldea (% 14,6) izan dira: Kontrako muturrean, Txorierri, Trapaga, Abanto eta Uribe-Kosta ez dira % 3ra heldu (1.20 eta 1.21 eranskinak; 13 y 14 mapak).

Hezkuntza-sareen arteko alderik handienak Arabako Errioxan, Andoainen, Galdakaon, Vitoria-Gasteiz Mendebaldean, Amorebietan eta Trapagan izan dira, atzerritar ikasleen tasa ikastetxe publikoetan ikastetxe pribatuetan baino 6 aldiz handiagoa izan delarik. Beste zazpi eskola-gunetan, aitzitik, atzerritar ikasleen tasa ikastetxe pribatuetan ikastetxe publikoetan baino handiagoa izan da, bereziki Hernanin, Urdaibain, Lea-Artibain eta Ibaiondon.

13. mapa. Atzeritar ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzan (LH eta DBH) eskola-guneeen eta hezkuntza-sarearen arabera. 2014-15 ikasturtea




14. mapa. Atzerritar ikasleen ehunekoa Oinarrizko Hezkuntzan (LH eta DBH). Hezkuntza-sareen arteko aldea(ratioa) eskola-guneen arabera 2014-15 ikasturtea



Atzerritar ikasleen tasaren bilakaera hezkuntza-sareetan aztertzen badugu, bi tasen arteko alderik handienak hasierako hezkuntza-etapetan izan direla ikus dezakegu. Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza-etapetan aldeak txikiagoak izan dira, eta erdiko graduko Prestakuntza Zikloetan atzerritar ikasleen presentzia handiagoa izan da itunpeko hezkuntza-sarean (% 11,3). Haur Hezkuntzako 2. zikloan antzemandako joera mantentzen bada, adierazle sozio-ekonomiko eta kultural horri dagokionez, hezkuntza-sareen arteko aldeak denbora aurrera joan ahala gero eta handiagoak izango dira.

Atzerritar ikasleen ehunekoa hezkuntza-etaparen eta hezkuntza-sarearen arabera. 2014-15



Gainerako hezkuntza-etapei dagokienez, **Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programetan (HLPP)** ikasleen heren bat inguru atzerritar jatorrikoak dira. Tasa % 41era heldu da Araban, gainerako lurraldeetan jaitsiera nabarmena izan delarik.

Atzerritar ikasleak HLPP programetan, lurraldearen eta ikastetxe motaren arabera. 2014-15

	Atzerritar ikasleak			HLPPko ikasle guztien %	HLPPko ikasle guztien % 13-14
	Elkarte pribatuak	Ikastetxe publikoak	Guztira		
Araba	150	115	265	% 41	% 39
Bizkaia	445	280	725	% 30	% 37
Gipuzkoa	132	221	353	% 30	% 32
Euskadi	727 (% 30)	616 (% 33)	1.343 (% 31)	% 32	% 36

Era berean, **Helduen Hezkuntza Iraunkorrean (HHI)** atzerritar ikasleen ehunekoa (% 34) oso altua da, eta ikasle horien % 21 Ipar Afrikatik eta gainerako Afrikatik etorriak dira.

1.7. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Derrigorrezkoaren aurreko Haur Hezkuntza etapako hezkuntza-eskaintza behin eta berriro aipatu izan da Kontseiluaren txostenetan, bai bi urte arterainoko eskolatzean, baita 2 urtekoen irakasmailan ere, jaiotza-kopurua oro har igotzen ari baitzen eta hasierako irakasmaila horietan eskola-gune jakin batzuetan hezkuntza-eskaria eskaintza baino handiagoa izaten baizen.

Gaur egungo egoera ezberdina da. Jaiotza-kopurua, dirudienez, 19.000 baino apur bat gehiagotan mantentzen ari da, urteko jaiotza-kopurua 21.000ra heldu bazen ere. Horrek esan nahi du matrikularen gaineko presioa arintzen ari dela, batez ere 0 eta 1 urtekoen irakasmaitan. Hala eta guztiz ere, adierazgarritzat hartzen da Araban 2013an eta 2014an izan den igoera (% 5,7), Bizkaikoa (% 0,1) eta Gipuzkoakoa (% 1,2) baino askoz handiagoa. Hiriburuan, Vitoria-Gasteizen, jaiotza-kopurua % 8,8 hazi da aldi hartan, 2011ko gehieneko kopurura (2.556; 2014an, 2.554) ia heldu delarik.

2 urtekoen irakasmaitan eskolatze-tasa % 93 baino altuagoa izan da eta 2012/13 ikasturtearekiko ez da aldaketa handirik egon. Zenbait eskola-gunetan eskolatze-tasa % 100 baino handiagoa izan da, inguruko gunetako ikasleak hartu baitituzte. Tasarik handienak Txorierri (% 178) eta Amorebietan (% 135) izan dira.

Okupazio-tasarik handienak dituzten eskola-guneei dagokienez, batez bestekoa % 89,5 izanik, Bilbokoa % 96ra heldu da, eta Vitoria-Gasteizkoa % 97ra. Zenbait udalerritan okupazio-tasa % 100 baino handiagoa izan da, hala nola Portugaleten (% 101), Barakaldon (% 104), Ermuan (% 106) eta Erandion (% 112).

Arabian 3-5 tartean ere matrikularen igoera bat izan da (% 1,7), baina Bizkaian eta Gipuzkoan jaitsiera txiki bat izan da. Arabian tarte horretan gainerako adin-tarteetan izan den portaera bera izan da, bai Lehen Hezkuntzan, bai DBHn baita Batxilergoan ere matrikula Bizkaian edo Gipuzkoan baino gehiago hazi baita.

(P1)Hori dela eta, hezkuntzaren programazio orokorrari ekiteko behar diren aurreikuspenak egiterakoan, kontuan hartu beharreko alderdirik garrantzitsuenak jaiotza kopuruaren bilakaera da. Horregatik eskatzen du Kontseiluak arreta berezia jar dadin Arabako lurraldean, eta bereziki Vitoria-Gasteiz hiriburuan arlo horretan sor daitezkeen beharretan. Arestian aipatu den bezala, jaiotza kopuruaren hazkunderik handiena duen hiriburua izateaz gain, atzeritar ikasleen ehunekorik altuena (% 10,8) du, eta gaur egun zabalkunde-gune handia du Zabalgana eta Salburua auzoetan

Lehen atal honetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzea ere aztertuta da, Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoan definitzen den bezala. Hala ere, zenbait arazo sortu dira jasotako datuak kudeatzerakoan, erabilitako informatika-aplikazioetan funtsezko kontzeptu batzuk ez baitira behar bezala eguneratu. Hain zuzen ere, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak ez dira identifikatzen ezgaitasun edo jokabide-arazo larriak dituzten ikasleekin, ikasle guztiekin baizik, indarrean dagoen 1998ko araudian azaltzen den bezala.

(P2) Horregatik eskatzen du Kontseiluak, jasotako datuen erregistroan eta kudeaketan ahalegin handia egin dela ongi dakien arren, datuak Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko Plan Estrategikoan proposatutako kontzeptuei egokitzea, eta zehazki hezkuntza-premia berezietako ikasleak eta hezkuntza-laguntzaren berariazko premietako ikasleak argi bereiztea.

Ildo beretik, hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleen kontzeptua eta eskola inklusiboaren kontzeptua sartuta daude bai Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaz ezartzen duen Dekretu berrian, eta baita aipatutako Plan Estrategikoan ere. Baina kontzeptu horiek ez daude definituta indarrean dagoen legerian (118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena eta ondorengo garapen-agindua)

(P3) Kontseilu honek Sailari indarrean dagoen legeria eguneratzea eskatzen dio, Eskola inklusiboaren esparruan hezkuntza-laguntzaren berariazko premiak definitzeko eta kudeatzeko. Era berean, lege berri horretan Curriculum Anitzak gauzatzeko baldintzak eta ondorioak arautzeko beharraz ohartarazi nahi du, kontzeptua bi iturri ezberdinen arabera (1998ko Dekretua eta 2012ko Jarraibideak) interpretatzeak sortzen dituen arazoak kontuan izanik.

Gure hezkuntza-sistemaren euskalduntzea dela eta, hezkuntza-etapa guztietako matrikula, Lanbide Heziketakoa izan ezik, nagusiki D ereduan egiten dela azpimarratu behar da, eta D ereduko matrikula, ikasleen adina zenbat eta txikiagoa izan, gero eta handiagoa izaten dela. Hartara, gure erkidegoko batez besteko euskalduntze-indizea 3 puntu igo da 2012-13 ikasturtetik, 73tik 76ra, ikasle guztiak D ereduan eskolaturik dituen eskola-gune batek % 100eko indizea izango lukeela kontuan izanik.

Euskararen ezagupenaren eta euskalduntze-indizearen arteko korrelazioa egiaztatuta dago. Lanbide Heziketako ikasleen % 73,6 A ereduan matrikulatuta dago, % 1,2, B ereduan eta % 25,2, D ereduan.

(P4) Hori dela eta, Sailari proposamen bat egin beharko litzaioke ikastetxe publikoek eta pribatuak, B eta D irakastereduak indartzearen bidez, euskalduntze-indizea igo ahal izan dezaten.

Beste alde batetik, 2015eko Ebaluazio Diagnostikoko datuek egiaztatu dute, biztanleria zenbat eta gazteagoa izan, etxeko hizkuntza euskara izateko aukerak oro har handiagoak izaten direla.

Bai D ereduko matrikularen bilakaerak bai seme-alabekin euskara gero eta gehiago erabiltzeak gizartearen euskalduntzean eragin onuragarria duten arren, Arrue Proiektuak arlo horretako aurrerapena mugatua dela jakinarazi du. Arestian aipatu da euskara oro har DBHko 2. mailako ikasleen artean Lehen Hezkuntzako 4. mailakoan artean baino gutxiago erabiltzen dela, eta hortik ondorioztatu daiteke ikasleek, denbora aurrera joan ahala, euskara gutxiago erabiltzen dutela ikastetxeko harreman-esparruetan, eta bereziki ikaskideekiko harremanetan ikasgelatik kanpo. Horrez gain, 2015eko Ebaluazio Diagnostikoko emaitzen argitan, begi bistakoa da, euskara maila

zenbat eta altuagoa izan, euskara esparru guztietan hainbat eta gehiago erabiltzen dela. Hori guztiagatik, proposamen hauek hartu behar dira kontuan:

(P5) ISEI-IVERen datuek Arrue Proiektuari egindako ekarpena ikusirik, Kontseilu honek iradokitzen du ikastetxeetako txostenetan euskara aztertutako esparruetan (ikaskideekin ikasgelan, ikaskideekin jolastokian, irakasleekin ikasgelan, irakasleekin ikasgelatik kanpo) erabiltzeari buruzko datuak adierazi daitezten. Era berean, ikastetxeei gomendatzen die Hobekuntza Planak diseinatzerakoan datu horiek kontuan har ditzaten, eta, beraz, euskararen erabileraren normalizazioan aurrera egiteko behar diren estrategiak eta ekintzak erantsi ditzaten.

(P6) DBHko 2. mailan, hasierako euskara-mailari dagozkion emaitzak lortu dituzten ikasleak euskara erabilpen-esparru guztietan gutxien erabiltzen dutenak direnez, eta 2011ko Arrue Proiektuan "euskara eskolaz kanpoko jardura antolatuetan erabiltzea" euskararen erabilerari gehien eragiten dion aldagaia denez, Kontseilu honek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eskolaz kanpoko euskarazko jardura gehiago antolatzea proposatzen du, Euskarazko Hizkuntza-Komunikaziorako Konpetentziako emaitzen arabera, beheko konpetentzia-mailetan ikasle guztien % 15 baino gehiago dauden kasuetan euskara gehiago erabil dadin lortu ahal izateko.

Azkenik, adierazle sozio-ekonomikoei dagokienez, 2015eko Ebaluazio Diagnostikoko Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen ISEK indizea aztertu ondoren, hezkuntza-sareen arteko aldea arinki murriztu bada ere, ISEK indizerik apalena duten ikasleen ehunekoa sare publikoan handiagoa dela ondorioztatu daiteke. Bestalde, dirulaguntzadun ikasleen ehunekoari eta atzerritar ikasleen ehunekoari dagokienez, hezkuntza-sareen arteko aldea, berriz, handitu egin da, ikastetxe publikoetan handiagoa delarik.

(P7) Beraz, Kontseilu honek berriro azpimarratu nahi du gizarteko eta administrazioko beste agente batzuekin batera neurri zehatzak eta koordinatuak finkatu behar direla, ikasleen gizarte-jatorrien arteko aldeak konpentsatzeko behar diren ekimenak sustatu ahal izateko.

IKASTETXEETAKO PROZESUAK:
EBALUAZIOA, BERRIKUNTZA ETA
ANTOLAMENDUA

2.- IKASTETXEETAKO PROZESUAK: EBALUAZIOA, BERRIKUNTZA ETA ANTOLAMENDUA

SARRERA

Ebaluazioa ezinbesteko tresna da hezkuntza-jarduera orientatzeko eta, baita ere, ikastetxeek proiektu orokorretan (Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua, Hizkuntza Proiektua...) eta proiektu zehatzagoetan (Hobekuntza Plana, Prestakuntza Plana, proiektuen garapena, hautazkotasunaren esparrua...) erabaki asko hartzerakoan orientabideak emateko.

2013-14 eta 2014-15 ikasturteetan zehar PISA 2015 ebaluazioa (txosten hau idazteko garaian argitaratu gabea) eta Ebaluazio Diagnostikoa 2015 gauzatu dira. Ebaluazio Diagnostikoari buruzko datuak ematen dira txostenean.

Kontseiluak berriro aipatu nahi du kanpoko ebaluazioen eta barneko ebaluazioen arteko osagarritasunaren beharra. Ondorioz, bigarren atal honetan derrigorrezko hezkuntza-etapetan eta derrigorrezko hezkuntzaren ondorengo etapetan eskolatutako ikasleen populazio osoaren emaitzak ere aztertzen dira.

Horrez gain, irakasleek prestakuntza eta berrikuntza-prozesuetan izan duten inplikazioari buruzko datuak ere azaltzen dira, beste sail edo/eta erakunde batzuekin elkarlanean gauzatutako zenbait ekimen ere barne. Bukatzeko, ikastetxe publikoetako zuzendaritzaren ebaluazioa aztertzen da, eta baita Hezkuntza Marko Hirueledunarena eta proposamen berriena ere, hau da, Hamaika Esku programarena eta Hauspoa esperientziarena.

2.1. 2015eko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

Jarraian orain arte gauzatutako bost ebaluazioetako datuak azaltzen dira, ISEI-IVEIk argitaratu dituen bezala.

2015eko ebaluazioan euskarri digitala bigarrenengoz erabili da. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia ebaluatu zeneko 2013ko edizioan ez bezala, oraingo honetan ingelesa ebaluatu da, 2011ko ediziotik ebaluatu gabe zegoelarik.

Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleek bost konpetentzietako probetan (euskara, gaztelania, ingelesa, matematika eta zientziarako konpetentzia) lortutako emaitzak aztertzen dira. Emaitzei loturiko faktore nagusiak kontuan hartu dira, eta analisia geruzen, lurraldeen eta Berritzegune-eremuen arabera egin da.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren aurreko txostenean lehenengoz egin zen emaitzen analisia eskola-barrutien arabera. Oraingo txosten honetan analisia Berritzeguneetarako³ finkatutako eremuetan oinarritzea agian erabilgarriagoa izan daitekeela iritzi da, eremu mailako aholkularitza eta prestakuntza hasiera batean zerbitzu horiei baitagozkie.


³ 15/2001 Dekretua, otsailaren 6koa, Prestakuntzan eta Hezkuntzaren Berrikuntzan Laguntzeko Zentroak (Berritzeguneak) sortzen dituenak, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzu gisa

2.1.1. ED-2015 ebaluazioa Lehen Hezkuntzako 4. mailan

- Emaizten bilakaera


Ebaluazioaren aurreko edizioarekin konparaturik (2013koa, 2011koa ingelesezko kompetentziaren kasuan), emaitzak jaitsi egin dira kompetentzia guztietan, zientziarako kompetentzian izan ezik, azken horrek igoera txiki bat izan baitu. 2009ko ebaluazioko emaitzekin konparaturik, gaztelaniazko kompetentziak bakarrik izan ditu emaitza hobeak, 6 puntu altuagoak.

ED-2015. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Bost kompetentzietako emaitzen bilakaera bost ebaluazioetan zehar



Hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoa aurreko ebaluaziokoarekin konparaturik aztertzen bada, hobekuntza bakarra zientziarako kompetentzian izan da, ikasleen ehunekoa 1,5 puntu jaitsi baita. ED-2009 ebaluazioarekin konparaturik, hobekuntza bat izan da gaztelanian eta matematikan hasierako mailako ikasleen ehunekoa, hurrenez hurren, 7,6 eta 0,9 puntu jaitsi baita.

ED-2015. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Hasierako mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera bost kompetentzietan eta bost ebaluazioetan zehar.



- Emaitzei loturiko faktore nagusiak


Jarraian emaitzekin lotura zuzena duten zenbait faktore aztertzen dira, hala nola ikasleen sexua, etxean erabiltzen duten hizkuntza, irakasmalarekiko adin-egokitasuna eta ISEK indizea.

Kontuan hartu beharrekoa da txosten honetan faktore horiek banan-banan isolaturik aurkezten diren arren, guztiak elkarrekin loturik daudela, eta beraz, euren benetako eragina aldagai anitzeko analisiaren bidez bakarrik erakutsi daitekeela.⁴

a) Sexua

Irakasmaila horretan neskak hiru konpetentzietan (euskara, zientzia-kultura eta ingelesa) nabarmendu dira, 5 eta 7 puntu arteko aldearekin, mutilak matematikan eta gaztelanian neurri apalago batean nabarmendu diren arren.

ED-2015. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak, sexuaren arabera




b) Etxeko hizkuntza

Lehen Hezkuntzako 4. mailan etxeko hizkuntza euskara duten ikasleak ikasle guztien % 25,9 dira, aurreko ebaluazioan baino puntu bat gehiago. Etxeko hizkuntzaren eragina hiru hizkuntza-konpetentzietan bakarrik aztertu da: euskara, gaztelania eta ingelesa. ED-2015 ebaluazioan etxean euskara hitz egiten duten ikasleek Euskarazko konpetentzian etxean gaztelania edo beste hizkuntza bat erabiltzen dutenek baino 36 puntu gehiago lortu dituzte, eta Ingeleseko konpetentzian, 7 puntu gehiago. Gaztelaniazko konpetentzian, berriz, 4 puntu gutxiago lortu dituzte.

Ingeleseko konpetentzian eraginik handiena duten aldagaietako bat eskolaz kanpoko jarduerak ingelesez gauzatzea da. Alderdi hori ISEI-IVEIren txostenean zehaztasunez aztertzen da.

⁴ ED-15eko Txosten Exekutiboa. ISEI-IVEI


ED-2015. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Ebaluatutako hiru konpetentzietako emaitzak, etxeko hizkuntzaren arabera



c) Adin-egokitasuna

Irakasmaila horretan adin egokiko ikasleak % 92 dira, eta adin egokia ez dutenek baino emaitza hobekoak lortu dituzte konpetentzia guztietan.


ED-2015. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak, adin-egokitasunaren arabera



d) Ikastetxeko ISEK indizea

ISEK indizearen eta emaitzen arteko lotura konpetentzia guztietan antzeman da, euskararen kasuan izan ezik. Euskarazko konpetentzian, irakastereduen eraginez, ISEK indize altuko ikasleek eta ISEK indize ertain-altukoek antzerako emaitzak lortu baitituzte. Itunpeko A ereduaren geruzan ISEK indizea altua da, baina emaitzak apalak izan dira konpetentzia horretan. Beste alde batetik, gaztelaniazko konpetentzian ez dago alde adierazgarririk ISEK indize ertain-baxuaren eta ertain-altuaren artean. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar ISEK indize bereko ikastetxeen artean, batzuek espero baino emaitza altuagoak lortu dituztela eta beste batzuek espero baino emaitza apalagoak, 2.1 eranskinen grafikoan ikus daitekeen bezala (matematikako emaitzak ikastetxeko ISEK indizearen arabera

ED-2015. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak, ikastetxeko ISEK indizearen arabera



- Analisia geruzen, lurraldeen eta Berritzegune-zonaldeen arabera

a) Geruzen arabera


Lehen Hezkuntzako 4. mailan geruza nagusi bat dago (D publikoa), bi tarteko (itunpeko D eta B), bi minoritario (B publikoa eta itunpeko A) eta bat oso minoritarioa (A publikoa). Bi hezkuntza-sareetako A eta B ereduetan ikasleen ehunekoa jaitsi egin da, baina D eredu publikoan eta itunpeko D ereduaren ikasleen ehunekoa ia 2 puntu igo da.

Emaitzei dagokienez, geruzen arteko alderik handiena ingelesaren konpetentzian gertatu da, A eredu publikoaren eta itunpeko A ereduaren artean, eta euskarazko konpetentzian, A, B eta D irakastereduaren artean.

ED-2015. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Ikasleen ISEK indizea eta ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak, geruzen arabera

Geruza	Ikasleen%	ISEK	Euskara	Gaztelania	Matematika	Zientzia	Ingelesa
A publikoa	%1,3	-1,13	192	234	209	220	212
B publikoa	%4,6	-0,48	225	250	231	224	230
D publikoa	%45,2	-0,19	251	252	244	232	238
A itunpekoa	%3,8	0,71	216	272	262	268	286
B itunpekoa	%19,7	0,16	238	264	254	242	258
D itunpekoa	%25,3	0,22	262	256	254	242	256
Euskadi	%100,0	0,00	248	256	248	238	247

ED-2015. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak, geruzen arabera




Itunpeko A ereduaren geruza konpetentzia guztietan, ingelesezko konpetentzian bereziki, nabarmendu da, euskarazko konpetentzian izan ezik. Itunpeko B eta D ereduaren geruzek antzeko emaitzak lortu dituzte, euskarazko konpetentzian izan ezik, eta hein apalagoan gaztelaniazko konpetentzian.

Hezkuntza-sare publikoan A eta B ereduaren artean B eta D ereduaren artean baino alde handiagoa egon da, bi geruza horiek irakasmaita horretako ikasleen % 6 bakarrik hartzen duten arren.

b) Lurraldeen eta Berritzegune-zonaldeen arabera

Arestian aipatu bezala, etxeko hizkuntzaren faktorearen eragina nabaria izan da hizkuntza-konpetentzien kasuan. Gipuzkoa euskaraz, matematikan eta zientzia-kulturan nabarmendu da, eta Bizkaia eta Araba, gaztelanian eta ingelesean.

ED-2015. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak, lurraldeen arabera.



Arabaren etxean euskara erabiltzen duten ikasleen ehunekoa nabarmenki txikiagoa da, eta ikasleek, hizkuntzaren aldetiko ezaugarriei gain, ISEK indize ertaina dute, Bizkaikoa baino apur bat altuagoa eta Gipuzkoakoa baino txikiagoa, baina ikasle etorkinen tasa eta ikastetxe publikoetako eskolatze-tasa handiagoak dira. Beste

muturrean, Gipuzkoan ISEK indizea altuagoa da, ikasle etorkinen ehuneko txikiagoa, eta ikasleen % 50ek etxeko hizkuntza euskara dute.

ED-2015. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Ikasleen ezaugarriak eta hiru konpetentziatako emaitzak, lurraldeen arabera

Lurraldea	Ikasleak	Ikasleen ezaugarriak			Publikoak	Emaitzak				
		ISEC	% Imm	%LF Eus		Euskara	Gazt.	Mat	Zient	Ingl
Araba	3.147	-0,00	10,0	7,6	58,2	237	258	244	236	245
Bizkaia	10.761	-0,02	5,5	18,2	50,4	246	259	247	238	248
Gipuzkoa	7.259	0,02	4,9	44,9	49,3	257	251	251	239	243
Euskadi	21.167	0,00	5,8	25,9	51,2	248	256	248	238	247

Ondorengo taulan emaitzak Berritzegune-zonaldeen arabera aurkezten dira, ikasleen ezaugarrien adierazleekin batera. Konpetentzia horietako emaitzak ez direla elkarren artean konparagarriak kontuan izanik, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekorik altueneko Berritzegune-zonaldeetan euskarako eta matematikako emaitzak hobeagoak izan direla ikus daiteke, eta gaztelaniako emaitzak, berriz, batez bestekoak baino apalagoak. Alderantziz, adierazle horren baliorik txikiena duten Berritzegune-zonaldeetan gaztelaniako emaitzak hobeagoak izan dira, eta euskarakoak eta matematikakoak, berriz, batez bestekoak baino apalagoak.


ED-2015. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Ikasleen ezaugarriak eta hiru konpetentziatako emaitzak, Berritzegune-zonaldeen arabera (batez bestekotik beherakoak, laranjaz)

Zonaldea		Ikasleak.	Ikasleen ezaugarriak			Emaitzak			
			ISEK	% Etorkinak	Etxeko hizk. Eus	Mat.	Euskara		Gazt.
							Batez best.	Hasierako %	
A01	Vitoria-Gasteiz	1.408	0,01	12,9	6,0	246	236	48,1	260
A02	Vitoria-Gasteiz	1.739	-0,01	7,7	8,9	242	237	45,5	256
B01 - B02	Bilbo	2.756	-0,10	8,9	9,4	242	237	46,4	257
B03	Sestao	1.091	-0,23	2,8	7,0	246	243	39,9	260
B04	Barakaldo	896	-0,28	7,2	3,7	240	233	47,7	260
B05	Ortuella	757	-0,17	2,3	8,9	240	246	37,4	259
B06	Basauri-Galdakao	1.026	-0,05	4,3	18,9	247	251	33,7	256
B07	Getxo	1.009	0,29	6,6	24,2	254	256	30,8	262
B08	Leioa	1.441	0,41	2,7	13,3	257	246	38,4	266
B09	Durango	1.072	-0,05	4,7	37,4	251	255	30,2	256
B10	Gernika	713	-0,09	5,4	69,3	256	264	22,6	252
G01	Donostia-S. Seb.	1.856	0,32	5,0	26,9	256	254	30,9	261
G02	Irun	1.479	-0,16	4,8	29,8	243	252	32,4	252
G03	Eibar	1.145	-0,02	4,9	53,2	252	257	28,2	248
G04	Ordizia	746	-0,01	5,6	59,7	250	260	26,9	245
G05	Zarautz	804	-0,08	4,0	71,0	254	264	23,4	243
G06	Lasarte	1.229	-0,08	4,7	56,7	250	260	24,8	247
	Euskadi	21.167	0,0	5,8	25,9	248	248	36,2	256

Zonalde bakoitzari dagozkion udalerriak 2.2 eranskinan jasotzen dira

Arabako bi Berritzegune-zonaldeetan euskarako eta matematikako emaitzak batez bestekoak baino baxuagoak izan dira. Bietan etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoa txikia da, eta ikasle etorkinen ehunekoa batez bestekoa baino handiagoa da, ehunekorik handiena (% 12,9) A01 zonaldean izan delarik. **Gipuzkoan** oso deigarria da Irunen kasua, matematikan eta gaztelanian batez bestekoak baino emaitza apalagoak izan baititu. Zonalde horretako ikastetxeetan etxeko hizkuntza euskara duten ikasleak batez beste % 30 dira, eta ikasle etorkinen ehunekoa batez bestekoa baino txikiagoa da, ISEK indizea Gipuzkoako txikiena bada ere. Bizkaian, matematikan eta euskararen batez bestekoa baino emaitza baxuagoak izan dituzten zonaldeak Bilbo, Sestao, Barakaldo eta Ortuella izan dira, guztiak ISEK indize baxuarekin eta etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehuneko baxuarekin. Zonalde horietan ikasle etorkinen ehunekoa askotarikoa da, txikia Ortuellan (% 2,3) eta Sestaon (% 2,8) eta handiagoa Barakaldon (% 7,2) eta Bilbon (% 8,9).

ED-2015. Lehen Hezkuntzako 4. maila. Hiru konpetentziatako emaitzak, Berritzegune-zonaldeen arabera



* Grafikoaren eskala 220 puntutan hasten da, puntuazioen arteko aldeak argiago ikusi ahal izateko.


2.1.2. ED-2015 ebaluazioa DBHko 2. mailan

- Emaitzen bilakaera

Aurreko ebaluazioarekin konparaturik (ED-2013, ED-2011 ingelesaren kasuan), gaztelaniako eta ingeleseko emaitzak errepikatu egin dira ia, zientzia-kulturan igo egin dira, eta euskararen eta matematikan, berriz, jaitsi egin dira.


Hasierako ebaluaziotik (ED-2009) iragan diren bost ikasturteetan, gaztelanian 3 puntuko igoera izan da, baina zientzia-kulturan 9 puntuko jaitsiera izan da, 4 puntukoa matematikan eta 1 puntukoa euskararen.

ED-2015. DBHko 2. maila. Bost konpetentzietako emaitzen bilakaera bost ebaluazioetan zehar.



Aurreko ebaluazioarekin konparaturik, hasierako mailako ikasleen ehunekoa jaitsi egin da zientzia-kulturan, gaztelanian eta ingelesean, baina nabarmenki igo da euskararen eta apur bat matematikan. ED-2009 ebaluazioarekin konparaturik, hasierako mailako ikasleen ehunekoa gaztelanian bakarrik jaitsi da; matematikan eta zientzia-kulturan apur bat igo da, eta hein handiagoan, euskararen.

ED-2015. DBHko 2. maila. Hasierako mailako ikasleen ehunekoaren bilakaera bost konpetentzietan, bost ebaluazioetan zehar




- Emaidzei loturiko faktore nagusiak

a) Ikasleen sexua

Neskek puntuazio altuagoak lortu dituzte lau konpetentzietan, baina bitan bakarrik nabarmenki altuagoak: euskara eta ingelesa. Matematikan mutilek puntuazio hobeagoak lortu dituzte.

ED-2015. DBHko 2. maila. Ebaluatutako bost kompetentzietako emaitzak ikasleen sexuaren arabera




b) Etxeko hizkuntza

DBHko 2. mailan etxeko hizkuntza euskara duten ikasleak % 20,7 dira, Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino bost puntu gutxiago, ED-2013 ebaluaziotik puntu bat igo bada ere.

Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek euskararen 31 puntu gehiago lortu dute, eta ingelesean, 10 gehiago. Aitzitik, etxeko hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntza bat duten ikasleek gaztelanian 6 puntu gehiago lortu dituzte.

Lehen Hezkuntzako 4. mailaren kasuan bezala, ingelesezko kompetentzian eraginik handiena duen aldagaia eskolaz kanpoko jarduerak ingelesez gauzatzea izan da, ISEI-IVEIren txostenean azaltzen den bezala.


ED-2015. DBHko 2. maila. Ebaluatutako hiru kompetentzietako emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera



c) Adin-egokitasuna

Irakasmailarako adin egokia duten ikasleek emaitza nabarmenki hobeagoak lortu dituzte konpetentzia guztietan. Berdin gertatu da irakasmila bat errepikatu duten ikasleekin bi irakasmila errepikatu dituztenekiko.


ED-2015. DBHko 2. maila. Ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak ikasleen adin-egokitasunaren arabera



d) Ikastetxeko ISEK indizea

Irakasmila honetan ere egiaztatu da oro har ISEK indizea zenbat eta altuagoa izan, ikasleen emaitzak hainbat eta altuagoak izaten direla konpetentzia guztietan. Salbuespena euskarazko konpetentzian gertatu da, ISEK indize ertain-altuko ikastetxeetan eskolatutako ikasleek ISEK indize altuko ikastetxeetan eskolatutakoek baino emaitza hobeak lortu dituztelako. Horren arrazoia itunpeko A ereduko ikastetxeek emaitzetan duten eragina da. Lehen Hezkuntzako 4. mailan bezala, irakasmila honetan ere zenbait ikastetxe nabarmendu dira espero zitekeen puntuaziotik gora edo behera. (2.1 eranskina).

ED-2015. DBHko 2. maila. Ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak ikastetxeko ISEK indizearen arabera



- Analisia geruzen, lurraldeen eta Berritzegune-zonaldeen arabera


a) Geruzen arabera

A eta B eredu publikoen geruzetako puntuazioak, oro har, apalagoak izan dira, eta ISEK indizea, guztietan baxuena. Itunpeko A ereduaren geruza zientziarako konpetentzian eta ingelesezko konpetentzian nabarmendu da, matematikan itunpeko gainerako geruzetatik behera geratu den arren. Matematikan eta euskaran berriro nabarmendu da itunpeko D ereduaren geruza. Gaztelanian itunpeko B ereduaren geruza nabarmendu da.

ED-2015. DBHko 2. maila. Ikasleen ISEK indizea eta bost konpetentzietako emaitzak, geruzen arabera

Geruza	Ikasleen %	ISEK	Euskara	Gaztelania	Matematika	Zientzia	Ingelesa
A publikoa	%2,7	-1,31	178	221	206	218	203
B publikoa	%4,1%	-0,68	219	237	220	213	221
D publikoa	%40,2%	-0,12	254	249	241	236	243
A itunpekoa	%6,4%	0,32	207	258	249	257	266
B itunpekoa	%22,5%	0,12	242	263	250	241	259
D itunpekoa	%24,3%	0,26	265	256	257	251	263
Euskadi	%100,0%	0,00	249	253	246	241	251

ED-2015. DBHko 2. maila. Ebaluatutako bost konpetentzietako emaitzak geruzen arabera




Euskarazko konpetentzian irakastereduaren eragina nabaria izan da, eta gaztelaniazko konpetentzian emaitzarik apalenak A eta B eredu publikoen geruzetakoak izan dira. Ingelesezko konpetentzian, emaitzarik hoberenak itunpeko A eta D ereduaren geruzetan lortu dira, eta matematikan, itunpeko B eta D ereduaren geruzetan.

Zientziarako konpetentzian emaitzarik onenak itunpeko A eta D ereduaren geruzetan lortu dira, eta sare publikoan, D eta A ereduaren.

b) Lurraldeen eta Berritzegune-zonaldeen arabera

Lurraldeen arteko konparazioan, Gipuzkoak emaitzarik onenak euskarari lortu ditu, eta hein apalagoan matematikan eta zientzia-kulturan. Arabak eta Bizkaia emaitza hobeagoak lortu dituzte gaztelanian. Ingelesaren kasuan ez dago lurraldeen arteko puntuazio-alderik.

ED-2015. DBHko 2. maila. Bost konpetentziarako emaitzak lurraldeen arabera.



Arabak du ISEK indize baxuena eta ikasle etorkinen tasa % 13,3koa da, Lehen Hezkuntzako 4. mailakoa % 10ekoa zelarik. DBHko ikasle bakoitzaren hezkuntza-sareetan gainerako lurraldeetakoaren antzekoa da.

ED-2015. DBHko 2. maila. Ikasle ezaugarriak eta hiru konpetentziarako emaitzak, lurraldeen arabera

Lurraldea	Ikasleak	Ikasle ezaugarriak			%	Emaitzak				
		ISEK	% etorkinak	%LF Eus		Euskara	Gazt.	Mat.	Zientz.	Ing
Araba	2.926	-0,01	13,3	4,4	46,9	240	257	247	241	252
Bizkaia	9.621	0,00	7,8	13,1	46,1	244	256	244	240	251
Gipuzkoa	6.548	0,01	6,4	38,6	48,1	259	249	245	243	252
Euskadi	19.095	0,00	8,0	20,7	46,9	248	256	248	238	247

Ondorengo taulan emaitzak Berritzegune-zonaldeen arabera aurkezten dira, ikasle ezaugarrien adierazleekin batera. Konpetentzia horietako emaitzak ez direla elkarren artean konparagarriak kontuan izanik, etxeko hizkuntza euskara duten ikasle gehienek Berritzegune-zonaldeetan euskarako eta matematikako emaitzak hobeagoak izan direla ikus daiteke, eta gaztelaniako emaitzak, berriz, batez bestekoak baino apalagoak. Alderantziz, adierazle horren baliorik txikiak duten Berritzegune-zonaldeetan euskarako eta matematikako emaitzak batez bestekoak baino apalagoak izan dira.

Bizkaiko bi zonaldeetan (B05 eta B06) eta Gipuzkoako zonalde batean (G02) hiru konpetentziarako emaitzak batez bestekoak baino apalagoak izan dira; hiruretan ISEK indize baxua da eta ikasle etorkinen gehiengoa, batez bestekoa baino txikiagoa. Lehen

Hezkuntzan bezala, oso deigarria da Irunen kasua: etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoa % 51 ingurukoa da, eta ikasle etorkinen ehunekoa batez bestekoa baino txikiagoa, baina ISEK indizea Gipuzkoako indizerik txikiena da, Lasartekoarekin batera.

Arabako A02 zonaldean eta Bizkaiako zenbait zonaldeetan (Bilbo, Sestao, Barakaldo, Ortuella eta Basauri-Galdakao) matematikako eta euskarako emaitzak batez bestekoa baino apalagoak izan dira. Guztietan ISEK indizea baxua da, eta familia euskaldunen ehunekoa ere, txikia. Ikasle etorkinen ehunekoa aldatu egiten da zonalde batetik bestera, adibidez Ortuellan (% 4,4), Sestaon (% 5,2) eta Basaurin (% 5,2) txikia da, eta Vitoria-Gasteizen (A02)(% 12,2), Bilbon (% 11,4) eta Barakaldon (% 9,4) handiagoa. Gipuzkoan, berriz, Lasarten euskarako emaitzak onak izan dira, baina matematikakoak eta gaztelaniakoak batez bestekoak baino apalagoak.


ED-2015. DBHko 2. maila. Ikasleen ezaugarriak eta hiru konpetentziako emaitzak, Berritzegune-zonaldeen arabera (batez bestekotik beherakoak, laranja)

Zonaldea		Ikasleak	Ikaseen emaitzak				Emaitzak Euskara		Gazt.
			ISEK	% Etork.	% Etxeko hizk. Eus	Matem	Batez best.	hasierako %	
A01	Vitoria-Gasteiz	1.134	0,09	14,5	3,0	252	235	56,5	260
A02	Vitoria-Gasteiz	1.792	-0,08	12,6	5,3	243	242	50,6	256
B01 - B02	Bilbao	2583	-0,12	11,4	4,6	241	242	51,4	257
B03	Sestao	949	-0,21	5,2	1,5	237	236	56,0	257
B04	Barakaldo	764	-0,31	9,4	1,5	235	236	58,4	260
B05	Ortuella	616	-0,17	4,4	2,2	231	239	53,7	250
B06	Basauri-Galdakao	813	-0,16	5,4	15,8	238	247	47,3	245
B07	Getxo	834	0,33	9,4	15,6	249	249	45,7	258
B08	Leioa	1460	0,45	5,0	7,4	256	240	53,9	266
B09	Durango	933	0,00	7,8	31,1	249	256	36,6	250
B10	Gernika	669	-0,02	7,1	64,3	250	262	35,9	245
G01	Donostia-S. Seb.	1837	0,26	7,6	18,7	256	257	39,1	259
G02	Irún	1271	-0,15	5,6	25,8	238	248	47,2	248
G03	Eibar	1066	-0,01	5,5	48,1	250	261	33,4	247
G04	Ordizia	629	0,01	6,8	47,7	252	266	30,7	242
G05	Zarautz	738	-0,07	5,6	68,7	257	270	28,6	243
G06	Lasarte	1007	-0,15	6,4	51,4	242	258	38,1	241
	Euskadi	19095	0	8,0	20,7	246	249	45,8	253

Zonalde bakoitzari dagozkion udalerriak 2.2 eranskinean jasotzen dira

Ondorengo grafikoan ikus daiteke hizkuntza ofizialetako batean emaitzarik altuenak lortu dituzten zonaldeek ez dutela hain emaitza onik lortu bestean. Matematikaren kasuan, emaitzarik altuenak lortu dituzten zonaldeak aztertzen baditugu, Vitoria-Gasteizen (A01) eta Leioan gaztelaniako emaitzarik altuenak ere lortu direla ikus dezakegu, eta Zarautzen euskarako emaitzarik altuenak. Donostian hiru konpetentzietako emaitzak onak izan dira.

ED-2015. DBHko 2. maila. Hiru konpetentziatako emaitzak, Berritzegune-zonaldeen arabera



* Grafikoaren eskala 220 puntutan hasten da puntuazio-aldeak argiago ikusi ahal izateko.

2.2. IKASLEEN EBALUAZIO AKADEMIKOA


Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ziklo eta irakasmila guztietako emaitzak orokorki eta Berritzegune-zonaldeen arabera aurkezteaz gain, geruzen eta lurraldeen arabera ere aurkezten dira, Hezkuntza Sailaren Hezkuntza-ikuskaritzak eta Estatistika Zerbitzuak emandako agirietan oinarriturik.

2.2.1. Emaitza akademikoak eta ondorengo etapetara igarotzea

Ikastetxeek 2014-2015 ikasturtean egindako ebaluazio akademikoan, *derrigorrezko hezkuntza-etapetan*, ondorengo irakasmilara igaro ziren ikasleen ehunekoa % 96tik % 98ra bitartekoa izan zen Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan, eta % 91tik % 92ra bitartekoa DBHko lau irakasmiletan. Hain zuzen ere, DBHko 4. mailako ikasleen % 92k graduatu titulua lortu zuen.

Ondorengo irakasmilara arlo guztiak gaituta igaro ziren ikasleen kopurua txikiagoa izan zen, Lehen Hezkuntzako 4. mailan % 87 eta DBHko 2. mailan % 70. DBHko 4. mailan % 74 izan zen. Ehuneko horiek irakasmila guztietan igo dira 2012-13 ikasturtetik, bereziki DBHko 4. mailan, % 70etik oraingo % 74ra igo baita.

Eraitza akademikoak. Ondorengo irakasmalara igaro diren ikasleen ehunekoa eta arlo guztiak gairiditu dituztenen ehunekoa, Oinarrizko Hezkuntzako etapa, ziklo eta irakasmallean. 2014-15 ikasturtea.



2014-15 ikasturteko datuen arabera, sexuen arteko aldeak handiagoak izan dira DBHn. Hurrengo irakasmalara igaro diren ikasleen ehunekoa lau puntu handiagoa da nesken kasuan, eta arlo guztiak gairiditu dituztenen ehunekoa 10 puntu handiagoa Bigarren Hezkuntzako maila guztietan.


Eraitza akademikoak. Ondorengo irakasmalara igaro diren ikasleen ehunekoa eta arlo guztiak gairiditu dituztenen ehunekoa, Oinarrizko Hezkuntzako etapa, ziklo eta irakasmallean, sexuaren arabera. 2014-15 ikasturtea

	Hurrengo mailara igaro dira edo titulua eskuratu dute		Arlo guztiak gairiditu dituzte	
	mutilak %	neskak %	mutilak %	neskak %
LH 2	95	97	84	89
LH 4	97	97	79	85
LH 6	97	98	76	85
DBH 1	90	94	66	78
DBH 2	89	93	61	74
DBH 3	89	94	62	73
DBH 4	90	94	69	78

Iturria: Estatistika Zerbitzua


Arloetako kalifikazioei dagokienez, Lehen Hezkuntzan gairidituen ehunekorik txikiena Euskara arloan izan da, eta DBHn, Matematika arloan. Oso deigarria da ehunekorik txikienak beti DBHko 2. mailan gertatzea.

Emaitza akademikoak. Arlo guztiak gainditu dituzten ikasleen ehunekoa, Oinarrizko Hezkuntzako etapa, ziklo eta irakasmailetan. 2014-15 ikasturtea



Estatuko datuekin konparaturik, Estatuko Eskola Kontseiluak 2015eko txostenean emandako 2012-13 ikasturteko datuen arabera, Euskadik (% 91) estatuko batez bestekoa (% 84) zazpi puntuz gainditu du, eta autonomia erkidegoen artean lehen tokian dago. Graduatuen tasa gordinari dagokionez, hau da, Bigarren Hezkuntzako graduatuen kopurua 15 urteko biztanleriarekiko, Euskadi lehen tokian dago berriz ere, estatuko batez bestekotik hamar puntutara


Graduatu titulua lortu duten DBHko 4. mailako ikasleen ehunekoa eta graduatuen tasa gordina autonomia erkidegoetan. 2012-13 ikasturtea.



Iturria: Estatuko Eskola Kontseilua


Derrigorrezkoaren osteko Bigarren Hezkuntzari dagokionez, Batxilergoko 2. mailan matrikulatutako ikasleen % 86k titulua eskuratu du; Lanbide Heziketako erdi mailako zikloetan, matrikulatutako ikasleen % 77k, eta goi mailako zikloetan, % 78k. Nesken ehunekoa mutilena baino handiagoa izan da kasu guztietan (Ikuskaritzaren datu orokorrak, neskak, estatistika)

Eraitza akademikoak. Ondorengo irakasmailara igaro edo titulua eskuratu duten ikasleen ehunekoa Batxilergoan eta Lanbide Heziketako zikloetan, sexuaren arabera. 2014-15 ikasturtea.



2012-13 ikasturteko **Estatuko datuekin konparaturik**, Batxilergoko 2. mailan matrikulatutako ikasleen artean titulua eskuratu dutenen ehunekoari dagokionez, Euskadik (% 85) Estatuko batez bestekoa (% 77) zortzi puntuz gainditu du, eta lehen tokian dago autonomia erkidegoen artean.


Batzilergoko 2. mailan matrikulatutako ikasleen artean titulua lortu dutenen ehunekoa autonomia erkidegoetan. 2012-13 ikasturtea



Batzilergoko graduatuen tasari dagokionez, hau da, graduatuen kopurua 17 urteko biztanleriarekiko, Euskadik (% 69) Estatuko batez bestekoa (% 53) aise gainditu du, eta lehen tokian dago. **Lanbide Heziketako teknikarien tasa** 17 urteko biztanleria osoarekiko kalkulatzeko da, eta Euskadi bigarren tokian dago, batez bestekotik hiru

puntutara Kataluniarekin batera. **Lanbide Heziketako Goi Mailako teknikarien** kasuan, graduatuen tasa 19 urteko biztanleria osoarekiko kalkulatzen da, eta Euskadi lehen tokian dago berriz ere, Estatuko batez bestekotik 15 puntutara.

Graduatuen tasa derrigorrezkoaren osteko hezkuntzan autonomia erkidegoetan. 2012-13 ikasturtea



Unibertsitatera Sartzeko Proban (USP) 2014ko ohiko eta ez-ohiko deialdien artean 10.487 ikaslek gainditu zuten, % 98,1 ohiko deialdian eta % 87,2 ez-ohikoan.

Ohiko deialdian gaindituen ehunekoa Bizkaian (% 96,) apur bat txikiagoa izan zen Araban (% 98,7) eta Gipuzkoan (% 99,3) baino

Deialdia*	Aurkeztuak	Gainditu dutenak	% Gaind.
Ohikoa	9.395	9.217	% 98,1
Ez-ohikoa	1.456	1.270	% 87,2

Iturria: UPV/EHUko datuak (fase orokorreko emaitzak)

Hezkuntza-sareen artean eta sexuen artean ez dago ia alderik, baina probako hizkuntzari dagokionez, bi deialdietan proba euskaraz egin zutenen artean gaindituen ehunekoa handiagoa izan zen proba gaztelaniaz egin zutenen artean baino.

Probako hizkuntza	Ohiko deialdia		Ez-ohiko deialdia	
	Aurkeztuak	Gaindituak	Aurkeztuak	Gaindituak
Euskera	6.269	% 99,01	913	% 88,72
Gaztelania	3.126	% 96,29	543	% 84,71

2.2.2. Analisia geruzen eta lurraldeen arabera.


Lehen Hezkuntzaren eta DBHren bukaerako irakasmailetako emaitzak (LH6 eta DBH4) aztertu dira Hezkuntza Sailaren Estatistika Zerbitzuak emandako datuetan oinarriturik.

a) Lehen Hezkuntzako 6. maila

Lehen Hezkuntzan hurrengo irakasmailara igarotzen diren ikasleen ehunekoak ez dira asko aldatzen geruzen artean, baina bai arlo guztiak gainditzen dituzten ikasleen ehunekoaren kasuan. Hartara, beheko muturrean A eredu publikoaren geruza (% 47) eta B eredu publikoaren geruza (% 65) daude, eta goiko muturrean itunpeko D ereduaren geruzak (% 88) eta itunpeko A ereduaren geruzak (% 86) aise gainditu dute hurrengo geruza (2.3 eranskina).


Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen promozio-ehunekoak, geruzen arabera:

a) hurrengo irakasmailara igaro direnak; b) arlo guztiak gainditu dituztenak. 2012-13, 2013-14 eta 2014-15 ikasturteak



Lurraldeen arteko banaketan, igaro direnen ehunekoak antzekoak dira, puntu bat handiagoa Gipuzkoan. Gainera, arlo guztiak gainditu dituztenen kasuan, Gipuzkoa (% 82) Bizkaiaren (% 80) eta Arabaren (% 78) gainetik geratu da, ehunekoek azken horietan Gipuzkoan baino goiera handiagoa izan duten arren.


**Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleen promozio-ehunekoak lurraldeen arabera.
2012-13, 2013-14 eta 2014-15 ikasturteak**



b) DBHko 4. maila


Geruzetako emaitzak azterturik, A eta B eredu publikoen geruzak beheko muturrean daude bi adierazleen kasuetan, azken bi ikasturteetan graduatuen tasa hobetu badute ere. Gainerako lau geruzen artean, itunpeko D ereduak izan ditu tasarik altuena (% 79 arlo guztiak gaindituta), gero itunpeko B ereduak eta D eredu publikoak. Itunpeko A eredua apur bat beherago geratu da (% 71) (2.4 eranskina).

DBHko 4. mailako ikasleen promozio-ehunekoak, geruzen arabera: a) titulua lortzen dutenak; b) arlo guztiak gainditu dituztenak. 2012-13, 2013-14 eta 2014-15 ikasturteak



Lurraldeen arteko banaketan, ehunekorik apalenak Araban izan dira, eta altuenak, Gipuzkoan, azken ikasturtean Bizkaiarekiko aldeak murriztu diren arren (2.5 eranskina).


**DBHko 4. mailako ikasleen promozio-ehunekoa lurraldeen arabera.
2012-13, 2013-14 eta 2014-15 ikasturteak**



c) Batxilergoko 2. maila

Geruzen araberako banaketan, matrikulatutako ikasleen artean, titulua eskuratu dutenen ehunekorik apalena (% 67) A eredu publiko eta minoritarioan izan da. Gainerako hiru geruzetako ehunekoak batez bestekoaren parekoak (% 87) edo apur bat altuagoak izan dira; itunpeko D ereduaren geruzan izan da ehunekorik altuena (% 92).

**Batxilergo titulua eskuratu duten ikasleen ehunekoa, geruzen eta lurraldeen arabera.
2012-13, 2013-14 eta 2014-15 ikasturteak**



Lurraldeen araberako banaketan, Gipuzkoa lehen tokian dago.

2.3 IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA, IKASTETXEETAKO BERRIKUNTZA ETA BERE EBALUAZIOA

Irakasleen prestakuntza iraunkorra hezkuntza-sistemari balioa eransten dioten elementuetako bat da, hezkuntza-sistema eguneratzen laguntzen baitu, ikasleen garapen integrala errazteko gainditu behar dituen oztopoei aurre egin ahal izateko.

Kontseilu honek gai horren inguruko bere kezka adierazi du orain arte egindako txostenetan, gaia, une bakoitzean eskaini diren proposamenen arabera, sakontasun handiago edo txikiagoarekin planteiatu badu ere.

2014ko ekainean, txosten honek aztertzen duen aldian, Prestakuntza Plan berria aurkeztu zen, "Prest_Gara, ikasten duen hezkuntza-komunitatea" izeneko plana. Ondorioz, 2013-14 ikasturtean irakasleen prestakuntza iraunkorra oraindik Garatu planarekin gauzatu zen, eta 2014-15 ikasturtetik aurrera Prest_Gara planarekin gauzatzen ari da.

Oraingo atalaren hasierako partean proposamen berriaren zenbait alderdi laburbiltzen dira, eta ondoren, planaren lerro nagusiak eta prestakuntza modalitateak azaltzen dira.

Bigarren partean irakasleen prestakuntza iraunkorra modalitate ezberdinetatik aztertzen da, beste sail edo eta erakunde batzuekin elkarlanean egindako ekimenak barne.

Azkenik, zenbait esperientzia berritzaileraren ebaluazioa egiten da.

2.3.1. Prest_Gara

Planaren abiapuntua irakasleen prestakuntzaren arloan metatutako esperientziaren berrikusketa izan da, proposamenak ikastetxeetan sortutako eskakizun eta eskari berriei egokitzeko asmoz. Horretarako hezkuntza-agente batzuen ekarpenak eta proposamenak hartu dira kontuan.

Prest_Gara planaren ekarpenen artean honako hauek azpimarra daitezke:

- Irakasleen prestakuntzaren xedea irakasleek gaitasun profesional egokiak eskuratzea da, ezinbestekoak gero ikasleek oinarrizko hezkuntzaren bukaeran irteerako konpetentziak eskuraturik izan ditzaten.
- Planak kideen arteko prestakuntza, eta ikastetxeetako esperientzien eta jardunbide egokien trukea bultzatzen du, ikastetxe guztietan ezagutu ditzaten eta beste ikastetxe batzuen egoerara eraman eta moldatu ahal izateko.
- Ikastetxeko prestakuntza eta proiektuen bidezkoa lehenesten da, banakako prestakuntza mantentzen den arren.
- Eragina eta transferentzia errazteko, prestakuntzak, banakakoa edo proiektuen bidezkoa, ikasgelan gauzatu daitezkeen ekintza edo jarduera praktikoak izan behar ditu, eta, horrez gain, ikasleen konpetentzien hobekuntzara bideratu behar da.

Prest_Gara planak irakasleen prestakuntza-planaren koherentziaren hobekuntza proposatzen du, alde batetik hasierako prestakuntzaren eta prestakuntza iraunkorraren arteko koherentzia, eta bestetik prestakuntza-erakundeen eta agenteen artekoa.

Planak garapen teorikoen eta irakaslanaren arteko erlazioaren garrantzia azpimarratzen du, eta, baita ere, prestakuntzarako erabilitako baliabideen eta lortutako eraginaren arteko erlazioaren garrantzia.

Irakasleen gaitasunen profilaren kontzeptua sortu du eta, horrekin batera, hasierako prestakuntzaren eta prestakuntza iraunkorraren helburua irakaslanaren berariazko gaitasun horiek eta irakaslanari hertsiki lotutako beste gaitasun batzuk garatzea izan behar dela xedatu du.

Ikasleen aniztasunaren aurrean eskola inklusiboa erreferentziazat hartzen du, testuinguru formalek, ez-formalek eta informalek eskaintzen dituzten aukerak probetxatuz. Gainera, hezkuntza-komunitateko kide guztiei aukera ematen zaie trebatzaile bezala lan egiteko eta ikastetxeetan sortzen diren trebakuntza-ekimenetan parte hartzeko.

Prest_Gara bost lerro nagusitan antolaturik dago, Hezkuntza Sailak finkatutako lerro nagusietan hain zuzen ere:

1. lerroa: Eleaniztasunerantz
2. lerroa: Sare_Hezkuntza
3. lerroa: Aniztasunean elkarrekin bizitzen ikastea
4. lerroa: Ikasten ikasteko eta norbera izateko oinarrizko konpetentziak garatzea
5. lerroa: Bikaintasunerantz jardunbide egokietatik eta ekintzailetasunetik abiatutik.

Prestakuntza Plan honen lehenengo estrategia ikastetxeetako prestakuntza eta berrikuntza proiektuetan lerro nagusiak ezartzea da. Lerroak planei, programei edo proiektuei loturik egon daitezke, horietako batzuk 2.6 eranskinean laburturik azaltzen direlarik.

Lerro bakoitzerako 2014-2017 aldirako xedea, helburuak eta lorpen-adierazleak definitzen dira. Ondorengo taulan adierazleei buruzko zenbait datu eta ohar azaltzen dira, Kontseilu honetan egindako analisiaren ondorioz.

Lerro nagusiak eta adierazleak. 2014-2017 aldia

<i>Lerro nagusiak</i> 2014-2015	<i>Lorpen adierazleak</i> 2014-2017	<i>Datuak</i> 2014-2015*		
<i>Eleaniztasunerantz</i>	Ikastetxeko hezkuntza-komunitateak proiektua eskatu baldin badu, kasuen % 100ean, ikastetxean proiektu hirueledun edo eleaniztun bat gauzatzen ari da	254		
<i>Sare_Hezkuntza</i>	EAEko ikastetxeen % 60k heldutasun teknologikoaren erdi mailako ziurtagiria eskuratu du, eta haien arteko % 20k goi mailako ziurtagiria.	356 Oinarritzkoa % 20 Erdi mailakoa % 73,9 Goi mailakoa % 5,6		
<i>Aniztasunean elkarrekin bizi izaten ikasten</i>	EAEko ikastetxeen % 100 hezkuntza-proiektuak gauzatzen ari dira hezkuntza-komunitatearekin elkarlanean, ikasleen oinarritzko konpetentzien garapena bermatu ahal izateko	Datua ez da ezagutzen		
<i>Oinarritzko konpetentzien garapena: ikasten ikastea eta norbera izaten ikastea.</i>	EAEko Ikastetxeetako ikasleen % 100ek bere garapen integralerako behar den arreta jasotzen du ikastetxe bakoitzeko hobekuntza-planen jarraipenaren bidez.	Datua ez da ezagutzen		
<i>Bikaintasunerantz jardunbide egokien eta ekintzailetasunaren eskutik</i>	EAEko ikastetxeetako ikasleen % 90ek Ebaluazio Diagnostikoan ebaluatutako konpetentzietan hasierako maila gainditu du.	ED15	LH 4	DBH 2
		Euskera	64	54
		Gazt.	90	87
		Matem.	86	84
		Ing.	77	84
		Zientz.	76	80

*Oinarritzko Hezkuntza, Batxilergoa edota LHko ikastetxe guztiak (767) 2014-15eko Estadistikaren datuen arabera

Kontuan izan behar da adierazle horiek egiaztatze aldia 2017an bukatuko dela, baina gaur egun oraindik ez dago adierazle batzuen garapenari buruzko daturik, ezta horien lorpena egiaztatze aldiaren erabiliko den prozedurari buruzko daturik ere.

2.3.2. Irakasleen prestakuntzaren modalitateak

Ondoren deialdien laburpena egiten da eta ikastetxeek 2013-14 eta 2014-15 ikasturtean izandako inplikazioa aztertzen da.

Deialdietan izandako aldaketek ekarri dituzten nobedadeak aipatu behar dira. Lehen, Hezkuntza Prestakuntza-Berrikuntzarako aurreko deialdia Bikaintasunerantz jardunbide egokietatik eta ekintzailetasunetik abiatuz (hemendik aurrera Bikaintasunerantz) izeneko prestakuntza proiektuetan sartzen dela. Deialdi berriak hiru aukera eskaintzen ditu, Berrikuntza-proiektu integralak, Hezkuntza berriztatze proiektuak eta "Partekatuz ikasi" esperientziak, kideen arteko prestakuntza bultzatzen dutenak. Berrikuntza-proiektu integralen aukera bateraezina da gainerako bi aukerekiko.

Hiru aukeretan badira zenbait eskakizun eta betebeharrak, hala nola OOG edo Eskola Kontseiluaren inplikazioa proiektua onartzeko, ikastetxearen Urteko Planean sartzea eta Urteko Txostenean baloratzea, irakasleen gutxienezko konpromisoa, Jarraipen eta Ebaluazio Batzorde bat egotea, Berritzegunearen aholkularitza edo antolatzen diren ikastaroetan edo mintegietan parte hartzea. Bestalde, ikastetxeak baliabide ekonomikoak, berariazko kooordinaziorako eta prestakuntzarako denbora, eta jardueraren ziurtagiria jasotzen ditu.

Berrikuntza-proiektu integralek ikastetxearen IHP, Hobekuntza Plana eta lerro nagusiak izan behar dituzte erreferentziatutak. Konpetentzien garapenean oinarritutako ikaste-irakaste prozesuari eragin behar diote. Klaustro osoa inplikatu behar dute.

1. lerroari lotutako deialdietan HMH esperientzia eta ikastetxeetan ingelesezko prestakuntza antolatzeko deialdia bukatzea eskatzen da; horien ordean Proiektu Eleaniztunen diseinurako deialdi berria sartzen da. Kasu horretan nobedaderik garrantzitsuenak honako hauek dira: itunpeko hezkuntza-sarean HMH protokoloa deialdi publiko bihurtu da; eta irakasleentzako atzerriko hizkuntzazko prestakuntzaren finantzaketa ikastetxeko proiektu eleaniztun bati loturik egon behar da.

2. lerroari dagokionez, Sare_Hezkuntza Gelan deialdia sortu da, eta Heldutasun Teknologikoaren Ereduaren ziurtagiria mantendu da.

“Aniztasunean elkarrekin bizitzen ikastea” lerrorako deialdi batzuetan (PROA/Bidelaguna, Hauspoa, PREE, Curriculum Anitza, Eskolatze Osagarria, Kulturartekotasunaren Sustapena eta Hizkuntza Errefortzua) ez da prestakuntza zehatzik aipatzen, baina hausnarketa eta irakaslanaren hobekuntza errazteko behar den barne-koordinazioa proposatzen da. Nobedade bezala azpimarratu behar da Kulturartekotasunaren Sustapena eta Hizkuntza Errefortzua deialdietan dinamizatzaile izendatutako pertsonak, Sailak hala eskatzen dionean, bere esperientzia partekatzeko konpromisoa hartu behar duela.

3. lerro horretan Hezkidetzarako eta Genero Indarkeriaren Prebentziorako proiektuak ere sartzen dira. Laugarren eta bosgarren lerroei lotutako proposamenak “Bikaintasunerantz” deialdiaren bidez bideratzen dira, oinarritzko konpetentzien garapena eta jardunbide egokien trukean oinarritutako prestakuntza sustatzen dituelako.

Deialdietan parte hartu duten ikastetxeen kopurua. 2013-14 eta 2014-15 ikasturteak

Deialdiak	Sare publikoa	Itunpeko sarea
LHko eta DBHko HMH. 2013-14	61	56
Irakaskuntza eleaniztuna Bigarren Hezkuntzan. 2013-14	18	---
Zientzia-hezkuntza 2013-14	72	---
Prestakuntza-berrikuntza proiektuak 2013-14	345	157
Proiektu eleaniztunak. 2014-15	82	189
Sare_Hezkuntza Gelan. 2014-15	22	212*
Hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa. 2014-15	50	32
Integralak. 2014-2015	7	3
Berrikuntza-proiektuak zientzia-hezkuntzan. 2014-15	54	---
Bikaintasunerantz prestakuntza-proiektuak 2014-2015	222	109

* Deialdian ikastetxeentzako diru-laguntzak zuzenak izan daitezke edo ikastetxeetako prestakuntza-jarduerak kudeatzen dituzten elkarte edo federazioen bitartekoak.

Deialdietan aldaketak egon direnez, ikasturteen arteko konparazioak ezin dira ziurtasuna handiz egin. Adibide gisa, 2013-14 ikasturtean Prestakuntza-berrikuntza Proiektuetarako deialdian parte hartu zuten ikastetxe publikoei buruzko datuetan Hezkidetza eta Genero Indarkeriaren Prebentzioaren arloko proiektuetarako berrikuntza-jarduerak gauzatu zituzten ikastetxeei burukoak ere sartu direla ikus dezakegu, eta, baita ere, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan atzerriko hizkuntzako ikastaroak antolatu zituztenei buruzkoak.

2014-15 ikasturteko Bikaintasunerantz deialdian parte hartu duten ikastetxe publikoei buruzko datuetan irakasleentzako atzerriko hizkuntzako prestakuntza-proiektuak gauzatu dituzten ikastetxeei buruzkoak ere sartu dira.

Kristau Eskolak, Ikastolen Elkarteak eta IZEAK Sare_Hezkuntza Gelan proiektuaren diru-laguntza modu ezberdinetan kudeatu dute. Ikastolen Elkarteak unitate didaktikoen garapenerako ikastetxe guztiak inplikatu ditu. Kristau Eskolak 136 ikastetxe inplikatu ditu, eta IZEAK, 8 ikastetxe.

Erreferentziazat 2014-15 ikasturtea harturik, aipatutako deialdien bidez 982 proiektu sortu dira. 554 ikastetxe inplikatu dira, 338 publiko eta 216 itunpeko. Oinarritzko Hezkuntza irakasten duten ikastetxeak 767 inguru direla kontuan izanik⁵, deialdi horien bidez prestakuntza eta berrikuntza jardueretan ikastetxeen % 72 inplikatu direla ondorioztatu daiteke..

⁵ Iturria: Euskadiko unibertsitatez kanpoko hezkuntzari buruzko datuak; 2014-15 ikasturteko gutxi gorabeherako kalkulua, zenbatutako zenbait ikastetxek Batxilergoa eta Lanbide Heziketa ere irakasten baitute

Proiektuak garatu dituzten ikastetxeen kopurua, hezkuntza-sarearen eta etapen arabera.
2014-15 ikasturtea

<i>Sarea</i>	<i>Etapia</i>	<i>Proiektua duten ikastetxeak</i>	<i>Ikastetxe kopurua</i>	<i>Proiektua duten ikastetxeak (%)</i>
Ikastetxe publikoak	Haur H.- Lehen H.	223	317	% 70
	Haur H.-Lehen H.-DBH	3	10	% 30
	DBH-Batxilergoa- Lanbide H.*	112	167	% 67
	Lehen H.-DBH-Batxilergoa- Lanbide H.		1	
	Publikoak guztira	338	495	% 68
Itunpeko ikastetxeak	Haur H.- Lehen H.	12	13	% 92
	Haur H.-Lehen H.-DBH	93	94	% 99
	DBH-Batxilergoa- Lanbide H.*	15	66	% 23
	Lehen H.-DBH-Batxilergoa- Lanbide H.	96	99	% 97
	Itunpekoak guztira	216	272	% 79
	Ikastetxeak guztira	554	767	% 72

* DBHko ikastetxe independenteak ere sartzen dira

Kontuan hartu behar da ikastetxe batzuek deialdi batean baino gehiagotan parte hartu dutela, eta ikastetxeen banaketa hezkuntza-etapetan asko aldatzen dela hezkuntza-sare batetik bestera.

2.3.3. Prestakuntza-jarduerak Berritzeguneetan, Ingurugeletan eta Iralen

Berritzeguneetako, Ingurugeletako eta Iraleko teknikariek irakasleen prestakuntza iraunkorrean parte hartzen dute, batez ere zonalde mailan. Ingurugelen eta Iraleren kasuan lurralde mailan, eta Berritzegune Nagusiaren kasuan, lurraldearte mailan.

Arestian aipatu den bezala, Prest_Gara prestakuntza-planean irakasleez gain hezkuntza-komunitateko edozein kidek parte har dezake ikastetxeetan sortutako prestakuntza-jardueretan. Hori dela eta, parte hartzea zenbatu ez bada ere, jakina da familia batzuek parte hartu dutela ikastetxeetan garatutako proiektuetan.

Berritzeguneetako prestakuntza-jardueretan aholkularitza mota ezberdinak egiten dira: unean uneko aholkularitza ikastetxeetan, hezkuntza premia berezietako aholkularitza jarraitua, eta ikastetxe, ikastaro, mintegi eta jardunaldi ezberdinei buruzko aholkularitza.

Ondorengo taulan 2014-15 ikasturtean gauzatutako jardueren buruzko datuak azaltzen dira, Hezkuntza Sailak lurraldeen eta zerbitzuen arabera sailkatuz –Berritzegune (BG), Berritzegune Nagusia (BN), Ingurugela (IG)–. Berritzeguneei dagozkien jardueretan hiru lurraldeetarako Jardunaldi Irekien antolamendua sartu da. Jardunaldiak Gipuzkoan izan ziren.

Iraleren kasuan datuak ikastaro mota, maila, ordu kopuru eta ikasle kopuruaren arabera sailkatu dira.

Jarduerak lurraldeen eta zerbitzuen arabera (Berritzegune eta Ingurugela)

Lurraldea	Zerbitzua	Prestakuntza-jarduera	Ordu kopurua	Partaide kopurua	Zuirtagiri kopurua
Araba	BG	107	1.694	2.385	2.165
	IG	5	24		
Bizkaia	BG	353	5.057	7.462	6.915
	IG	5	8		
Gipuzkoa	BG	229	2.774	6.416	5.956
	IG	20	43		
Euskadi	BN	63	1.120	2.962	2.875
Guztira		782	10.720	19.225	17.911

Iraleren ikastaroak, orduak eta ikasleak kurtso motaren arabera

2014-2014 Ikasturtea	Lanorduen barruan			Lanorduetatik kanpo			Guztira		
	Ikastaroak	Orduak	Ikasleak	Ikastaroak	Orduak	Ikasleak	Ikastaroak	Orduak	Ikasleak
Behe maila	6	3.550	97	6	2.340	458	11	4.705	780
Goi maila	5	1.155	683	19	475	2.342	25	2.815	2.800
Total	11	4.705	780	25	2.815	2.800	36	7.520	3.580

2.3.4. Garatu eta Prest_Gara ikastaroak

Bai Garatu bai Prest_Gara prestakuntza-plan berriaren bidez, helburu irakasleen eguneratze zientifiko-didaktikoa duten ikastaroetan parte hartzeko aukera eskaintzen da, ikaste-irakaste prozesua hobetzeko eta, ondorioz, ikasleen konpetentziak garatzeko.

Ondorengo taulan 2013-14 eta 2014-15 ikasturteetan eskainitako eta egindako ikastaroei buruzko datuak azaltzen dira.

Garatu eta Prest_Gara planetan eskainitako eta egindako ikastaroak. 2013-14 eta 2014-15 ikasturteak

	Garatu 2013-2014			Prest_Gara 2014-2015		
	Eskainitakoak	Egindakoak	Egindakoak %	Eskainitakoak	Egindakoak	Egindakoak %
Presentzialak	242	201	% 83	205	153	% 75
On-line	56	55	% 98	68	62	% 91
Guztira	298	256	% 86	273	215	% 79

Beraz, 2014-15 ikasturtean bai eskainitako bai egindako ikastaro presentzialen kopurua apur bat jaitsi da. On-line ikastaroen kasuan, eskainitako ikastaroen kopurua igo da, eta egindako ikastaroen kopurua, berriz, jaitsi, oso maila altuan geratu bada ere.

**Garatu planean eskainitako eta egindako ikastaroak eta plazak, hezkuntza-etapen arabera.
2013-14 ikasturtea**

<i>Hezkuntza-etapa</i>	<i>Ikastaroak</i>			<i>Plazak</i>		
	<i>Eskain.</i>	<i>Egind.</i>	<i>Egind. %</i>	<i>Eskain.</i>	<i>Egind.</i>	<i>Betetakoak %</i>
Haur Hezkuntza	15	11	% 73	385	211	% 55
Lehen Hezkuntza	28	24	% 86	703	531	% 76
Lehen Hezkuntza eta DBHko 1. zikloa	7	4	% 57	115	51	% 44
DBH eta Batxilergoa	51	43	% 84	960	542	% 56
HHI	2	2	% 100	35	38	% 109
Orokorrak	181	161	% 89	4.057	3.023	% 75
Hizkuntza Eskola Ofizialak	9	9	% 100	144	213	% 148
Musika eta arte irakaskuntzak	5	2	% 40	75	28	% 37
Guztira	298	256	% 86	6.474	4.647	% 72

Prest_Gara planean eskainitako eta egindako ikastaroak eta plazak, hezkuntza-etapen arabera.2013-14 ikasturtea

<i>Hezkuntza-etapa</i>	<i>Ikastaroak</i>			<i>Plazak</i>		
	<i>Eskain.</i>	<i>Egind.</i>	<i>Egind. %</i>	<i>Eskain.</i>	<i>Egind.</i>	<i>Betetakoak %</i>
Haur Hezkuntza	12	11	% 92	263	180	% 68
Lehen Hezkuntza	21	16	% 76	485	322	% 66
Lehen Hezkuntza eta DBHko 1. zikloa	10	6	% 60	195	59	% 30
DBH eta Batxilergoa	45	27	% 60	819	323	% 39
HHI	5	4	% 80	115	33	% 29
Orokorrak	165	139	% 84	3.521	2.421	% 69
Hizkuntza Eskola Ofizialak	12	12	% 100	483	378	% 78
Musika eta arte irakaskuntzak	3	0	% 0	50	0	% 0
Guztira	273	215	% 79	5.931	3.716	% 63

Ikastaro orokorrak % 60 inguru dira bi deialdietan, eta ehuneko handi batean gauzatu dira. hezkuntza-etapa baterako edo bitarako antolatutakoen artean, Haur eta Lehen hezkuntzakoek Bigarren Hezkuntzakoek baino harrera hobea izan dute.

Ikastaroetako irakas-hizkuntzari dagokionez, hizkuntzarik erabiliena euskara izan da, eta ehunekoetan erabilera 12 puntu igo da. Ingeleseiz emandako ikastaroak % 24 izan dira.

Garatu eta Prest_Gara planetako ikastaroak emateko erabilitako hizkuntza.
2013-14 eta 2014-15 ikasturteak

<i>Hizkuntza</i>	<i>Garatu 2013-14</i>				<i>Prest_Gara. Curso 2014-15</i>			
	<i>Presentzialak</i>	<i>On-line</i>	<i>Guztira</i>	<i>%</i>	<i>Presentzialak</i>	<i>On-line</i>	<i>Guztira</i>	<i>%</i>
Euskara	96	31	127	% 43	74	48	122	% 45
Gaztelania	62	16	78	% 26	44	14	58	% 21
Euskera / Gaztelania	25	7	32	% 11	19	3	22	% 8
Ingelesa	55	2	57	% 19	63	3	66	% 24
Frantsesa	2	0	2	% 1	3		3	% 1
Alemana	2	0	2	% 1	2		2	% 1
Guztira	242	56	298	% 100	205	68	273	% 100

Lerro nagusietan eskainitako eta egindako ikastaroen kopuruari dagokionez, 1. eta 5. lerroak izan dira eskatuenak, ehunekorik altuena “Eleaniztasunerantz” lerro nagusiak izan duelarik.

Garatu eta Prest_Gara planetako jarduerak lerro estrategikoen arabera.
2013-14 eta 2014-15 ikasturteak

		<i>Garatu 2013-14</i>	<i>Prest_Gara 2014-15</i>	<i>Garatu 2013-14</i>	<i>Prest_Gara 2014-15</i>
		<i>Eskainitakoak</i>		<i>Egindakoak</i>	
L1	Eleaniztasunerantz	20%	% 24	22%	% 29
L2	Sare_Hezkuntza	16%	% 14	17%	% 15
L3	Elkarrekin bizitzen ikasten	22%	% 15	21%	% 12
L4	Oinarrizko konpetentziak	23%	% 19	21%	% 19
L5	Bikaintasunerantz	19%	% 28	19%	% 25
	Guztira	100%	% 100	100%	% 100

Eskariak eskainitako plazen % 40ra heltzen ez badira, ikastaroa ezeztatu egiten da. 2013-14 ikasturtean 42 ikastaro (% 14) ezeztatu ziren, eta 2014-15 ikasturtean, 57 ikastaro (% 21). Ikastaro horien banaketa lerro nagusietan ondorengo taulan azaltzen da.

**Garatu eta Prest_Gara planetan ezeztatutako ikastaroen kopurua lerro estrategikoetan.
2013-14 eta 2014-15 ikasturteak**

<i>Lerro estrategikoa</i>	<i>Garatu 2013-2014</i>	<i>Prest_Gara 2014-2015</i>
Eleaniztasunerantz	4	2
Sare_Hezkuntza	3	3
Elkarrekin bizitzen ikasten	15	14
Oinarrizko konpetentziak	13	14
Bikaintasunerantz	7	24
Guztira	42	57

2.3.5. Beste sail eta erakunde batzuekin elkarlanean sortutako ekimenak

Prestakuntzaren arloan Hezkuntza Sailak beste erakunde eta agente batzuekin lan egin du lerro nagusien inguruko zenbait proiektu garatzeko. Jarraian bi proiekturi buruzko informazioa eskaintzen da, biak proiektu berritzaileak baitira: Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana eta Gizalegez Akordioa.

- **Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana**

2013-14 ikasturtean aurkeztu zen, printzipioz hiru urteko iraupenarekin. Helburu nagusia eskola mistoaren eredutik hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredurantz aurrera egitea da, sexismotik eratorritako edozein genero-indarkeria prebenitzeko. Horretarako zenbait erakunderen laguntza du, eta ikastetxeetan metatutako jardunbide egokien bilduma laguntza handikoa izango da.

Hiru xede nagusi ditu, estrategien, ekintzen, denboren eta arduradunen bidez definitutakoak. Planaren jarraipena egiteko bi batzorde eratu dira: Batzorde Teknikoa eta Jarraipen Batzordea. Bietan hartzen du parte Kontseilu honen ordezkari batek, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren eta Emakunderen ordezkariekin batera.

Adibide gisa, ondoren abian jarritako zenbait ekintza aipatzen dira, helburuetako bakoitzarekin duten loturarekin batera.

1. Helburua: Hezkuntza-sistema hezkidetzan oinarritutako eskolaren eredua modu koordinatuan bultzatzeko behar diren egiturez eta pertsonen hornitzea.

- Zonaldeko Berritzeguneetan arduradun bat izendatu da hezkidetzako mintegia dinamizatzeko. 18 mintegi antolatu dira eta 292 irakaslek hartu dute parte.
- Hezkuntza Sailburuordearen ikasturte hasierako ebazpenetan bi figura berri izendatzeko jarraibideak finkatu dira: Hezkidetzak-arduraduna eta Berdintasun-ordezkaria OOGn. Horrekin batera, berdintasunaren arloko koordinaziorako egitura bat sortzeko jarraibideak finkatu dira.

- ISEI-IVEIk ikerlan bat egin du eskola mistotik hezkidetzan oinarritutako eskolara igarotzeaz, 2015eko Ebaluazio Diagnostikotik jasotako datuetan oinarriturik, bai ikasleei buruzkoak baita zuzendaritza taldeei buruzkoak ere.

2. helburua: Eskola mistotik hezkidetzan oinarritutako eskolara igarotzeko prozesuak sustatzea.

- Deialdi bat egin da hezkidetzaproiektuak eta genero-indarkeria prebenitzeko proiektuak diseinatzeko.
- Hezkuntzako agente ez-irakasleek hezkidetzaproiektuetan parte har dezaten zenbait estrategia garatu dira.

3. helburua: Genero-indarkeria, eta sexismotik eratorritako edozein motatako indarkeria, prebenitzeko, goiz atzemateko eta erantzun egokia emateko mekanismoak abian jartzea.

- Berritzeguneen bitartez materialak, aholkularitza eta prestakuntza eskaini dira.
- Ikastetxeei sexu-aniztasuna generoaren ikuspuntutik tratatzen duten programak eta materialak banatu zaizkie. Berdinduk eta Arartekoak sortutako materialak dira, aldez aurretik esperimentatuak eta ebaluatuak.

Azkenik, arlo horri dagokionez, azpimarratu behar da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarekin, eta bereziki Berdindu Eskolak taldearekin, egindako elkarlana, 13 eta 16 urte bitarteko ikasleen lagin baterako (1.304 Bizkaian, 1.625 Gipuzkoan) pentsatutako ekimena (**“Aniztasun afektibo-sexualarekiko jarrerak”**)⁶ garatzeko.

• **Gizalegez Akordioa:**

2013-14 ikasturtean Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritza elkarlanean hasi ziren giza-eskubideetako eta bakeko hezkuntza, biktimekiko elkartasuna, bizikidetzak eta gatazken bakezko irtenbidea bultzatzeko, ikastetxeei zuzenki eragiten dieten ekimen batzuen bitartez.

Konkretuki, Gizalegez Akordioaren esparru orokorretik abiatutik, hiru ekimen proposatu dira hezkuntzaren arloan:

- Elkarrekin Bonoak programaren deialdia. Bakearen eta bizikidetzaren arloetako irabazteko asmorik gabeko erakundeei diru kopuru bat eskaintzen zaie prestakuntza eta aholkularitzaren truke ikastetxeetan proiektuak garatzeko.
- Adi-adian modulua, biktime hezitzaileen programa eguneratzen duena.
- Eskola Bakegune plataforma, hezkuntza-baliabideekin.

Elkarrekin Bonoak programaren kasuan, deialdiak urte naturalekin batera egiten dira, eta 2014ko ekainean eta 2015eko martxoan argitaratu ziren. Lehenengoan 71 ikastetxek parte hartu zuten, eta bigarrean, 124 ikastetxek, haietako askok eskabidea berriro

⁶ ISEI-IVEI <http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/web/guest/indicadores>

egin zutelarik. Proiektuetan landutako gaiak, besteak beste, honako hauek izan ziren: giza-eskubideen trataera, gatazken bakezko irtenbidea, adimen emozionala, gatazka-jokabideak eta diziplina, gizarte-ohituretan trebatzea, bullying-a, tailerrak familiekin...

Adi-adian moduluaren bidez, biktimen lekukotasuna eskaintzen da, bakea gorrotoa eta indarkeriaren aurretik jartzen duen helburu hezitzaile argi batekin. Berritzegune Nagusiko teknikari batek modulua abian jartzea koordinatzen du hala eskatzen duten ikastetxeetan. Konkreterik, 2013-14 ikasturtean 21 ikastetxek eta 2.256 ikaslek parte hartu zuten; 2014-15 ikasturtean, 24 ikastetxek eta 1.750 ikaslek.

2.4 PROGRAMEN ETA ESPERIENTZIEN EBALUAZIOA

2.4.1. Ikastetxe publikoetako zuzendarien ebaluazioa

Adierazleen euskal sisteman bada zuzendarien profil pertsonala eta profesionalaren inguruko adierazle bat, P1.1 deitzen dena. 2013an profil horren ezaugarriak kasuen % 61,5ean, honako hauek izan ziren: emakumezkoa, 51 eta 60 urte bitartekoa, goi mailako titulua duena, irakaskuntzan 20 urte baino gehiagoko esperientzia duena, eta karguan 5 urte baino gutxiagoko esperientzia duena.⁷

2010ean izendatutako zuzendarien ebaluazioa 2013-14 ikasturtean bukatu zen. Prozedura finkatzen duten arauetan aipatzen den bezala, ebaluazioa positiboa denean, zuzendaria gaituta geratzen da karguan lau urteko beste agintaldi batean jarraitzeko.

Ondorioz, 2013-2015 aldian Euskadiko ikastetxe publikoetako zuzendaritzak ondorengo egoera hauetako batean daude:

- a. 2009ko ekainaren 30ean kargua hutsik zuten ikastetxeetarako deialdiaren bidez 2010-14 aldirako izendatutako zuzendariak(4)⁸.
- b. 2009-13 aldia bukatutakoan, ebaluazio positiboa izan ondoren, karguan beste lau urtetan (2013-17) jarraitzea erabaki zuten zuzendariak.
- c. 2013ko ekainaren 30ean kargua hutsik zuten ikastetxeetarako deialdiaren bidez 2013-17 aldirako izendatutako zuzendariak⁹.
- d. 2010-14 aldia bukatutakoan, ebaluazio positiboa izan ondoren, karguan beste lau urtetan (2014-18) jarraitzea erabaki zuten zuzendariak.
- e. 2014ko ekainaren 30ean hutsik zeuden postuetarako deialdiaren bidez, 2014-18 aldirako izendatutako zuzendariak¹⁰

⁷ ISEI-IVEI <http://www.isei-ivei.net/web/guest/indicadores>

⁸ AGINDUA, 2009ko otsailaren 5koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan, 2009ko ekainaren 30ean zuzendari postua hutsik geratuko den horietan, zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketa iragartzen duena.

⁹ AGINDUA, 2012ko azaroaren 26koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketarako deialdia egiten duena. Zuzendari horiek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan jardungo dute, 2013ko ekainaren 30ean hutsik geratzen diren zuzendari-postuetan.

¹⁰ AGINDUA, 2013ko azaroaren 18koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mende dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan, 2014ko ekainaren 30ean zuzendari postua hutsik geratuko den horietan, zuzendariak hautatzeko merezimendu-lehiaketarako dei egiten duena.

Ikastetxe publikoetako zuzendarien egoera 2013-15 aldian

Ikasturtea	Ebaluazio positiboa	Beste 4 ikasturtetan karguan	Deialdian proiektuarekin sartutakoak	Ikuskaritzak izendatutakoak
2012-2013	138	81	----	413
2013-2014	86	50 81 (2013-17)	119 (2013-17)	302
2014-2015	----	81 (2013-17) 119 (2013-17) 50 (2014-18)	90 (2014-18)	212
Egoera 2014-2015		340 (% 61,6)		212 (% 38,4)

Jarraian bost egoera horiek gaia arautzen duen Dekretuaren 14., 18. eta 19. artikuluen arabera¹¹ aztertzen dira, hau da, hasierako prestakuntza-programa (14. art.), zuzendariaren lanaren ebaluazioa (18. art.) eta beste agintaldi baterako izendapena (19. art.).

- Hasierako prestakuntza-programa

Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren ebazpen baten bidez finkatu zen. Programa gainditzea ezinbesteko baldintza da zuzendari bezala 2 urte baino gutxiagoko esperientzia duten pertsonentzat. Hala ere, zuzendari bezala bi urte baino gehiagoko esperientzia duten pertsonak ere, interesaturik egonez gero, parte har dezakete prestakuntza-programan. 2014ko apirileko azken deialdia 2014-18 aldirako izendatutako zuzendarientzat izan zen.

2013-14 eta 2014-15 ikasturteei dagokienez, zuzendarientzako hasierako prestakuntza-programari buruzko datuak ondorengo taulan azaltzen dira

Hasierako prestakuntza-programak etapan eta lurraldeen arabera. 2013-2014 eta 2014-15 ikasturteak

	Haur eta Lehen H.		DBH		Bestelakoak		Guztira	
	2013	2014	2013	2014	2013	2014	2013	2014
Araba	2	8	1	-	2	-	5	8
Bizkaia	25	22	5	10	2	2	32	34
Gipuzkoa	19	24	5	3	0	1	24	28
Guztira	46	54	11	13	4	3	61	70

2013-17 aldirako izendatutako 119 zuzendarien % 51k hasierako prestakuntza-programan parte hartu zuen. Bestalde, 2014-2018 aldirako karguan dauden 90 zuzendarietatik 70ek (% 78) parte hartu zuten prestakuntza-programan.

¹¹ 22/2009 DEKRETUA, otsailaren 3koa. Honen bitartez, prozedura arautzen da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako zuzendaria aukeratzeko, eta pertsona bakarrek beste gobernu-organismoak izendatzeko eta kargua uzteko

Prestakuntzak, besteak beste, honako eduki hauek ditu, eta 40 orduko iraupena izan du:

- Helburuen definizioa eta esku-hartze estrategikoak
- Ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionamendua
- Lidergo pedagogikoa
- Barneko eta kanpoko agenteen parte hartzea eta laguntza.
- Ebaluazioa bultzatzea eta aldaketa kudeatzea.

Programaren balorazioa antzerakoa izan da bi ikasturteetan, eta alderdi hauek nabarmendu dira: sortutako dinamika, antolamendua, giroa, esperientziak trukatzeko aukera, elkar ezagutzea, gaien praktikotasuna, eskaintako baliabideak, gogoberotasuna eta baikortasuna transmititzea...

Hobetu beharreko alderdiak hauek izan dira: programaren iraupena –luzeagoa izan beharko luke–, dentsitatea –gai berri ugari–, garaia –hobe da izendapena baino lehen–, ikasketa buruaren presentzia...

- Proposamenak honela laburbildu dira:
- Programaren iraupena luzatzea
- Programaren jarraipena egitea
- Gai batzuk sakontzea eta praktikan jarraipena egitea
- Partaideen arteko harremana berariazko gai baten bidez mantentzea
- Ikastetxeetako ezagupenak partekatzea
- Programa izendapena baino lehen egitea
- Araban ere egitea

- Karguan egindako lanaren ebaluazioa

Lau ikasturtetako agintaldia bukatzen duten zuzendariak 2013an eta 2014an izan dira ebaluatuak. Bi prozesuen artean ezberdintasun batzuk izan dira. Ikuskaritzak, ebaluazioaren arduradunak, 2013ko ebaluazioa egin ondoren, txosten bat argitaratu zuen, ebaluazioaren emaitzez gain, prozesuaren ebaluazioa (meta-ebaluazioa) eta zenbait ondorio eta proposamen jasotzen zuena. Lehen proposamena diseinuan hasierako ebaluazio-prozesua sartzeko izan zen, eta abian jarri zen 2010-14 aldirako izendatutako zuzendariekin.

Laburbilduz, 2009-13 aldian 179 zuzendari izendatu ziren, eta haietako 139k agintaldia bukatu zuten, 138k balorazio positiboarekin. 2010-14 aldian 86 zuzendari izendatu ziren, eta guztiek lortu zuten balorazio positiboa.

-Beste agintaldi baterako izendapena

Lurralde Ordezkarari eskatu behar zaio, zuzendaritza-proiektu gaurkotuarekin batera. Proiektuak aurreko agintaldian lortutako helburuen balorazioa eta hurrengo agintaldirako hobekuntzarako proposamenak zehaztu behar ditu.

Zuzendariak karguan jarraitu nahi ez badu edo balorazio positiborik izan ez badu, etorkizunean kargua berriro hartu nahi balu, prozesu osoa berriro egin beharko luke eta deialdi berri batera aurkeztu.

Gauza bera gertatzen zaie bi agintaldi bete ondoren karguan jarraitu nahi duten zuzendariari.

Bigarren agintaldian lehen agintaldiaren bukaeran aurkeztutako zuzendaritza-proiektuen jarraipena egiten da hobekuntzarako proposamenetan oinarriturik. Ebaluazioa ez dago ofizialki araututa, baina Hezkuntza Ikuskaritzaren Urteko Planetan sartuta dago. Plan horietan ebaluazio orokorra eta zuzendarien ebaluazioa lehentasunezko gaiak dira ikastetxeetan egiten diren esku-hartzeen artean.

Dekretuaren 19. artikulua karguak bete gabe geratzen direneko kasuak ere arautzen ditu. 2013-15aldian postu huts horiek betetzeko bi deialdi egin ziren. Aldiaren bukaeran 340 ikastetxe publikotako zuzendariak izendatuta zeuden eta zuzendaritza-proiektua garatzen ari ziren. Hala ere, 212 ikastetxetako zuzendariak behin-behinekoak ziren.

Dekretuan zuzendaritza-lanaren eta ikasketa buruek eta idazkarien gauzatutako jardueren ebaluazioa arautzen da, izendapenaren agintaldia bukatu badute. 2013an argitaratutako agindu batek ebaluaziorako bi irizpide orokor finkatu zituen:

- Figura horien parte hartzea, inplikazioa eta zuzendariarekin egindako elkarlana zuzendaritzaren ebaluazioan finkatutako dimentsioetan eta irizpideetan.
- Euskal Eskola Publikoaren legean figura horiei esleitutako berariazko zereginen garapena.

Ebaluazioaren ardura ere Hezkuntza Ikuskaritzarena da. Autoebaluazio fase batean kargu horiek euren burua aipatutako dimentsioei eta irizpideei dagokienez nola ikusten duten aztertzen dute. Bigarren fasean, zuzendaritzarekin balorazioa egiten da, eta hirugarrenean, ikastetxeko gobernu-organoen iritzia kontuan hartzen da. Bukaeran, ikasketa buruei eta idazkariei txosten bat ematen zaie, euren lanerako orientabideak eta hobekuntzarako proposamenak zehazten dituenak. Balorazio positiboak eragina izaten du meritu-lehiaketetan eta hezkuntza sailak egiten dituen deialdietan.

Beste alde batetik, lau urteko bi agintaldiak bukatutakoan, hezkuntza Ikuskaritzak galdera-sorta bat pasa zuen inplikaturako ikastetxeetan ebaluatutako pertsonen asebetetze-maila ezagutzeko eta prozesuaren berrikusketarako behar den informazio zehatza lortzeko.¹²

¹² Hezkuntza Ikuskaritzaren Plan orokorra. AZ 0202 20 Zuzendaritza-funtzioaren ebaluazioa. Metaebaluazioa. 2013-2014 ikasturtea

Galdera-sortak 20 item zituen, eta 2013an 139 zuzendariri bidali zitzaien. 69 zuzendarik erantzun zuten (% 50). 2014an 56 zuzendariri bidali zitzaion, eta 42k erantzun zuten (% 75).

Azken galdera (20. itema) prozesuaren balorazio orokorrari buruzkoa zen.

2014an galdera horren batez besteko balorazioa 8,29 izan zen, eta gainerako 19 galderen batez besteko balorazioa, 8,27.

Zuzendariak emandako puntuazioen batez bestekoa, hezkuntza-etapen arabera

	2013		2014	
	20. itema	Gainerako itemak	20. itema	Gainerako itemak
Haur eta Lehen H.	7,9	8,1	8,2	8,1
DBH	6,4	6,8	8,7	8,5
HLK	6,5	7	8	8,4
DBH eta Batx.	7,9	7,7	8,7	8,4
Lanbide H.	6,8	6,8	8	8,1
HHI	7,1	7,2	9	8,9
Kontserb. eta HEO	7,6	7,6	---	----
	7,1	7,3	8,4	8,4

Hala eta guztiz ere, honako ondorio hauek atera ziren:

- Lortutako emaitza onak alde batera utzirik, baloraziorik onena ebaluatzaileen lanari buruzko itemek lortu zuten, eta baloraziorik baxuena, erabilitako materialei buruzkoek.
- Deigarria da bi ikasturteetan baloraziorik onena eta baxuena item berberak izatea.
- Itemen balorazioak bilakaera positiboa izan du, eta emaitzen barreiadura oso txikia izan da.
- 2013an prozesuaren baloraziorik onena Haur eta Lehen hezkuntzako ikastetxeetan izan zen; 2014an, DBH, DBH eta Batxilergo, eta HHIko ikastetxeetan izan zen.

Hobetu zitezkeen arloen artean honako hauek nabarmendu ziren:

- Zuzendaritza taldeko gainerako kideen ebaluazio-prozesua
- Erabilitako materialen berrikusketa
- OOGetan lortutako informazioaren trataera

Azkenik, 2014-15 ikasturtean Ikuskaritzak zenbait datu jaso zuen bigarren agintaldiko bigarren ikasturtean zeuden zuzendariengandik. Hiru alderdi azpimarratu ziren.

Lehenengo eta behin, salbuespen batzuk gorabehera, zuzendari guztiek adierazi zuten euren lehen agintaldiko ebaluazioan aipatutako hobekuntzarako proposamenak aintzat hartzen ari zirela.

Bigarrenez, hobekuntzarako proposamenak lehen bi dimentsioei zegozkien, hau da, helburuen definizioa eta esku-hartze estrategikoak; eta ikastetxearen zuzendaritza, antolamendua eta funtzionamendua.

Bukatzeko, zuzendarien % 60k baino gehiagok adierazi zuen aipatutako hobekuntzarako proposamenei proposamen berri batzuk erantsi zekizkiekeela. Kasu hartan proposamen berriak gehienetan aipatutako bi dimentsioei eta "Ebaluazioa bultzatzea eta aldaketa kudeatzea" 5. dimentsioari zegozkien.

2.4.2. Hezkuntza Marko Hirueledunaren ebaluazioa

ISEI-IVEIk 2015ean argitaratutako txostenak 2012 eta 2013ko maiatzean¹³ egindako aurrerapenen neurketa jaso zuen.

2014ko maiatzean azken ebaluazioa egiten da eta "Azkeneko txostena eta ondorioak" izeneko dokumentuan argitaratzen da.¹⁴

Hurrengoan momentu bi horietan informazioa ematen da.

La información publicada en septiembre de 2015 por el ISEI-IVEI, incluye las mediciones de progreso de los grupos MET II realizadas en mayo de 2012 y 2013.

En mayo de 2014 se realiza la última evaluación que se publica en el Informe final y conclusiones.

A continuación, se aporta información referida a ambos momentos.

1.- HMM II taldeko emaitzen bilakaera

2012-13 txostenean Hezkuntza Marko Hirueledunaren lehen fasea (HMM I) aztertu zen, eta ondorioetan aipatu zen komenigarria izango zela bigarren faseko emaitzak ezagutu arte itxarotea, bigarren fasean ikastetxe gehiagok eta era askotakoek parte hartuko baitzuten, lehen faseko ikastetxeak euren emaitza onengatik eta euren aurrerapen-erritmo biziagatik nabarmentzen zirelako.

Bigarren fasea 63 ikastetxe publikotan (Lehen Hezkuntzako 30 eta DBHko 19) eta itunpeko 49 ikastetxetan (Lehen Hezkuntzako 30 eta DBHko 19) gauzatu zen. Ebaluazioa lehen fasearen ebaluazioan erabili ziren proba, prozedura eta emaitzen analisi berdinak erabili ziren

Ondorengo tauletan 2012an eta 2013an ebaluatutako konpetentziak, linguistikoak eta ez-linguistikoak, eta ikasle kopurua azaltzen dira.

¹³ <http://www.isei-ivei.hezkuntza.net/web/guest/met> . Txosten exekutiboa HMM I 2011-2013 HMM II 2012-2013

¹⁴ http://www.isei_ivei.hezkuntza.net/web/guest/met . Azkeneko txostena eta ondorioak

HMH II. 2012ko maiatzean ebaluatutako ikasle kopurua, konpetentzien eta hezkuntza-etapen arabera

	<i>Gaztelania</i>	<i>Euskera</i>	<i>Ingelesa</i>	<i>Matematika</i>	<i>Zientzia</i>
<i>LH 4</i>	1.990	1.774	2.019	1.957	1.847
<i>DBH 1</i>	1.184	1.107	1.167	1.191	1.068

HMH II. 2013ko maiatzean ebaluatutako ikasle kopurua, konpetentzien eta hezkuntza-etapen arabera

	<i>Gaztelania</i>	<i>Euskera</i>	<i>Matematika</i>	<i>Zientzia</i>
<i>LH 5</i>	1.919	1.902	1.904	1.919
<i>DBH 2</i>	1.036	1.035	1.043	1.035

Bigarren neurketa horretan ez zen ebaluatu ingelesezko konpetentzia, esperientziaren hirugarren ikasturtearen bukaerarako programaturik baitzegoen.

Aipatutako ISEI-IVEIren txostenean konpetentzietako emaitzen bilakaera aztertu zen (euskarazko eta gaztelaniazko irakurmeneko konpetentzia, matematikarako eta zientziarako konpetentziak), esperientzia bi urtez garatu ondoren. Hau da, Lehen Hezkuntzako 4. mailan hasi eta orduan 5. mailan zeuden ikastaldek eta DBHko 1. mailan hasi eta orduan 2. mailan zeudenak.

**HMHaren bigarren fasean parte hartu zuten Lehen Hezkuntzako ikasleen emaitzak.
2012 eta 2013ko maiatza.**

<i>Konpetentzia</i>	<i>HMH II (2012ko maiatza)</i>	<i>HMH II (2013ko maiatza)</i>	Δ 2013-2012
Irakurmena euskaraz	209	225	16
Irakurmena gaztelaniaz	222	251	29
Matematikarako konp.	240	286	46
Zientziarako konp.	216	256	40

**HMHaren bigarren fasean parte hartu zuten DBHko ikasleen emaitzak.
2012 eta 2013ko maiatza.**

<i>Konpetentzia</i>	<i>HMH II (2012ko maiatza)</i>	<i>HMH II (2013ko maiatza)</i>	Δ
Irakurmena euskaraz	259	283	24
Irakurmena gaztelaniaz	278	311	33
Matematikarako konp.	280	322	42
Zientziarako konp.	252	275	23

Lehen Hezkuntzako ikasleen puntuazioetan eta DBHko ikasleen puntuazioetan iguera bat izan zen neurketa batetik bestera ebaluatutako konpetentzia guztietan.

Ondorengo tauletan HMH I eta HMH II esperientzietako taldeek esperientziaren garaian lortutako emaitzak azaltzen dira, ikastalde ezberdinak izanik baliokidetasun oso osoa bermatu ezin den arren.

HMH I eta HMH II taldeetako ikasleen emaitzak. Lehen Hezkuntza.

<i>Konpetentzia</i>	<i>HMH I</i>	<i>HMH II</i>	Δ
Irakurmena euskaraz	213	225	12
Irakurmena gaztelaniaz	252	251	-1
Matematikarako konp.	298	286	-12
Zientziarako konp.	254	256	2

Lehen Hezkuntzako taldeen kasuan, HMH II taldeek HMH I taldeek baino puntuazio altuagoak lortu zituzten euskarazko irakurmenean. Gaztelaniazko irakurmenean eta zientziarako konpetentzian antzeko puntuazioak lortu zituzten, eta matematikarako konpetentzian, emaitza apalagoak.

HMH I eta HMH II taldeetako ikasleen emaitzak. DBH.

<i>Konpetentzia</i>	<i>HMH I</i>	<i>HMH II</i>	Δ
Irakurmena euskaraz	276	283	7
Irakurmena gaztelaniaz	303	311	8
Matematikarako konp.	307	322	15
Zientziarako konp.	269	269	24

DBHko taldeen kasuan, puntuazioen igoera bat egon zen konpetentzia guztietan, 24 puntukoa zientziarako konpetentzian eta 15 puntukoa matematikarako konpetentzian.

2.- HMH I eta HMH II taldeetako bukaerako emaitzak

2011-13 eta 2012-14 aldietako talde esperimentaletan eta kontrol taldeetan azken ebaluazioa 2014ko maiatzean egin zen. Kasu hartan bai daude kontrol taldeak bi motatakoak: ingelesean derrigorrezko ordu kopurua zutenak eta ingelesean ordu kopuru handitua zutenak. Bost helburu hauek finkatu ziren:

1. helb. 1Hko eta 2Hko errendimendua (euskara eta gaztelania) HMH taldeetan eta kontrol taldeetan antzerakoa zela ziurtatzea.

Dirudienez, esperientziak ez du eragin kaltegarriarik izan euskarazko eta gaztelaniazko irakurmeneko emaitzetan. Euskaraz gutxienez denboraren % 20 irakatsi da, baina ez gaztelaniaz. Baina ez da puntuazio alderik izan baldintza hori betetzen zuten ikastetxeen eta betetzen ez zuten ikastetxeen artean.

2. helb. Gainerako konpetentzietako errendimendua (matematika eta zientzia) HMH taldeetan eta kontrol taldeetan antzerakoa zela ziurtatzea.

Era berean, ez dirudi eragin kaltegarriarik izan duenik matematikarako eta zientziarako konpetentzietako emaitzetan.

3. helb. 3Hko errendimendua (ingelese) HMM taldeetan hobea dela ziurtatzea.

Lehen Hezkuntzako eta DBHko talde esperimentaletan hobekuntza nabarmena izan da ingelesezko konpetentzian. Emaizak agian hobeagoak izango ziren proposatutako ordutegia talde guztietan bete izan balitz.

4. helb. Inguruneari, ikastetxeari eta ikasleari dagozkien faktoreen artean esperientziako emaitzetan eragina izan dutenak identifikatzea.

Zeharkako aldagai eta hizkuntza-aldagai batzuk identifikatu dira. Zeharkakoak, besteak beste, sexua, adin-egokitasuna, familiaren jatorria, gurasoen ikasketa-maila eta ikasketa-emaizak dira. Hizkuntza-aldagaiak, etxeko hizkuntza, eskolaz kanpoko jarduerak ingelesez gauzatzea, euskararen erabilera orokorra, hizkuntza bakoitzeko ikastordu kopurua eta hizkuntzekiko jarrera dira (2.7 eranskina).

5. helb. Esperientziaren bukaeran, Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 3. mailan, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren arabera, 1H, 2H eta 3Hko konpetentzia-maila ezagutzea.

EEMB maila finkatzeari eragiten dioten aldagaietako bat irakasteredua da. Aldagai horrek ez du eraginik izan ingelesezko eta gaztelaniazko konpetentzietan maila finkatzerakoan, maila horiek berdinak baitira irakasteredu guztietan bai Lehen Hezkuntzako 6. mailan (A2 ingelesean eta B1 gaztelanian) baita DBHko 3. mailan ere (B1 ingelesean eta B2 gaztelanian). Hala ere, euskararen kasuan irakastereduen arteko aldeak antzeman dira: Lehen Hezkuntzako 6. mailaren bukaeran A eredurako A2 maila esleitu da, eta B eta D ereduetarako, B1 maila. DBHko 3. mailaren bukaeran A eredurako B1 maila esleitu da, B eredurako B1 eta B2 bitarteko maila bat, eta D eredurako B2 maila esleitu da (2.8 eranskina).

2.4.3. Hamaika Esku programaren ebaluazioa

Hamaika Esku programa, ikasleen konpetentzien garapena hobetzeko ekimena, 2014-15 ikasturtean jarri zen abian. Hasiera batean helburu hauek finkatu ziren:

- Ikasleen ikasketa-emaizak hobetzea, emaitzen joera negatiboa hiru ikasturteko epean aldatzeko.
- Konpetentzietako hasierako mailan dauden ikasleen ehunekoa nabarmenki jaistea.

Programa emaitza apalak lortu dituzten ikastetxeentzako da, konpetentzia ezberdinetan Euskadiko ikastetxeetako batez bestekotik % 5 baino gehiago desbideratzen diren ikastetxeak alegia. Programa 53 ikastetxetan abiarazi da (28 Bizkaian, 12 Araban, 2 Gipuzkoan). Horietako 36k Haur eta Lehen Hezkuntza irakasten dute, 13 Bigarren Hezkuntzakoak dira, eta 4, ikastetxe integratuak. Programa irakasteredu guztietan gauzatzen da (A ereduko 9, B ereduko 8, D ereduko 6, eta gainerakoak irakasteredu bat baino gehiagokoak).

Lehen faseak hiru ikasturteko iraupena izango du, eta lerro nagusi hauek ditu:

1. Programaren sustapena, jarraipena eta koordinazioa

Koordinazioa hiru mailatan egiten da: Talde Orokorrak jarraipena eta ebaluazioa diseinatzen, bultzatzen eta gauzatzen ditu; Talde Teknikoak lan-materialak diseinatzen ditu eta agente batzuekin elkarlanean programaren garapena kudeatzen du; Ikastetxeko Taldeak programaren garapena in-situ zuzentzen, antolatzen eta gainbegiratzen du.

2. Antolamendua eta plangintza

Zuzendaritza taldeen egonkortasuna eta konpromisoa zuzendaritza-proiektuen bitartez bultzatzen da. Zerbitzu-eginkizunen bidez, plantilak profesional gaituekin sendotzen dira, ikastetxeak lehenesten dituen lerroak garatu ahal izateko.

3. Baliabideen erabilera egokia

Ikastetxeetako baliabideen erabilera optimizatu egin behar da, eta beraz, Sailak ikasleen beharrei erantzuna eta arreta lehenetsi behar ditu.

4. Beste neurri batzuk

- Unibertsitateko Practicum-a: akordioa Bigarren Hezkuntzako Masterrek ikasleek ikastetxe horietan praktikak egin ditzaten.
- Magisteritza Eskolekiko hitzarmena: bertako ikasleek ikastetxe horietan praktikak egin ditzaten.
- Beste erakunde batzuen proiektu sozio-educatiboak.

5. Familiaren inplikazioa

Ikastetxe osoak, zuzendaritza taldearen lidergoan, konpromisoa hartzea faktore erabakigarria da, baina ezinbestekoa da familien eta bestelako agenteen inplikazioa.

Familien kasuan honako hau proposatzen da:

- Familiek, GEko eta OOGko ordezkarien bidez, ikastetxeko Hamaika Esku Batzordean parte hartzea.
- Programari lotutako gaiei buruzko prestakuntza.
- Ikas-komunitateen garapena.

6. Bestelako agenteekiko elkarlana

Programarako interesgarriak diren arloetan lan egiten duten agenteekiko lan koordinatua egitea, hala nola, Osasun Saila, Enplegu eta Gizarte Politika Saila, Segurtasun Saila eta bestelako erakunde publikoak eta elkarteak.

Prestakuntza praktikoa aukeratu da bereziki, antzemandako beharrei lotua, eta ikasgelan eragina izan dezakeena. Programaren jarraipen sistematikoa ere egin da, horretarako zuzendaritza taldea eta irakasleak inplikatu direlarik. Ebaluazioa ikastetxeetako jarraipen-fitxen bidez, ikuskariet betetako galdera-sortaren bidez eta aholkularien jarraipen-fitxen bidez bildutako datuetan oinarritu da.

• Finkatutako helburuen lorpen-maila

Ikastetxeen % 62,3k finkatutako helburuak lortu direla uste du; % 35,8k hein batean lortu direla uste du, batez ere, helburuak lortzeko ikasturte bat baino gehiago behar direlako. % 2ren iritziz, helburuak ez dira lortu.

Ikasturtearen erdialdean ikastetxe bakoitzaren egoera argi eta objektibotasunez identifikatzeko arazoak baziren ere, hirugarren hiruhilekoan ikastetxeen % 87k egoera identifikatu dutela uste dute.

Ikastetxe guztietan uste dute aurrerapenak egin direla, batez ere hizkuntza konpetentzian (% 36,3), irakaslanean (% 27,5), matematikarako konpetentzian (% 17,5) eta ikasleenganako arretan (% 12,5). Gainerako alderdiak ikastetxe bat edo bitan bakarrik garatu dira.

Ikastetxeen % 84ren iritziz, prestakuntza laguntza handikoa izan da finkatutako helburuak lortzeko, eta ez-ohiko baliabideek eragin handia izan dute antolamenduaren hobekuntzan (% 29,5), hobekuntza metodologikoetan (% 22,1) eta ikastetxeko giroan (% 13,7). Bederatzi ikastetxetan ikasketa-emaitez hobetu direla aipatu dute.

Antzemandako oztopoei dagokienez, batez ere aukeratutako hobekuntza-arloan abiapuntua identifikatzeko eta zehazteko arazoak aipatu dira. Ondorioz, helburuetan eta jarraipen eta lorpen-adierazleetan zehaztasun falta izan da.

Ikasturtean zehar orientabideak eta hobekuntzarako proposamenak egin dira zenbait arlotan, hala nola irakaslanaren hobekuntza, hizkuntza konpetentzia, matematikarako konpetentzia, ikasleenganako arreta eta familia-ikastetxe harremanak.

2.4.4. Hauspoa esperientziaren ebaluazioa

Proiektu pilotu bezala hasi zen 2013-14 ikasturtean Bigaren Hezkuntzako 13 ikastetxe publikotan (Arabako 5, Gipuzkoako 1 eta Bizkaiko 7). 2014-15 ikasturtean urte batez luzatu zen, esperientziaren emaitzak bermatzeko bi ikasturteko ibilbidea behar zela iritzi baitzen.

Ikastetxearen autonomia indartzen du eta berrikuntza proiektu bezala definitzen da. Bere xedea gaur egungo markoa malgutzea da, hezkuntza-jarduerak eta denborak berrantolatuz irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko eta ikasketa-arrakasta sustatzeko.

Helburu nagusiak honako hauek dira:

- Eskola-orduen eredu berriak praktikan jartzea eta ebaluatzea.
- Ikastetxeen kalitatea autonomia handituz hobetzea.
- Emaitzen hobekuntza sustatzea.

Proiektuak baldintza batzuk bete behar ditu, hala nola ikastetxeko Hezkuntza Proiektuarekin eta Hobekuntza Planarekin bat etortzea, ikastetxeko Urteko Txostenean agertzea, klaustroan eta OOGn onetsia izatea, eta horrez gain, ikastetxeko gure elkarterik handienaren onespena izatea.

Proposamenaren diseinuak gutxienez honako hau zehaztu behar du:

- a) Eskola-ordutegia aldatzeko proposamena, ikasleen eskolaz kanpoko ordutegirako proposamenarekin batera.
- b) Irakasleen lanorduak berrantolatzeko proposamena, lanorduen kopurua murriztu gabe.
- c) Eskola-komunitatearen parte hartzea eta ikasleen eta familien inplikazioa bultzatzeko estrategiak. GEak beste erakunde batzuen laguntza eskatu eta kudeatu behar du, eta eskolaz kanpoko jarduerak antolatu behar ditu.
- d) Ikasleen autonomia garatzeko jardueren deskribapena.

Zuzendaritza taldeari betebeharrak batzuk gauzatzea eskatzen zaio, eta bere konpromisoa eta lidergoa ezinbestekotzat jotzen dira.

Bi urte igaro ondoren, 2014-15 ikasturteko bigarren hiruhilekoan balorazio kuantitatiboa egin zen, ikastetxeetan idatzitako txostenak, Ikuskaritzaren ebaluazioa eta Berritzegune Nagusiaren balorazioa kontuan izanik. Alderdi hauek azpimarratu beharko lirateke:

- Irakasleen ehuneko handi bat inplikatu da proiektuan, eta ikasleenganako arreta handitu egin da.
- Hauspoa proiektuak metodologia berritzaileak esperimentatzeko aukera eman du.
- Helburu inklusiboa bermatzen du, ikasle guztientzako askotariko jardueren bidez. Gainera, jardueretako bakoitzean ikasleen aniztasuna handia da, bai gaitasunen aldetik baita ikasketa-mailen aldetik ere.
- Parte hartzea borondatezkoa da eta ikastetxeek askotariko estrategiak erabiltzen dituzte ikasleak erakartzeko (hezkuntza-kontratuak, ebaluaziorako kredituak, familiekiko konpromisoa, gainditu gabeko arloak errekuiperatzeko planak...).
- Ikastetxeko giroa hobetzea eta ikasgelako gatazkak murriztea.
- Ikasleentzako, irakasleentzako eta familientzako asebetetze inkestetako emaitzak oso positiboak.
- Hurrengo irakasmailara igarotzen diren ikasleen ehunekoa eta titulua eskuratzen dutenena igo egin dira. Arlo guztiak gaindituta igarotzen direnen ehunekoa eta titulua eskuratzen dutenena ere igo da.

2.5. Hezkuntza inklusiboaren pertzepzioa Euskadiko DBHko ikastetxeetan

Euskadiko Eskola Kontseiluak ikastetxeetako errealitatea eta irakasleen errealitatea sakonkiago ezagutzea erabaki du, ahal duen neurrian errealitate hori hobetzen laguntzeko. Horregatik, hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren trataera lehentasunezko arloak direla eta irakaslanean eragin zuzena dutela kontuan izanik, ekimen bat sustatu du DBHko irakasleentzako.

Galdera-sorta bat prestatu du irakasleek hezkuntza inklusiboari buruz nolako pertzepzioa duten ezagutu ahal izateko. Konkretuki, ikastetxe bakoitzean profil profesional ezberdinetako bost agenteri banatu zaie galdera-sorta (zuzendaritza

taldeko kideei, bi zikloetako irakasleei, pedagogia terapeutikoko irakasleei, orientadoreei...). Erantzuna ugaria izan da ikastetxeen % 97 inplikatu baitira.

Jarduera hori Kontseiluak 2013-16 aldirako finkatu zituen lehentasun batzuen ondorioa da, besteak beste:

- Ikastetxeetako esperientziak, lorpenak, kezkak... ezagutzea
- Irakaslana hezkuntza hobetzeko faktore garrantzitsutzat hartzea.
- Erakunde eta agente batzuekin (unibertsitatea, Berritzeguneak...) koordinazioa garatzea.
- ISEI-IVEIrekin eta Hezkuntza Ikuskaritzarekin koordinazioa eta lankidetzat hartzea.
- Ekimenak ebaluatzeko eta aurrera ateratzeko jardunaldiak antolatzea.
- Ikasleen eta familien ordezkarietako harremanen bidez, ulermena eta laguntza... sustatzea.

Jarduera hori ISEI-IVEIren, Hezkuntza Ikuskaritzaren eta Hezkuntza Berriztatzearen laguntzaz gauzatu da.

2.6. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Atala 2015eko Ebaluazio Diagnostikoari buruzko datuekin hasten da. Horrekin batera, bi irakasmailetako ikasleen konpetentzia guztietan lortutako emaitzen analisia egiten da, 2009tik aurrera egindako ebaluazio guztietan lortutako emaitzena.

Ebaluazio diagnostikoak ikastetxeei aukera ematen die euren ezaugarri berdinetako beste ikastetxeekin konparatzeko eta ebaluazioz ebaluazio barne jarraipena egiteko, eta Kontseiluak, horregatik, balio handia aitortzen dio, baina oraingo honetan zenbait iruzkin egin nahi ditu datu-segiden arteko konparazioari buruz eta datuen interpretazioari buruz.

Konparazioak arreta handiz egin behar dira, eta balorazio bakoitzean aldagai jakin batzuen eragina (adib. ikastetxeko ISEK indizea, etxeko hizkuntza, sexua edo adin egokitasuna) garrantzitsutzat jotzen bada, edizio bakoitzean ikasle-populazio ezberdinak ebaluatzen direnez, emaitzen aldaketa joeratzat interpretatu behar da eta, ez, ordea, balio absolutuko datua balitz bezala.

Datuen analisia aldagai jakin batzuen arabera egiten da, baina aldagai horien artean ez da sartzen irakasleen esku-hartzea, ezta familiarena ere –biak ezinbestekoak. Horren eraginez, ebaluazio guztietako ondorioetan ISEK indizeak eta etxeko hizkuntzak oso izaera determinista izaten dute, eta geure buruari galdetzen diogu nolako emaitzak lortuko liratekeen irakasleen eragina edo familiaren eragina kontuan hartuko balitz.

2014-15 ikasturtean “Junta de Participación Autonómica del Consejo Escolar del Estado”¹⁵ izeneko batzordean egindako ikerlan batek adierazi zuen familiaren eragina ISEK indizearen beraren eragina baino handiagoa zela, seme-alabentzako ikasketa-itxaropen altuei esker eta ikastetxearekiko harreman positiboari esker. Harreman positibo horren barruan Ikastetxeko Proiektuarekiko adostasuna eta laguntza sartuko litzateke, eta, baita ere, ikastetxearen eta familien arteko harremanetan giro egokia sortzeko ahalegina.

Gainera, gaur egun beste erreferentzia batzuk ditugu, hala nola ISEI-IVEIk balio erantsi handiko ikastetxeetako jardunbide egokiei buruzko ikerlana, bikaintasunari buruz egindakoa edo PISA ebaluazioan errendimendu apala izan duten ikasleei buruzko ikerketa. Zenbait argitalpenetan emaitzetan eragin handia duten beste aldagai batzuk aipatzen dira, haien artean irakasleen kalitatea. Beraz, aldagai garrantzitsu horien eragina ezin da alde batera utzi.

(P8) Beraz, ebaluazio hobekuntzarako tresna bezala harturik, Kontseiluak beharrezkotzat jotzen du irakaslanaren ebaluazioa bultzatzea.

(P9) Kontseilu honek zuhertasun handiz jokatzeko eskatzen du zabalkunde handiko emaitza horiek gure ikasleen egoerari buruzko erreferentzia bakarra bihur ez daitezen. Kontseiluak azken txostenean ebaluazio jarraituaren emaitzekiko bere interesa adierazi zuen, eta, baita ere,

¹⁵ “La participación de las familias en la educación escolar. <http://www.mecd.gob.es/cee/portada.html>

ikastetxeetako hobekuntza-planak diseinatzerakoan kanpoko ebaluazioaren emaitzekin osatu behar zirela. Oraingo honetan zuhertasunez jokatzea eskatzen du kanpoko ebaluazioetako emaitzak gehiegizko garrantzia hartzen ari baitira.

Hori esanda, zenbait alderdi azpimarratu behar dira, haien artean Ebaluazio Diagnostikoetan hasierako mailan geratzen diren ikasleen kopuruari dagozkionak. Hasierako maila horretan ikasleen % 15 baino gehiago geratzea porrot bezala hartzen da, areago oraindik ikasle horiek ikastetxeko ebaluazioetan emaitzarik apalenak lortzen badituzte.

Kontseiluak berriro adierazi nahi du bere kezka ikasleek Ebaluazio Diagnostikoan euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian lortzen dituzten emaitzei buruz, eta Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta DBHk 2. mailan arreta berezia jartzeko eskatzen du, arloak gainditzten dituzten ikasleen ehunekorik baxuenak bi irakasmaila horietan gertatzen direlako. Ildo horretan, interes handikotzat jotzen du ikastetxeetako hizkuntza-proiektuak garatzea, ikasle guztiek elebitasuna eta hirueletasunari dagozkion helburuak lortu ahal izan ditzaten.

(P10) Horren haritik, Kontseiluak proposatzen du Berritzeguneek eta Hezkuntza Ikuskaritzak bi irakasmaila horietan jarraipen zehatz bat egin dezaten, bereziki euskarazko konpetentzian. ISEI-IVEIk balio erantsi handiko ikastetxeetan ikertutako jardunbide egokietan oinarriturik¹⁶.

Irakasleen prestakuntzari eta ikastetxeetako berrikuntzari dagokienez, irakasleen prestakuntzarako proposamen instituzionalari koherentzia handiagoa emateko egindako ahalegina aitortu behar da. Erreferentzia nagusitzat ikaslea harturik, prestakuntzaren helburua irakasleen eta agente ez-irakasleen ezagupenak eguneratzea eta hobetzea da, irakaslanak ikasleen benetako beharrei erantzun bat eman ahal izan diezaien. Hori dela eta, familientzako eta bestelako agenteentzako prestakuntza ere egitea oso komenigarria litzateke, bakoitzak bere hezkuntza-lanean egiten duen ahalegina bateratzeko aukera egokia baita.

Kontseiluaren iritziz, ikastetxeko prestakuntzaren modalitatea oso interesgarria da. Esperientziak erakutsi digu prestakuntzak ikasleekin egiten den lana hobetzeko kultura partekatu bat sortu behar duela. Nekez lortuko da kultura hori prestakuntza-modalitate nagusia bakarkakoa baldin bada, eta ez, ordea, partekatua.

Ikastetxeko lidergoak berebiziko garrantzia du. Lidergoa nork bere esparrutik balioa ekartzen duten pertsonen artean banatu behar da. Egia da zuzendaritza taldeen lidergoak hobekuntzarako prestakuntza eta laguntza eskatzen duela, baina egia da, baita ere, ikastetxeko beste lider batzuentzako ere behar-beharrezkoa dela. Deialdietan horri buruzko nobedade batzuk daude, besteak beste, prestakuntza-esperientziak, ikastetxe barruan partekatzeaz gain, praktiketako irakasle-gaiekin, beste ikastetxe batzuekin eta Sailarekin berarekin ere partekatzeko konpromisoa.

¹⁶ Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak. www.isei-ivei.hezkuntza.net

(P11) Konpromiso horiei erantzun bat eman ahal izateko, eta pertsonalaren kudeaketa eta ikastetxearen autonomia hobetzeari begira, lidergoa duten pertsona horiek ezagupenen transmisioa antolatzeke eta diseinatzeke denbora bat izan dezaten bermatu behar da.

Prestakuntzaren eragina azpimarratu beharreko beste alderdi bat da. Deialdietan, inplikaturako ikastaldean eta pertsonen kopurua baloratzeaz gain, prestakuntzak hezkuntza-komunitatean duen eragina ere baloratzen da.

Adibide gisa, atal honetan Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren aipamenak eta Gizalegez Akordioaren aipamenak sartu dira.

Planaren proposamenean, hezkuntza-sistema osatzen duten pertsonen eta egituren eragiterak bideratuta ote dagoen baloratzen da. Era berean, Batzorde Teknikoaren eta Jarraipen Batzordearen bitartez, hezkuntza zerbitzuen arteko koordinazioa azpimarratzen da, eta, baita ere, Emakunderen Idazkaritza Orokorrarekiko eta Familia Politika eta Komunitate Garapenerako Zuzendaritzarekiko koordinazioa.

Planean "Aniztasun afektibo-sexualarekiko jarrera" izeneko inkestaren aipamen berezia egiten da. Inkestaren lagina oso txikia bada ere (13 eta 16 urte bitarteko ikasleen % 3,8), gai hori lantzeagatik bakarrik ekimen berritzailea eta baliotsua da.

(P12) Horri dagokionez, Kontseiluak beharrezkotzat jotzen du aniztasun afektibo-sexuala ezagutarazteko eta ageriratzeko bidean aurrerapausoak ematea, eta beraz, hezkuntza-komunitatearen prestakuntzan.

Gizalegez Akordioan, Elkarrekin programaren, Adi-adian moduluaren eta Eskola Bakegune programaren garapenari dagokionez, proposamenean osagarritasuna azpimarratu behar da, eta, horrekin batera, programa horiek hezkuntzaren ikuspegi integralaren atal bezala ezarri beharra.

Elkarrekin bonoen bidez egindako lanean bake eta bizikidetzarako kultura berria sustatzen duten zenbait proiektu sortu dira. Eskola Bakegunek antzerako lana egiten du, ikastetxeei informazioa eta askotariko baliabideak ematen baitizkie. Azkenik, Adi-adian moduluak hezkuntza-prozesu pertsonala hobetzeko eta sendotzeko moduluaren abiapuntuan giza duintasuna jartzen du. Moduluan irakasleek, ikasleek eta familiarek emandako balorazioa azpimarratu behar da, haien ustez kasu guztietan esperientzia zirrargarria eta oso positiboa izan baita.

Beste alde batetik, hainbat alderdiri buruzko erabakiak hartzerakoan (ikastetxeko prestakuntzarako proposamenak, Hezkuntza Proiektuarekin duten lotura, Urteko Planean sartzea eta Urteko Txostenean baloratzea...) OOGk izan duen esku-hartzearen garrantzia aipatu behar da. Alderdi guztiak duela urte askotatik agertzen dira deialdietan eta, zalantzarik gabe, ikastetxeetako bizitzaren koherentzia errazten dute.

(P13) Kontseilu honek, beraz, lorpen-adierazle horiek berrikustea eta eguneratzea gomendatu nahi du, neurketaren balioa bermatzeko behar diren oinarritzko datuak lortzea oso zaila baita:

- 1. lerro nagusiari dagokion adierazleak ez du neurtzen ikastetxe guztiekiko aurrerapen maila.
- 3. lerro nagusian, Hezkuntza Proiektuak oinarritzko konpetentzien garapenean duen eragina egiaztatzen zaila da.
- 4. lerro nagusian, zaila da EAEko ikastetxeetako ikasleen % 100en garapen integrala hobekuntza-planen jarraipenaren bidez bermatzea.

Bukatzeko, 5. lerro nagusiari dagokionez, Ebaluazio Diagnostikoetako euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian eta zientziarako konpetentzian lortutako puntuazioak oso urrun daude finkatutako helburuetatik.

Zuzendarien ebaluazioa prozesua finkatzen duen araudiaren arabera gauzatu da. Zuzendaritzaren ahaleginez gain, ikastetxeetako bestelako agenteen ahalegina ere (zuzendaritza taldeko gainerako kideak, OOGko ordezkariak...) handia izan da, eta baita ebaluazioa gauzatu duen hezkuntza Ikuskaritzarena ere. Ikastetxeetako zuzendarien egoera askotarikoa da zuzendaria izendatua, ebaluatua eta berriztatua noiz izan den kontuan hartzen bada. Aniztasun horrek zaildu egiten du kasu bakoitzeko beharrei berariazko erantzuna ematea.

Hasierako Prestakuntza-programan karguan bi urte oso eman duten zuzendariak ere parte ahal izatea positibotzat hartzen da, zuzendaritza berrien eta esperientziadunen arteko lankidetzak balio erantsia ematen die haien arteko harremanei, esperientzien konparazioari.

Oraingo agintaldian proiektua duten zuzendarien aurrerapena oso handia izan da, % 62ra heldu baita. Balorazio positiboa izan duten zuzendarien ehunekoa ere oso handia izan da (% 100 ia). Aipatu beharrekoa da zuzendarien % 58k karguan jarraitzen duela, 2013 eta 2014ko ehuneko berdinak.

Ikuskaritzak bere txostenean dioen bezala, lortutako puntuazioa oso altua da eta aurreko ebaluaziokoa baino dezente altuagoa. Datu garrantzitsua da, ebaluazioa hasieran finkatutako helburua lortzen ari dela pentsa baitaiteke, hau da, zuzendaritza taldeko kideei euren lanean laguntzea, ikastetxeen funtzionamendua hobetzeko eta ikasleen konpetentziak ahalik gehien garatu ahal izateko.

(P14) Ildo horretan, Euskadiko Eskola Kontseiluak ekimen hori positibotzat jotzen du, eta inplikaturako agente guztien ahalegina aitortu eta eskertu ondoren, ikasketa buruen eta idazkarien ebaluazioari eta jarraipenari arreta handiagoa eman dakiela eskatzen du, pertsona bakarreko kargu horien lana oso garrantzitsua delako.

Hezkuntza Marko Hirueledunaren (HMH) esperientziari dagokionez, atal honetan finkatutako bost helburuetan lortu diren emaitzen laburpena egiten da. Interes handiko bi alderdi aipatu nahi ditugu: zeharkako aldagaien eta hizkuntza-aldagaien eraginaren analisia eta Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailekiko baliokidetasuna.

Hizkuntza-aldagaien eraginak berretsi egiten du HMH I lehen fasearen ebaluazioan ateratako ondorioa: irakastorduen kopuruaren eta irakurmeneko emaitzen arteko korrelazio positiboa antzeman da euskararen eta ingelesaren kasuan, baina ez gaztelaniaren kasuan.

Europako Erreferentzia Marko Bateratuko maileri dagokienez, egindako lana atsegin handiz ikusten du Kontseilu honek, 2008-10 biurteko txostenean horretarako proposamen bat (P 16) egin baitzuen, hiru hizkuntzetako bakoitzerako erreferentzia-mailak finkatu behar zirela adierazten zuena, ikastetxe bakoitzak bere beharrei nolako erantzuna eman finkatu ahal izateko.

Hamaika esku programak dituen zenbait elementuk, egoki hariztaturik, ikasleekiko lana eta, beraz, euren konpetentzien garapena hobetu dezakete. Horixe erakutsi dute 2014-15 hasierako ikasturtean zehar partaideek egindako balorazioek.

Hasierako diagnosia eta helburuen definizioa Urteko Planean adieraztea, lidergo, koordinazio eta esku-hartze mailak, datuen bilketa sistematikoa eta analisisa, egindako lana berraztertzea, zereginari lotutako prestakuntza eta baliabideen kudeaketa izan dira, besteak beste, ikastetxeetako esperientziaren oinarriak.

Lantzeko aukeratutako gaien artean hizkuntza konpetentzia izan da gairik nagusiena, gero irakaslana, familiaren eta ikastetxearen arteko harremana eta ikasleen jarraipena eta arreta. Apur bat atzerago geratu dira matematikarako konpetentzia eta baliabideen plangintza, antolamendua eta kudeaketa egokia.

Kontseiluak interesgarritzat jotzen du hizkuntza konpetentzia lehenestea. Izan ere, aurreko txostenean euskarazko hizkuntza konpetentziako emaitzak hobetzeko plan baten beharra aipatu zuen, Ebaluazio Diagnostikoan hasierako mailako ikasleen ehunekoak guztietan handienak baitira, eta gainera, irakas-hizkuntza denez, eragin handia baitu gainerako arloetako ikasketetan.

Era berean, Kontseilua bat dator “ikasle etorkinak hartzeko modurik onenari buruz gogoeta sakon bat egin beharra” aipatzen duen proposamenarekin, hizkuntza ez ezagutzeak dakartzan oztopo bereziak kontuan izanik.

Beste alde batetik, irakasleen inplikazioa oso garrantzitsua da, egindako jarraipenak argi erakutsi baitu ikastetxeko proiektuan zenbat eta irakasle gehiago inplikaturik egon, aldaketak arinago eta argiago ikusten hasten direla.

(P15) Kontseiluak ikastetxeetan hezkuntza-komunitatearekin egindako ahalegina eta kanpoko agenteen artean egindakoa eskertu nahi du, eta horrekin batera, abian jarritako ekimenen garrantzia azpimarratu nahi du, eta, beraz, ekimenei falta diren bi ikasturteetan irautearen garrantzia.

Hauspoa proposamen berria dela eta, Kontseiluak ondo daki eskola-ordutegiari buruzko eztabaida duela urte askotatik hona aldian behin pizten dela, eta egindako ikerketak ez duela ondorio biribilik atera ordutegi mota baten edo beste baten alde. Baina ikerketak argi utzi du zenbait arlotan erabakiak hartzerakoan arreta handiz

jokatu behar dela, adibidez egoera pertsonalagatik, ikasketa-historiagatik edo gizarte-ezberdintasunengatik arazoak dituzten ikasleen kasuan.

Kontseiluak oso egoki deritzo Hauspoa proiektuan ikastetxeen autonomia eta familienganako arreta sendotzera bideratutako denboraren neurketa bat proposatzeari, ikasle guztiek, eta bereziki arazoak dituztenek, ikasketak aurrera atera ahal izan ditzaten.

(P16) Esperientziaren balorazioak, arestian aipatu den bezala, oso emaitza onak izan ditu ikasleentzako, irakasleentzako eta familientzako asebebetze-inkestetan. Kontseilu hau, ondorioz, esperientziak aurrera jarraitzearen alde dago, bi alderdi azpimarratu nahi dituelarik:

Lehenengo eta behin, borondatezko parte hartzea eta porrot-mailarik altueneko ikasleen parte hartzea orekatuta egon behar dira, familiarekin edo ikasleekin berarekin lan eginez programan parte hartzeko motibazioa lortzeko.

Bigarrenez, egindako ebaluazio-txosteneko gomendioetan jasotzen den bezala, Hauspoa proiektua ez da identifikatu behar ordutegi trinkoa ezartzeko aukera huts batekin ez eta errekupeazio-eskola soilekin ere.

HEZKUNTZA-SISTEMAREN FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK

3. ATALA. HEZKUNTZA-SISTEMAREN FINANTZAKETA ETA BALIABIDEAK

SARRERA

Hirugarren atal honek 2012, 2013 eta 2014ko ekitaldi ekonomikoetako informazioa du. 2012ko ekitaldia txertatzearen arrazoia argia da, hau da, aukeratutako adierazle batzuetan, eguneraketa urte horri dagokio. Kasu horietan, 2011rekin egiten da alderaketa; izan ere, Kontseiluko azken txostenean atal berberean erabilitakoak dira. Edonola ere, egoera horrek "Hezkuntzaren adierazle ekonomiko nagusiak" izenburua duen atalean islatutako informazioari eragiten dio.

Adierazi behar da oraingo honetan ezin direla EUSTATEk egiten dituen irakaskuntza publikoaren eta pribatuaren gastuaren eta finantzaketaren estatistiken datuak eskaini, nahiz eta atal honetan ohiko erreferentzia izan. 2012koak azken Txostenean aztertu ziren eta atal hau egin den unean ez dira eguneratu.

Jarraian, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren aurrekontuak aurkezten dira, eta ohikoa den moduan, baita programen eta atalen arabera banaketaren azterketa ere. Ikastetxe pribatuak itunpeko bihurtzeari buruzko datuak eskaintzen dira eta ikastetxe publikoetako irakasleen plantilekin amaitzen da.

3.1. Egoera sozio-ekonomikoa

2013-2015eko aldiaren bereizgarria da igoera ekonomiko arina, aldagai sozio-ekonomiko makroen balioak ikusirik. Zehazki, BPGren bilakaera, 2013. urtean, % -1,3an kokatzen da, eta 2014an % 1,60koa izan da.

2014. urte horretan¹⁷, lanean ari diren pertsona kopuruak gora egin du, 1.400 gehiago hain zuzen (% 0,2); era berean, gora egin du Gizarte Segurantzara kotizatu dutenen kopuruak ere (% 0,3).

2014. urtearen amaieran, langabezia-tasa % 14,9koa zen. Hala ere, adierazi behar da biztanleria aktiboari esker, urteko batez bestekoak % 1,7 egin duela gora. 2014ko laugarren hiruhilekoan, langabezian zeuden pertsona kopuruak % 4,9 egin du behera 2013ko aldi berberarekin alderatuta.

Sortutako lanaren izaera mugagabea (% 5) kontraesanean dago kontratazio partzialeko datuekin, behin-behinekotasunaren maila altua mantentzen den arren (% 21,7, Europa mailako % 13,8ko batez bestekoaren aurrean)¹⁸. Gora egin du langabetuen % 65i eragiten dion iraupen luzeko langabeziak eta aurreikusitako laguntzen kasuan, gero eta gehiago amaitu dira.

Azkenik, 2014an, zerga-bilketak (12.320 mila €) % 4,8 egin du gora aurreko urtearekin alderatuta eta 2015ean, % 2,4, 2014. urtearekin alderatuta (12.613 mila €).

¹⁷ EUSTATEko Biztanleriaren Jardueraren arabera sailkatzeko Inkesta (BJA)

¹⁸ EGB Memoria sozioekonomikoa

3.2. Hezkuntzaren adierazle ekonomiko nagusiak

Jarraian ageri diren adierazleez hitz egiteko orduan, kontuan izan behar da hezkuntzan gastu publikoak, BPGren ehunekoak eta gastu pribatuak Kontseilu honekin lehiatzen duen unibertsitatekoa ez den zatitik harago doan alorrean eragiten diela.

Hala eta guztiz ere, nazioarteko azterketetan eta zehazki Europa arloan erabili ohi diren adierazleak dira biak. Beraz, interesgarriak dira informazio “marko” gisa.

“Hezkuntza Euskadin 2012-2013” azken txostenean 2011koak eskaini ziren. Edizio honetan, azken eguneratzeari dagozkion datuak eskaintzen dira, hau da, 2012koak.

Hezkuntzan izandako guztizko gastuak administrazio publikoko aurrekontu likidatuak biltzeaz gain, sozietateen, instituzio pribatuen eta etxebizitzaren gastua ere biltzen du hezkuntza-zentro eta zerbitzu guztietan, bai publikoetan, bai pribatuetan.

EUSTATen 2014ko hezkuntzaren kontuko datuen aurreikuspenean, urte horretan, hezkuntzako gastu orokorra 3.363 milioi eurokoa izan zen. Kopuru horretan, % 79 finantzazio publikokoa zen, eta gainerakoa, pribatua. Gainera, % 96 gastu arruntari zegokion eta gainerako % 4a inbertsio-gastuari. *Hezkuntzako guztizko datua, BPGrekin alderatuta*, 2012an eta 2014an % 5 izan zen.

Gastu orokorra hezkuntzan (milaka euro)

<i>Urtea</i>	<i>Gastu Orokorra</i>	<i>Gastu arrunta</i>
2012	3.344.668	3.154.304
2014	3.363.140	3.229.885

Gastu arruntak jarraian adierazitako hauetan egindakoaren batuketa biltzen du: hezkuntza-zerbitzuetan eta prestakuntza-zerbitzuetan, jarduera osagarrietan (garraioa, jantokia, egoitza), liburuak eta etxebizitzek eskuratutako eskolako materiala, hezkuntza-sistemaren, ikerketaren eta hezkuntza-berrikuntzaren administrazio orokorra eta hezkuntza-erakundeetan kapitalaren prestakuntza gordina (inbertsioak).


Gastu arrunta hezkuntzan (milaka euro)

<i>Gastu arrunta</i>	2012	2014
Hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak	2.771.732	2.834.576
Jarduera osagarriak	273.139	287.475
Garraioa	50.112	50.277
Jantokia	172.195	183.356
Bizilekua	2.246	2.426
Besteak	48.586	51.416
Familiak eskuratutako liburuak eta eskola-materiala	47.543	44.439
Hezkuntza-sistemaren administrazio orokorra	33.845	36.473
Hezkuntza-ikerketa eta berrikuntza	28.045	26.922
Hezkuntza-erakundeetan kapitalaren prestakuntza gordina	190.364	133.255

Jarraian, *hezkuntzako gastu publikoa* aztertzen da, *BPGren ehunekoa den heinean*. Erakunde publiko guztiek hezkuntza-zentro eta zerbitzu mota guztietan egindako inbertsioa biltzen du.

2012. urteari dagozkion *Education at a Glance*-ren (2015) datuekin, Europako estatuek beren BPGren % 4,6ko batez bestekoa eskaintzen dute hezkuntzan. Ehuneko hori, Euskadiren kasuan, % 4,0an estima daiteke, eta Espainiaren kasuan, % 3,7an.


Gastu publikoa hezkuntzan, BPGren ehuneko gisa, Europar Batasuneko herrialdeetan 2011n eta 2012an. Irakaskuntza guztiak



Iturria: *Education at a Glance* (ELGA, 2015), B4.1 taula, eta *Eustaten Hezkuntzaren Kontua* (2014)

Lehen hezkuntzatik hirugarren hezkuntzara arte bideratutako gastu publikoaren adierazleari dagokionez, *guztizko gastu publikoaren ehuneko gisa*, Euskadik % 9,8 bideratzen du.

Hezkuntzako gastu publikoa, Lehen Hezkuntzatik Hirugarren Hezkuntzara bitartean egindako gastu publikoa, guztira. 2012ko ikasturtea




Iturria: Education at a Glance (ELGA, 2015), B4.1 taula, eta Eustaten Hezkuntzaren Kontua (2014)

Bestalde, *hezkuntzan, hezkuntzako guztizko gastuaren ehuneko gisa* egindako gastu pribatuari dagozkion datuek erakusten dute erakunde pribatu guztiek, batez ere erabiltzaileek edo familiartekoei, ikastetxe eta hezkuntza-zerbitzu mota guztien finantzaketan egindako ekarpena.

Irakaskuntza guztien multzoan, gastu pribatuak, unibertsitatea barne, Euskadiren kasuan, guztizko gastuaren % 20,6 lortu du 2012an eta % 21,5 2014an; Espainian berriz, % 15,8koa da datua, eta Europan, batez beste, % 11,4.

Gastu pribatua hezkuntzan, Europar Batasuneko herrialdeetan hezkuntzako guztizko gastuaren ehuneko gisa 2012an. Irakaskuntza guztiak



Iturria: Education at a Glance (ELGA, 2014), B3.1 taula, eta Eustaten Hezkuntzaren Kontua (2014)

Eustaten Hezkuntzaren Kontuan, dolarretan adierazitako 2012ko datuekin ikusten da Euskadik ikasleko finantzazioko tasa absolutuak Europako herrialde gehienetakoak baino altuagoak mantentzen dituela. Hala ere, dagoeneko ikusi dugun moduan, hezkuntzara bideratutako BPGren ehunekoa batez bestekoa baino baxuagoa da, batez ere unibertsitate aurreko ikasketen kasuan¹⁹

Hezkuntza-erakundeetako oinarritzko zerbitzuetan, zerbitzu osagarrietan eta I+Gn ikasleko egindako urteko gastua (EAP\$). 2012


	<i>Lehen, Bigarren eta Bigarrenaren osteko Hezkuntza (ez Hirugarrena)</i>		<i>Hirugarren Hezkuntza (I+G barne)</i>	
	2009	2012	2009	2012
Norvegia	12.971	13.611	19.269	20.016
Euskadi (1)	10.982	9.862	15.860	15.386
Holanda	10.030	10.464	17.849	19.276
Frantzia	8.861	9.338	16.569	15.281
Espainia	8.818	8.152	13.614	12.356
Alemania	8.534	9.843	14.6424	17.157
Finlandia	8.314	9.353	16.569	17.863
Txekiar errepublika	5.612	5.231	8.237	10.319

1. Kalkulua ikasle kopuruan oinarrituta egin da, denbora osoko baliokidetzan egokitzapenik egin gabe. Iturria: Eustat. Hezkuntzaren Kontua (2014)

Autonomia erkidegoen arteko alderaketarekin lotuta, Estatuko Eskola Kontseiluak unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako *ikasleko gastu publikoa* neurtzeko estatistika egin du, ikastetxearen titulartasunaren arabera. 2012ko datuekin, Euskadi lehen postuan kokatu dute bi adierazleetan, Nafarroaren aurretik.

¹⁹ Sailkapen honetan, Europako batez bestekoa sartu gabe eta dolarretan adierazita, lanbide heziketaren goi maila hirugarren mailako hezkuntzan sartzan da, unibertsitateko ikasketekin batera.


Ikasleko gastu publikoa unibertsitatez kanpoko hezkuntza-erakundeetan, ikastetxearen titulartasunaren eta autonomia erkidegoaren arabera. 2012. urtea



Iturria: 2015eko txostena. Estatuko Eskola Kontseilua

Hala eta guztiz ere, alderaketa zorrotzagoa egiteko, beste faktore batzuk izan beharko lirateke kontuan. Ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasleen araberrako gastu publikoaren kopuruak ondoen azaltzen dituen faktorea irakasle bakoitzeko ikasleen batez besteko kopurua da. (Horrela, adierazle honetan, gastu publikoaren aldean % 71 ikasleak/irakaslea ratioan ($R=0,71$) dauden aldeek adierazten dute). Euskadik du gastu publiko handiena, eta era berean, Euskadik du ratorik txikiena, hurrengo grafikoan ikus daitekeen moduan.

Ikasle bakoitzeko gastu publikoa, autonomia erkidego bakoitzeko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxeetan ikasle bakoitzeko ikasleen batez besteko kopuruarekin alderatuta. 2012-13 ikasturtea



Bestalde, irakaslea/ikaslea ratioan gehien eragiten duen faktorea biztanleriaren sakabanaketa maila da. Ildo horretatik, Euskadi ez dago 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan ikasleen ehuneko kopuru handiena duten komunitateen artean (% 20,6), Galiziatik (% 47,4), Nafarroatik (% 34,2) edo Asturiasetik (% 32,9) urrun.

3.3.- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren aurrekontuak

Epigrafe honetan aztertzen da 2013 eta 2014 ekitaldietan Hezkuntza Sailak egindako aurrekontua eta 2012ko ekitaldikoarekin alderatzen da. Gainera, atalen, programen eta azpiprogramen arabera zehaztutako datuak aztertzen dira. Bestalde, modu zehaztuan aztertzen dira langileen gastuko 1. atala eta ikastetxe publikoetako inbertsioen 6. atala. Azkenik, itunpekotzeari buruzko datuak eskaintzen dira.

3.3.1 Hasierako aurrekontua eta egindako aurrekontua

2013. urtean ez ziren aurrekontuak onartu. Beraz, 2012koak luzatu ziren.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak (milioi €) eta 2012 eta 2014 arteko urte arteko igoera

	2012	2013	2014	Δ 13/12	Δ 14/13
Hasierako aurrekontua	10.449	*9.317	10.216	% -10,8	% 9,6
Egindako aurrekontua	10.246	9.579	10.053	% -6,5	% 4,9
Exekuzioaren %	98,06	102,81	98,40		

**Aurrekontuen proiektua-*

Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak 2012ko abenduan bat egin zuen Kultura Sailarekin. Horrela sortu zen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila. Hala eta guztiz ere, azterketa honetan, hezkuntzaren arlo zehatzari dagozkion datuak soilik biltzen dira alderaketa mantentzeko.

Aztertuko diren bi ekitaldietan, egindako aurrekontua baino zertxobait goragotik exekutatu dira aurrekontuak. 2013ko ekitaldian % 6,2ko jaitsiera gertatu da. 2014an berreskuratu da neurri handi batean.

Hezkuntza, unibertsitateak eta ikerketako aurrekontuak (milioi €) eta 2012 eta 2014 arteko urte arteko igoera

	2012	2013	2014	Δ 13/12	Δ 14/13
Hasierako aurrekontua	2.648	*2.414	2.540	% -8,8	% 5,2
Egindako aurrekontua	2.625	2.462	2.578	% -6,2	% 4,7
Exekuzioaren %	% 99,13	% 102,00	% 101,49		

**Aurrekontuen proiektua.*


Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuarekin lotuta, Hezkuntza arloarenak, laurdena baino zertxobait gehiago ordezkutzen du. Zorraren ordainketa kenduta, ehuneko hori % 27,6 arte igo da.

**Sailak exekutututako aurrekontua, Eusko Jaurlaritzak exekutututako guztizkoarekin lotuta
(milioi eurotan)**

	2010	2011	2012	2013	2014
Hezkuntza arloa	2.784	2.716	2.625	2.462	2.578
Eusko Jaurlaritza*	10.327	10.173	10.246	9.579	10.053
Zorraren ordainketa kenduta	10.129	9.861	9.881	9.166	9.329

**Sailak exekutututako aurrekontua, Eusko Jaurlaritzak exekutututako guztizkoarekin lotuta
(ehunekoak)**

3.3.2 Aurrekontuaren banaketa atalka



Atalen arabera aurrekontua egitean, ikusi dugu 2013an gertatu diren jaitsierak 2014ko ekitaldian konpentsatzen direla neurri handi batean. Langileen gastuaren igoera, batez ere 2013an, 2012koarekin alderatuta, ekitaldi horretan aparteko ordainsaria ez ordaintzeagatik gertatu da. Bestalde, 2014an 6. atalaren jaitsieran eta 7. atalaren igoera handian, kontuan izan behar da aurrekontu txikiak direla, ia-ia ez direla guztizko aurrekontuaren % 2ra ere iristen.

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren hezkuntza arloan egindako
Aurrekontuaren urte arteko bilakaera atalka (milaka €).**

	Atala	2012	%guztizkoa	2013	%guztizkoa	2014	%guztizkoa	Δ13/12	Δ14/13
1	Langileen gastuak	1.084.808	% 41,3	1.139.745	% 46,3	1.165.022	% 45,2	% 5,1	% 2,2
2	Funtzionamendu-gastuak	234.334	% 8,9	228.991	% 9,3	221.980	% 8,6	% -2,3	% -3,1
3	Finantza-gastuak	56	% 0,0	98	% 0,0	205	% 0,0	% 75,0	% 109,2
4	Diru-laguntza arruntak	1.151.360	% 43,9	996.665	% 40,5	1.098.271	% 42,6	% -13,4	% 10,2
6	Inbertsioak ikastetxe publikoetan	58.653	% 2,2	73.903	% 3,0	34.957	% 1,4	% 26,0	% -52,7
7	Kapitalaren diru-laguntzak	94.378	% 3,6	21.416	% 0,9	55.893	% 2,2	% -77,3	% 161,0
8	Finantza-aktiboen ugaritzea	1.525	% 0,1	1.293	% 0,1	1.488	% 0,1	% -15,2	% 15,1
9	Finantza pasiboen jaitsiera		% 0,0		% 0,0	321	% 0,0		
	Guztizkoa	2.625.112	% 100	2.462.111	% 100	2.578.137	% 100	% -6,2	% 4,7

3.3.3. Programen araberako Aurrekontu Banaketa

Bi urte hauetako bilakaerari begiratzen baldin badiogu, 2012rekin alderatuta igoera gehien izan duten programak hauek dira: "Egitura eta babesak", "Erregimen bereziko irakaskuntzak", "Euskalduntzea" eta "Hezkuntza sustapena". Aldiz, behera egin du "Haur Hezkuntzak eta Lehen Hezkuntzak"; "Berrikuntza eta ikerketa" dator jarraian. Taulan ikus daitekeen moduan, ehuneko pisu handiena duten programak Hau eta Lehen Hezkuntzakoa, eta Bigarren Hezkuntzakoa dira. Aurrekontuaren guztizkoaren % 71 da.

Programen araberako urte arteko bilakaera, ekitaldiaren itxieran exekutatua (milaka €)

<i>programa</i>	2012	2013	2014	% guztira 2014	Δ 13/12	Δ 14/13
Egitura eta babesak	31.942	30.547	35.206	% 1,4	% -4,4	% 15,3
Haur eta Lehen Hezkuntza	982.157	979.696	905.296	% 35,1	% -0,3	% -7,6
Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko eta LH	912.668	907.508	914.785	% 35,5	% -0,6	% 0,8
Unibertsitateko Ikasketak	347.072	298.462	306.704	% 11,9	% -14,0	% 2,8
Erregimen Bereziko Ikasketak	58.078	51.172	64.454	% 2,5	% -11,9	% 26,0
Hezkuntza-berrikuntza eta Lanbide Heziketa	33.431	30.558	30.734	% 1,2	% -8,6	% 0,6
Ikasketak Iraunkorra eta HHE	36.684	38.096	37.711	% 1,5	% 3,8	% -1,0
Hezkuntza-sustapena	151.257	69.304	217.504	% 8,4	% -54,2	% 213,8
Sistema euskalduntzea	18.729	15.493	21.252	% 0,8	% -17,3	% 37,2
Ikerketa	37.534	32.995	34.971	% 1,4	% -12,1	% 6,0
Berrikuntza-funtsa	15.560	8.280	9.520	% 0,4	% -46,8	% 15,0
Guztira	2.625.112	2.462.111	2.578.137	% 100	% -6,2	% 4,7

Jarraian, programa horien aurrekontuak zehatzago aztertzen dira.

3.3.4. Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza programak eta azpiprogramak

- **Egitura eta Laguntza Programa**

Hezkuntza Administrazioaren egitura eta ohiko funtzionamendua finantzatzera bideratzen da. 2012an izandako jaitzieraren ostean, azken bi urtetan % 10eko igoera izan du (% 14,4).

1. atalak, langileen gastura bideratutakoak, gora egin du bi ekitaldietan.

Honako hau da 2. atalaren igoeraren arrazoia: programa honetan Haur Hezkuntzako-Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako programetako aplikazio informatikoen ustiaketa eta mantentzera bideratutako kontu-sailak egozten dira.

Egitura eta Laguntza programaren exekuzioa (milaka €)

	2012	2013	2014	$\Delta 13/12$	$\Delta 14/13$
1. atala	26.490	27.194	28.222	% 2,7	% 3,8
2. atala	3.240	1.945	5.312	% -40,0	% 173,1
3. atala	56	98	145	% 75,0	% 48,0
4. atala	10				
6. atala	621	17	39	% -97,3	% 129,4
8. atala	1.525	1.293	1.488	% -15,2	% 15,1
Guztira	31.942	30.547	35.206	% -4,4	% 15,3
<i>Hasierako aurrekontua</i>	34.989	34.864	35.067	% -0,4	% 0,6
<i>Exekuzioaren %</i>	91,29	87,6	100,40		

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako programa**

Bigarren Hezkuntzako programarekin batera, programarik garrantzitsuenetako bat da; izan ere, hezkuntza arloko aurrekontuaren guztizkoaren % 35 biltzen du.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako programaren exekuzioa (milaka €)

	2012	2013	2014	$\Delta 13/12$	$\Delta 14/13$
1. atala	470.126	493.406	495.912	% 5,0	% 0,5
2. atala	112.672	112.503	26.479	% -0,1	% -76,5
4. atala	369.082	345.600	363.075	% -6,4	% 5,1
6. atala	18.817	20.016	11.732	% 6,4	% -41,4
7. atala	11.460	8.171	8.097	% -28,7	% -0,9
Guztira	982.157	979.696	905.295	% -0,3	% -7,6
<i>Hasierako aurrekontua</i>	924.818	915.033	905.644	% -1,1	% -1,0
<i>Exekuzioaren %</i>	% 106,20	% 107,1	% 99,96		

2. atalean, % 76,5eko jaitsieraren arrazoa honako hau da: eskola-jantokietara bideratutako kontu-saila 2014ko ekitaldian beste programa batean biltzen da, "Hezkuntza Sustapeneko" programan. Horrela, 2013. urtean, 81 milioi euroko gastua erregistratu da Haur eta Lehen Hezkuntza. 2014an, berriz, 92 milioi egozten dira aipatutako programan, bai etapa honetarako, bai Bigarren Hezkuntzarako. Hori kontuan izanda, praktikan, 2. atala igo egin dela esan genezake.

4. atalak, neurri handi batean, 2013ko jaitsiera berreskuratu du. Kontuan izan behar da Haur eta Lehen Hezkuntzako kontzertuetara bideratutako dirua atal honetako % 76 dela, eta moduluaren zenbatekoak ez du aldaketarik izan azken urtean, ikastetxe pribatuen itunpekotzeari buruzko 3.3.6 epigrafean ikusten den moduan.

Lanetara, eraikuntzetara eta ekipamenduetara bideratutako 6. eta 7. atalak jaitsiera handiak izan dituzte. 6. atala zehatzago aztertzen da 3.3.5 epigrafean. Bestalde 7. atalaren % 70 udal-titulartasuneko ikastetxeak konpontzeko lanetara bideratu da; horietan, Gobernuaren mendeak diren ikastetxeak daude funtzionamenduan, eta

gainerako dirua kontzeptu desberdinetarako itundutako ikastetxeei diru-laguntza emateko bideratu da, batez ere, oztopo arkitektonikoak kentzeko.

- **Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko Hezkuntza eta Lanbide Heziketa programa**

Programa hau exekutatzean, batez ere 1. eta 4. ataletako igoerei lotutako igoera gertatzen da; izan ere, gastu-bolumen handiena ordezkatzeko dute.

2. atalari dagokionez, Haur eta Lehen Hezkuntzaren kasuan azaldu dugun moduan, eskola-jantokietarako kontu-saila ez dago bilduta. 2013. urtean 9 milioi eurotakoa izan zen, eta orain, Hezkuntza sustatzeko programan biltzen da. Hori dela eta, hori kontuan izanez gero, guztizkoa antzera mantenduko litzateke.

2013an desagertu zen 7. atala berreskuratu egin da azken ekitaldian, eta kontu-saila, neurri handi batean, Lanbide Heziketako itunpeko ikastetxeetako ekipamenduetarako bideratu da.

Bestalde, programa honetako jaitsiera, Haur eta Lehen Hezkuntzan bezala, 6. atalean biltzen da; batez ere eraikuntzetan, 3.3.5 epigrafean ikusiko dugun moduan.

4. atalean, DBHra, Batxilergo eta LHra bideratutako itunak guztizkoaren % 90 dira eta ia-ia ez dute aldaketarik izan.

Bigarren Hezkuntzako, Konpentsaziozko Hezkuntzako eta LHko programaren exekuzioa (milaka €)

	2012	2013	2014	Δ 13/12	Δ 14/13
1. atala	476.059	501.443	519.919	% 5,3	% 3,7
2. atala	81.584	79.403	65.231	% -2,7	% -17,8
4. atala	315.324	309.530	315.784	% -1,8	% 2,0
6. atala	36.285	17.132	13.076	% -52,8	% -23,7
7. atala	3.417	0	774		
DBH	310.628	285.039	280.340	% -8,2	% -1,6
Batzilergoa	331.474	343.104	351.884	% 3,5	% 2,6
Lanbide Heziketa	251.004	261.599	265.506	% 4,2	% 1,5
Konpentsaziozko Hezkuntza eta HLPP	19.561	17.767	17.054	% -9,2	% -4,0
Exekutatutakoa guztira	912.668	907.508	914.784	% -0,6	% 0,8
<i>Hasierako aurrekontua</i>	938.500	924.846	896.885	% -1,5	% -3,0
<i>Exekuzioaren %</i>	97,25	98,1	102,00		

- **Araubide Bereziko Irakaskuntza Programa**

Programa honetan ere igoera izan da. Horrela, 2013ko jaitsiera berreskuratu da. Hori langileen gastuen atalaren igoerarengatik gertatzen da batez ere (1. atala). Nabarmendu beharrekoa da baita ere 4. atalaren berreskuratzea, udal musika-eskolei

ematen zaizkien diru-laguntzetara bideratutakoa. 2013ko jaitsiera 2014an berreskuratu da neurri handi batean, 2013-2014 ikasturteari dagozkion diru-laguntzak azken ekitaldi horretan ordaindu direlako.

Azpiprograma guztiek gora egin dute bi urte horietan, batez ere Irakaskuntza Artistikoei dagokienak (% 15,3). Hori, batez ere, 6. atalak gora egiteagatik izan da, neurri handi batean Musikenera bideratzen baita (% 98), baita 7. atalak gora egiteagatik ere; hori ere ikastetxe horretarako diru-laguntzan oinarritzen da.

Araubide Bereziko Irakaskuntzen programaren exekuzioa (milaka €)

	2012	2013	2014	Δ 13/12	Δ 14/13
1. atala	31.490	33.499	34.054	% 6,4	% 1,7
2. atala	3.962	3.908	3.618	% -1,4	% -7,4
4. atala	20.142	9.696	17.137	% -51,9	% 76,7
6. atala	2.445	4.038	9.614	% 65,2	% 138,1
7. atala	39	31	31	% -20,5	% 0,0
Irakaskuntza artistikoak (arteak, musika)	34.256	26.221	39.500	% -23,5	% 50,6
Hizkuntzen irakaskuntza	22.396	23.428	23.434	% 4,6	% 0,0
Kirol arloko irakaskuntza teknikoak	1.427	1.522	1.520	% 6,7	% -0,1
Exekutatutakoa, guztira	58.078	51.172	64.454	% -11,9	% 26,0
Hasierako aurrekontua	61.620	48.921	62.618	% -23,1	% 27,9
Exekuzioaren %	94,3	104,6	102,93		

• Hezkuntza Berrikuntzaren eta Irakasleen Prestakuntza Iraunkorraren Programa

Bi urte hauetan zehar, programak, orotara, % 8 egin du behera. 1. atalak, aurrekontu handiena duenak, behera egin duelako izan da hori. Jaitsiera horren arrazoia, neurri handi batean, birziklatze-ikastaroetan parte hartzen duten irakasleen ordezkoen kostuek behera (iraupen laburragoak direlako) egin izana da.

4. atalaren jaitsiera, neurri handi batean prestakuntza-planetarako, prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuetarako itunpekoari emandako laguntzetan oinarritzen dena, eta 6. ataleko jaitsiera, aurrekontuaren bolumen txikiagoan eragiteaz gain, berreskuratu egin dira neurri batean 2014an.

Laguntza-zerbitzuei dagokien azpiprograma aurrekontuaren % 89 da; hori dela eta, jaitsiera arina den arren, neurri handiagoan eragiten du. Azkenik, ikusten da exekuzio maila aurrekontua egindakoaren behetik dagoela.

**Hezkuntza Berrikuntzaren eta Irakasleen Prestakuntza Iraunkorraren programaren
exekuzioa (milaka €)**

	2012	2013	2014	Δ 13/12	Δ 14/13
1. atala	26.086	25.910	25.424	% -0,7	% -1,9
2. atala	3.039	2.650	2.493	% -12,8	% -5,9
4. atala	4.165	1.963	2.764	% -52,9	% 40,8
6. atala	140	35	54	% -75,0	% 54,3
Irakasleen prestakuntza	4.889	2.005	2.783	% -59,0	% 38,8
Babes-zerbitzuak (ISEI, Berritzeguneak)	27.576	27.803	27.364	% 0,8	% -1,6
Berrikuntzaren eta kalitatearen sustapena	965	749	588	% -22,4	% -21,5
Exekutututakoa, guztira	33.430	30.558	30.735	% -8,6	% 0,6
<i>Hasierako aurrekontua</i>	47.590	47.165	43.433	% 0,9	% -7,9
<i>Exekuzioaren %</i>	70,25	64,79	70,76		

• **Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza Programa**

Programa honek, 2 urtetan, % 2,8 egin du gora. Gora egin du berriro ere langileen gastuen 1. atalak eta 2. atalak (funtzionamendu-gastuak). 1. atalean, funtzionarioen ordainsariek eta gizarte-kotizazioek gora egin dute.

4. atalean gertatzen da jaitsiera. Bertan, gehiena irabazi-asmorik gabeko beste erakundeetara bideratzen da; kontzeptu desberdinetarako diru-laguntzak barne hartzen dira: LHko irakasleen prestakuntza, Leonardo Da Vinci proiektua, eskaintza partzialeko prestakuntza-zikloak, bizitza osoko Ikaskuntza-proiektuak, HHEren erakunde laguntzaileei diru-laguntzak, sarbideko probak prestatzea...

Azpiprogramen arabera, "Etengabeko Ikaskuntzak" soilik egin du behera. % 7ko bolumena du.

Etengabeko Ikaskuntza eta Helduen Hezkuntza Programaren exekuzioa (milaka €)

	2012	2013	2014	Δ 13/12	Δ 14/13
1. atala	32.080	34.063	34.023	% 6,2	% -0,1
2. atala	1.469	1.296	1.477	% -11,8	% 14,0
4. atala	2.872	2.477	1.966	% -13,8	% -20,6
6. atala	263	260	245	% -1,1	% -5,8
Ikaskuntza Iraunkorra	3.329	2.861	2.652	% -14,1	% -7,3
Pertsona Helduen Hezkuntza	33.356	35.235	35.059	% 5,6	% -0,5
Exekutututakoa, guztira	36.684	38.096	37.711	% 3,8	% -1,0
<i>Hasierako aurrekontua</i>	38.515	37.038	36.170	% -3,8	% -2,3
<i>Exekuzioaren %</i>	95,25	102,9	104,26		

- **Hezkuntza Sustatzeko Programa**

Programa honek aldaketa handia jasan du; izan ere, 2014ko ekitaldian eskola-jangelak txertatu dira. Gainera, ekitaldi horietan bekak desberdin emateak ere eragin du, aurrerago azalduko den moduan.

Hezkuntza Sustatzeko Programaren exekuzioa (milaka €)

	2012	2013	2014	Δ 13/12	Δ 14/13
1. atala	13.091	13.582	13.886	% 3,8	% 2,2
2. atala	25.638	24.434	115.474	% -4,7	% 372,6
4. atala	112.529	30.288	88.053	% -73,1	% 190,7
6. atala			91		
Garraioa eta jangela	39.240	41.612	132.050	% 6,0	% 217,3
Bekak eta laguntzak	110.495	26.628	84.268	% -75,9	% 216,5
Jardueretan laguntza (AMPA)	1.523	1.065	1.186	% -30,1	% 11,4
Exekutututakoa, guztira	151.257	69.304	217.504	% -54,2	% 213,8
Hasierako aurrekontua	172.587	170.746	171.003	% 3,8	% 0,2
Exekuzioaren %	87,64	40,59	127,19		

2. atalaren gorakada, neurri handi batean, eskola-jantoki kontzeptuan emandako 92 milioiren eragina da neurri handi batean; dagoeneko aipatu dugu Haur Hezkuntzari, Lehen Hezkuntzari eta Bigarren Hezkuntzari dagozkien programetan. Aipatutako aurrekontutik, familiak zati bat kuoten bidez eskaintzen dute. 2013an 57 milioi izan dira eta 2014an 59,5 milioi. Gainerakoa, 92 milioi arte, ikastetxe publikoetara soilik bideratzen da eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kargura finantzatzen da. Nabarmendu beharrekoa da familiak eskaintako kuotetatik, % 48 jantokiko beken bidez diruz laguntzen direla.²⁰

Hori dela eta, bekei eta laguntzei dagokienez, aldaketak kontabilitate-gaiengatik dira; izan ere, bekak eskola-ikasturte baterako ematen dira eta Sailak ikasturteko lehen hiruhilekoan edo bigarrenean ordain ditzake, hurrengo taulan ikus daitekeen moduan. Azken finean, bi urtetan % 16,6ko igoera gertatu da.

Bekak eta laguntzak	2011-12	2012-13	2013-14	2014-15
2012	26.332	36.475		
2013		13.889	3.202	
2014			49.830	6.249
2015				48.156
Guztira	*52.133	50.364	53.032	54.405

*Gainerakoa 2011n ordaindu da

²⁰ Bekadunen ehunekoen datuak 1. atalean.

Gurasoen elkarteei emandako laguntzek % 30 inguruko jaitsiera nabarmena jasan dute eta 2014ko ekitaldian ere jaitsiera hori mantendu da.

Ikasleen gurasoen elkarteei emandako laguntzak (milaka €)

	2012	2013	2014	Δ13/12	Δ14/13
Elkarteen federazioak eta konfederazioak (publikoak eta itunpekoak)	519	350	350	% -32,6	% 0,0
Elkarteen Eskolaz kanpoko jarduerak (publikoak eta itunpekoak)	702	500	499	% -28,8	% -0,2
Irakaskuntzako kooperatiben eskolaz kanpoko jarduerak	48	34	33	% -29,2	% -2,9

• **Euskalduntze Programa**

Programak % 37 egin du gora 2014an. 2013an % 17ko jaitsiera berreskuratu da horrela.

1. atala programaren guztizkoaren % 64koa da. Bi urtetan % 45 egin du gora, batez ere funtzionarioen ordainsarrietan eta gizarte-kotizazioetan.

4. atalaren gehiena, % 60 inguru bi ekitaldietan, IRALEko ordezkapenatarako diru-laguntzetara eta sare pribatuko hizkuntza-arautzeko proiektuei laguntzera bideratzen da.

Azpiprogramen arabera, gora egin dute IRALEk eta EIMAk.

Exekuzio-ehunekoak gora egin du azken ekitaldian. Hala ere, programa guztien artetik baxuena izaten jarraitzen du.

Sistema Euskalduntzeko programen eta azpiprogramen exekuzioa (milaka €)

	2012	2013	2014	Δ 13/12	Δ 14/13
1. atala	9.387	10.648	13.581	% 13,4	% 27,5
2. atala	2.306	1.687	1.656	% -26,8	% -1,8
4. atala	6.975	3.076	5.948	% -55,9	% 93,4
6. atala	61	83	67	% 36,1	% -19,3
IRALE	12.997	11.824	16.585	% -9,0	% 40,3
EIMA	918	267	1.112	% -70,9	% 316,5
NOLEGA	4.401	3.083	3.156	% -29,9	% 2,4
Glottodidaktika/EGA	413	320	399	% -22,5	% 24,7
Exekutatutakoa, guztira	18.729	15.493	21.252	% -17,3	% 37,2
<i>Hasierako aurrekontua</i>	47.479	47.186	41.995	% -0,6	% -11,0
<i>Exekuzioaren %</i>	39,45	32,83	50,61		

3.3.5. 1. eta 6. atalen azterketa (langileen gastuak eta inbertsioak ikastetxe publikoetan)

3. eranskinean, langileen gastuaren **1. atalaren** bilakaera hamabi kontzeptutan banakatzen da programa bakoitzean. Jarraian ageri den taulan, hamabi kontzeptu horiek seitan biltzen dira programetarako.

Aurrekontuaren 1. atala kontzeptuen arabera banatuta. 2012 eta 2014 arteko bilakaera, (milaka €)

	2012	2013	2014	Δ 13/12	Δ 14/13
Langile finkoak: funtzionarioa, lan arlokoa edo goi kargua	816.797	871.377	877.367	% 6,7	% 0,7
Behin-behineko langileak, aldi baterakoak edo bitartekoak	8.015	8.492	9.266	% 6,0	% 9,1
Ordezkapenak	68.699	67.528	74.081	% -1,7	% 9,7
Kalte-ordainak	6.428	1.173	1.225	% -81,8	% 4,4
Pentsioen edo beste gastu sozialen sistema osagarriari egindako ekarpenak	1.629	1.325	1.401	% -18,7	% 5,7
Gizarte-kotizazioak	183.241	183.241	201.681	% 0,0	% 10,1
1. atala, orotara	1.084.809	1.139.745	1.165.021	% 5,1	% 2,2

Langileen gastuek gora egin dute bi urtetan. Azaldu dugun moduan, 2013an, atal honen igoeraren zati bat 2012an ordaindu ez zen aparteko ordainsaria berreskuratu delako izan da. Ordezkapenen eta gizarte-kotizazioen kontzeptuak gora egin du 2014an.

6. atalean behera egin dute batez ere Bigarren Hezkuntzan, eraikuntzetan egindako inbertsioek. Araubide Bereziko Irakaskuntzetan soilik egin dute gora eraikuntzek, eta horiek, dagoeneko ikusi dugun moduan, Musikeneko lanei dagozkie. Ekipamenduei bideratutako kontu-sailek % 40 egin dute behera bi urtetan; hala ere, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan gora egin dute zertxobait 2013ko ekitaldiarekin alderatuta.

Aurrekontuaren 6. atalaren banaketa –inbertsioak ikastetxe publikoetan-, bertako bi kontzeptuen eta bi programa nagusien arabera (milaka €)

		2012	2013	2014	Δ13/12	Δ14/13
Eraikuntza	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	13.512	16.032	7.105	% 18,7	% -55,7
	Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko Hezkuntza eta LH	18.338	9.638	5.586	% -47,4	% -42,0
	Erregimen Bereziko Irakaskuntzak	1.996	3.773	9.388	% 89,0	% 148,8
Eraikuntzak, guztira		33.846	29.443	22.079	% -13,0	% -25,0
Ekipamenduak	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	6.108	3.984	4.627	% -34,8	% 16,1
	Bigarren Hezkuntza, Konpentsaziozko Hezkuntza eta LH	17.007	7.494	7.491	% -55,9	% 0,0
	Beste programa batzuk	1.764	683	760	% -61,3	% 11,3
Ekipamenduak, orotara		24.879	12.161	12.878	% -51,1	% 5,9
Exekutatutakoa guztira		58.726	41.604	34.957	% -29,2	% -16,0
Hasierako aurrekontua		77.027	42.236	56.528	% 0,0	% -26,6
Exekuzioaren %		76,2%	98,5%	61,84		

2014ko urrian, Sailak 2014-2018 aldirako Irakaskuntza Publikoko Ikastetxeetako Azpiegiturak Hobetzeko Programa aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-batzordean. Programa honen helburua datozen 5 urteetan egingo diren inbertsioak identifikatu eta lehenestea da. Helburu horretarako, azpiegitura-programaren batez besteko aurrekontua 140 jardueratan 254,6 milioi eurotara iritsi da, 5 ekitalditan banatuta.

Instituzioen arteko lankidetzaren testuinguruan Hezkuntza Administrazioaren mendeko ikastetxeak daudeneko udal-jabetzako eraikinetan lanen exekuzioari arreta eskaintzeko lerro bat dago.

Laguntzen ohiko deialdietan, Sailak laguntzen % 60ra arte finantzatzen du eta udalek dute inbertsioaren gainerako gastuaren ardura.

Sailak eta udalek partekatutako txikizkako lanak

	2012	2013	2014	Δ13/12	Δ14/13
Ebazpen-data EHAOn	28/12/12	26/06/14	29/05/15		
Udal kopurua	110	103	96	% -6,4	% -6,8
Ikastetxe kopurua	171	196	145	% 14,6	% -26,0
Lan kopurua	292	310	234	% 6,2	% -24,5
Sailaren ekarpena	8.299	5.991	5.999	%-27,81%	%0,13%
Udalen ekarpena	5.533	3.994	3.999	%-27,81%	%0,13%

3.3.6. Ikastetxe pribatuekiko ituna

Sare pribatuaren finantzazioa batez ere hezkuntza-itunen bidez egiten da. Hala ere, kontzeptu batzuk laguntzen bidez edo beste diru-laguntza batzuen bidez diruz laguntzen dira, hurrengo tauletan ikusten dugun moduan.

- **Itunaren modulua**

Eusko Jaurlaritzak, urtero, Aurrekontu Orokorretan, itunpeko ikastetxeen gastuei aurre egiteko modulu ekonomikoko zenbatekoa onartzen du.²¹

Irakaskuntza mailen arabera, kontzeptu nagusietan, urteko guztizko zenbatekoek ez dute aldaketarik izan azken hiru ekitaldietan:

Hitzartutako hezkuntza-zentroen modulu ekonomikoa unitatearen arabera (€)

	2014
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	62.688
Lehen Hezkuntza	65.710
Lehen Hezkuntzarako Hezkuntza Berezia zabalik	53.659
DBH (Lehen zikloa)	83.353
DBH (Bigarren zikloa)	101.296
Batzilergoa LOGSE	104.008
Zereginen Ikaskuntza (ohiko ikastetxeak)	109.386

Jarraian, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako programetako, eta Bigarren Hezkuntzako, Konpentsaziozko Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako programetako 4. eta 7. ataletan diruz laguntzen diren kontu-sail nagusietako datuak aurkezten dira.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako programetan, itunek % 1,1 egin dute gora bi urtetan, unitateen igoerari esker (+23), eta neurri txikiagoan egiten dute gora hezkuntza-laguntzako espezialistei eta irakasle aholkulariei emandako diru-laguntzek.

²¹ Moduluaren osagaiak: Irakasleen eta irakasle ez diren langileen gastuak, Gizarte Segurantzara enpresa-kuotagatik egindako kotizazioak barne
Funtzionamendu-gastuak eta ohiko mantentze- eta zaintze-gastuak.
Benetako inbertsioak berriz jartzea.

Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan itundutako ikastetxeei emandako diru-laguntzen bilakaera (milaka €)

<i>Ikastetxe Pribatuak</i>	2012	2013	2014	Δ 13/12	Δ 14/13
4. atala					
Itunak Haur Hezk. eta Lehen Hezk.	274.216	275.543	277.110	% 0,5	% 0,6
Liberatu sindikalak	934	926	866	% -0,9	% -6,5
Ikastetxeak krisian	1.160	0	281		
Erretiro aurrerratuak	1.573	1.558	904	% -1,0	% -42,0
Irakasle Aholkulariei diru-laguntzak	1.405	*1.393	1.411	% -0,9	% 1,3
Etorkinei/laguntza-ikasgelei diru-laguntzak	898	711	600	% -20,8	% -15,6
Hezkuntza-laguntzako espezialistak ²²	10.307	10.260	10.331	% -0,5	% 0,7
Haurreskola pribatuen laguntzak	28.340	18.659	23.651	% -34,2	% 26,8
7. atala					
Kooperatiben diru-laguntzak	2.964	2.409	2.300	% -18,7	% -4,5
Oztopoak kentzea	382	112	7	% -70,7	% -93,8

*2014an ordainduak

Bigarren Hezkuntzan, itunak mantendu egiten dira eta orientazioaren diru-laguntza handitu egiten da, baita itunpeko beste ikastetxe batzuetarako diru-laguntza osagarriak ere

Itunpeko ikastetxeetarako diru-laguntzen bilakaera Bigarren Hezkuntzan (milaka €)

Ikastetxe Pribatuak. Bigarren Hezkuntza	2012	2013	2014	Δ 13/12	Δ 14/13
4. atala					
Itunak DBH	172.197	172.270	173.586	% 0,0	% 0,8
- Itunak Batx.	56.060	53.529	53.841	% -4,5	% 0,6
- Itunak LH	57.174	58.284	57.900	% 1,9	% -0,7
-Aurrerratutako erretiroak	870	831	483	% -4,5	% -41,9
- Aholkularia/orientatzailea	2.701	2.622	2.659	% -2,9	% 1,4
-Trukaketak, etorkinak...	1.048	842	698	% -19,7	% -17,1
Eskolatze osagarria	889	970	618	% 9,1	% -36,3
Hasierako Lanbide Kualifikazioa	4.101	2.213	2.498	% -46,0	% 12,9
Diru-laguntza osagarria	1 323	937	1.715	% -29,2	% 83,0
7. atala					
Ekipamendua/lanak LH	2.245	2.225-	753	% -0,9	% -66,2

*2014an ordaindutakoak

²² Datuak ikasturte akademikoaren arabera.

- **Bilakaera itunpeko ikasgela kopuruan**

Itun osoa izan duten ikasgela kopuruak 79 unitateko igoera izan du azken bi ikasturtetan, eta itun partzialekoek 34 egin dute behera.

Igoera, batez ere, Lehen Hezkuntzan eta DBHko lehen zikloan oinarritzen da. Goi mailako prestakuntza-zikloetan itun osoa duten 32 ikasgela gehiago daude, baina itun partzialeko 28 unitate gutxiago daude. Ondorioz, igoera 4 ikasgelakoa baino ez da. Gainerako etapetan mantendu egiten dira.

2012-13 eta 2014-15 artean itundutako ikasgelen bilakaera (modulu osoa edo partziala)

	2012-13		2013-14		2014-2015		Δ 2ikasturte	
	Osoa	Partziala	Osoa	Partziala	Osoa	Partziala	Osoa	Partziala
Haur Hezkuntza (2. zikloa)	1.272		1.272		1.273		1	
Lehen Hezkuntza	2.527		2.538		2.548		21	
Hezkuntza Berezia (Lehen Hezkuntza, irekiak)	219		218		219		0	
Hezkuntza Berezia (Lehen Hezkuntza, itxiak)	98		99		100		1	
DBH 1. zikloa	816		828		832		16	
DBH 2. zikloa	802		798		793		-9	
Hezkuntza Berezia (Bigarren Hezkuntza, irekiak)	212		213		214		2	
Hezkuntza Berezia (Bigarren Hezkuntza: itxiak)	21		21		21		0	
Batxilergoa	513		519		514		1	
Lanbide Heziketa Erdi Maila	44	193	42	195	49	187	5	-6
Lanbide Heziketa Goi Maila	105	312	104	316	137	284	32	-28
HLPP*	64		65					
Itunpeko ikasgelak, guztira	6.693	505	6.717	511	6.733	471	79	-34

HLPPei dagokienez, 2014-2015 ikasturtean 2. ikasturteak (30) soilik ituntzen dira; izan ere, Aldi Baterako Prestakuntza Integratuko Programak izeneko lehen ikasturteak 4. atalaren bidez diruz lagundu dira.

3.4. IKASTETXE PUBLIKOETAKO IRAKASLEEN PLANTILEN AZTERKETA

Kontseiluak ikastetxe publikoetako irakasleen plantilari buruzko informazioa du, ikastetxez ikastetxe. Sailak eman du informazio hori lanpostu-zerrenden (LZ) txostena egin delako, bai plantila organikoan, bai funtzionamendukoan.

3.4.1. Plantilen, eta irakasle/ikasgela, ikasle/ikasgela eta ikasle/irakaslea ratioen bilakaera

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ikasgelako irakasleen ratioa 1,70an mantendu da azken hiru ikasturtetan. Ratio horretan sartuta daude baita

ere zuzendaritza- eta administrazio-lanak egiten dituzten irakasleak ere (zuzendaritza-taldea, administrazio-laguntza eta jangelako arduraduna).

Ikasgelako ikasleen ratioak hiru hamarren egin du gora, 18,9ra iritsi arte. Ikasgela bakoitzeko ikasleen gehieneko kopurua 25ekoa da Lehen Hezkuntzan, 23koa Haur Hezkuntzako 2. zikloan eta 18koa bi urtekoen mailan. Irakasle/irakaslea ratioak bi hamarren egin du gora.

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan irakasleen plantila osoaren bilakaera 2012-13 eta 2014-15 ikasturteen artean

	2012-13	2013-14	2014-15	<i>Δ bi ikasturte</i>	
LZko irakasleak	8.751	8.793	8.869	118	% 1,3
Plantila osagarria	855	818	731	-124	% -14,5
Plantila osoa	9.606	9.726	9.589	-17	% -0,2
Unitate kopurua	5.654	5.677	5.746	92	% 1,6
Irakasleak	105.003	106.959	108.752	3.749	% 3,6
Irakasle/ikasgela ratioa	1,7	1,7	1,7	0	% 0,0
Ikasle/ikasgela ratioa	18,6	18,7	18,9	0	% 1,6
Ikasle/irakasle ratioa	10,9	11,1	11,1	0	% 1,8

“Plantila osagarria” deitutakoan lanpostu-zerrendaren (LZ) dekretuan ikastetxe jakin bati esleituta ageri ez diren plazak sartzen dira. Plaza horiek, berez, irakasgai berezi bat, adibidez hizkuntza sendotzea (91 plaza) edo erlijio katolikoa (137), ikasi behar duten ikasleen matrikularen arabekoak dira. Jantokiko arduradunak (175) eta eskolaz kanpoko jardueren arduradunak (135), gehienetan liburutegiko arduradunak, ere multzo garrantzitsuak dira.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan irakasleen plantila osagarriaren banaketa. 2012-13, 2013-14 eta 2014-15 ikasturteak

<i>Irakasle kopurua</i>	2012-13	2013-14	2014-15
Jantokiko arduraduna	203	161	175
Hizkuntza Indartzeko Programa (HIP)	171	113	98
Eskolaz kanpoko jarduerak	155	147	135
Erljio Katolikoa	140	137	137
Besteak	186	220	273
Plantila osagarria guztira	855	778	818

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen kasuan, ikasgela bakoitzeko irakasleen ratioak ez du aldaketarik izan, ikasle/ikasgela ratioak 7 hamarren egin du gora eta ikasle/irakasle ratioak 2 hamarren. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, administrazioko langileak plantila berezi batekoak dira.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan irakasleen plantila osoaren bilakaera 2012-13, 2013-14 eta 2014-15 ikasturteen artean

	2012-13	2013-14	2014-15	Δ bi ikasturte
Bigarren Hezkuntzako kidegoko irakasleak	7.338	7.545	7.730	392
Maisu-maistren kidegoko irakasleak	1.279	1.222	1.188	-91
Plantila osoa	8.617	8.767	8.918	301
Unitate kopurua	3.367	3.431	3.464	97
Ikasleak	67.865	69.735	72.501	4.636
Irakasle/ikasgela ratioa	2,56	2,56	2,57	
Ikasle/ikasgela ratioa	20,2	20,3	20,9	
Ikasle/irakasle ratioa	7,9	8,0	8,1	

3.4.2. Irakasle/ikasgela eta ikasle/irakasle ratioen banaketa zenbait aldagairen arabera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan

- Ikastetxearen tamainaren arabera

Jakina da ikastetxe txikietan ratioa handiagoa izaten dela, irakasle espezialisten gutxieneko kopurua behar dutelako. Tamaina txikiko (hamar unitate edo lerro oso bat baino gutxiago) eta tamaina handiko (hamar unitateko hiru lerro baino gehiago) ikastetxeen arteko ratio-aldea nabarmendu egin da bi ikasturtetan, 2 hamarrenekotik 4 hamarrenekora izatera pasatuz. Horrek esan nahi du lerro oso bakoitzeko lau irakasle gehiago izatea.

Irakasle/ikasgela eta ikasle/ikasgela ratioa ikastetxearen tamainaren arabera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan. 2014-15 ikasturtea

<i>Ikastetxearen tamaina</i>	<i>Ikastetxe K.</i>	<i>Unitate K.</i>	<i>Ikasle K.</i>	<i>Plantila osoa</i>	<i>Irakasle/ikasgela ratioa</i>	<i>Ikasle/ikasgela ratioa</i>	<i>Ikasle/irak. ratioa</i>
1-10 unitate	112	802	11.976	1.567	1,95	14,9	7,6
11-20 unitate	119	1.986	36.099	3.430	1,73	18,2	10,5
21-30 unitate	71	1.755	37.985	3.217	1,63	20,1	12,3
30 unitate	32	1.178	24.815	1.865	1,58	21,1	13,3
Ikastetxeak guztira	334	5.721	108.251	9.726	1,70	18,9	11,1

Handiagoak diren ikastetxeek oro har ikasle-ratioa ere handiagoa dute.

- Lurraldeen eta ikastetxe-eremuen arabera

Hiru lurraldeak aldetzen baldin baditugu, Arabak du hiru adierazleetan ratorik handiena. Hala ere, irakasle/ikasgela ratioan Bizkaiarekin egiten du bat. Gipuzkoak (1,66) du ikasgelako irakasle-ratorik txikiena eta Bizkaiak du ikasle/ikasgela eta ikasle/irakasle ratorik txikiena.

Irakasle/ikasgela eta ikasle/ikasgela ratioa lurraldeen arabera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan. 2014-15 ikasturtea.


	<i>Ikastetxe K.</i>	<i>Unitate K.</i>	<i>Ikasle K.</i>	<i>Plantila osoa</i>	<i>Ikasle/ikasgela ratioa</i>	<i>Ikasle/ikasgela ratioa</i>	<i>Ikasle/irak. ratioa</i>
Araba	58	977	19.354	1.680	1,72	19,8	11,52
Bizkaia	168	2.825	52.449	4.868	1,72	18,6	10,78
Gipuzkoa	108	1.919	36.448	3.178	1,66	19,0	11,47
Euskadi	334	5.721	108.251	9.726	1,70	19,0	11,47

Hurrengo mapako eremuen arteko *irakasle/ikasgela ratioaren* banaketan (16. mapa eta 3.3 eranskina), 2012-13 ikasturtearekin alderatuta, eremuen arteko aldeak mantentzen dira. Batez bestekoa 1,70ekoa izanik, aldaketa handiak gertatu direla ikus daiteke Kostaldeko 1,57etik Andoaingo 1,96era. horrek hamar unitateko lerro bakoitzeko ia lau irakasle gehiago izatea esan nahi du.


Ildo horretatik, uler daiteke, oro har, behar gehien dituzten eremuetan ratorik handiena izatea; ikastetxe hauetan esaterako: Bilbon, Txurdinaga-Otxarkoaga (1,95), Basurtu (1,91); Errekalde (1,87), Ibaiondo (1,72), Abando (1,81) eta Nerbioiren ezkerraldean, Sestao (1,80), Portugalete (1,83), Santurtzi (1,78) eta Barakaldo (1,76); Arabaren hegoaldean, Arabako mendiak (1,77) edo Arabako Errioxa (1,81), edo dagoeneko aipatu dugun Andoain (1,96) edo Trapaga (1,83).

Ikasle/irakasle ratioa (17. mapa eta 3.3 eranskina), Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ikasle/ikasleko 11,1eko batez bestekoarekin, txikiena Arabako Mendiak erregistratu du (7,5) eta handiena Lasartealdeak (13,1); biztanleriaren sakabanaketa-mailarekin lotutako balioak.

16. mapa. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzak ikastetxe publikoetan ikasgela bakoitzeko irakasleen ratioa, eskola-eremuen arabera. 2014-15 ikasturtea



17. mapa. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzak ikastetxe publikoetan ikasgela bakoitzeko irakasleen ratioa, eskola-eremuen arabera. 2014-15 ikasturtea




3.4.3. Irakasleen egonkortasuna

2013 eta 2014 urteetan ez da Lan Eskaintza Publikoetarako (LEP) deialdirik egin. 2015eko otsailean irakasleen enplegu-eskaintza deialdia izan zen eta 275 plaza eskaini ziren, 46 plaza 2014ko ekitaldiari dagozkionak 299 2015ko ekitaldiari dagozkionak.

Beste alde batetik, urtero lanari uzten dioten irakasleen kopuruaren —gehienak, erretiroak— eta zerbitzura itzultzen direnen kopuruaren arteko diferentzia *Lan Eskaintza Publikoen (LPE)* bidez ehuneko jakin batean bakarrik hornitu daiteke. Ehuneko hori "berriztapen-tasa" deitzen da, eta Estatuaren Aurrekontu Orokorraren Legeak finkatzen du.


Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako, eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak aintzat hartuz, 2013-14 eta 2014-15 ikasturteen artean, karrerako funtzionarioen kopuruak 407 pertsonatan egin du behera. Aldiz, 779 behin-behineko gehiago dago. 3.4 eranskinean, etapen arabera banaketa ikus daiteke.

Hiru motetako irakasleen (karrerako funtzionarioak, praktiketako funtzionarioak eta behin-behinekoak) bilakaera 2009-10 ikasturtetik 2014-15 ikasturtera. Ikastetxe publikoak.



Behin-behineko irakasleen kopuruak gora egin du Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta Bigarren Hezkuntzan.

Behin-behineko irakasleak ikastetxe publikoetan, etapan arabera. 2009-10 ikasturtetik 2014-15 ikasturtera arteko bilakaera.




2012-2013 txostenean zehazki azaldu genuen moduan, behin-behineko irakasleek betetzen dituzten plazak lekualdatze-lehiaketa batean ateratzeko hiru eragozpen nagusi daude: plazan izaera koiunturala, plazak definitzeko zailtasuna eta plaza bat sortzeko ordu kopuru nahikorik ez egotea. Beste alde batetik, behin-behineko plazak ez dira beti izaten lanaldi osoak.

3.4.4. Irakasleen adina

2014ko urriko datuekin, sare publikoko 23.310 irakasleak 50-60 arteko adinen arabera sailkatzen baldin baditugu, deigarria da datozen urteetan zenbatek hartuko luketen erretiroa.

**Sare publikoko irakasleen adinaren piramidea etapal kontuan hartuta.
2014ko urriko datuak**



2013an, berritze-tasari dagokionez, 460 pertsonakoa izan zen; 2014an, 459 pertsonakoa eta 2015ean 577 pertsonakoa, eta adin-piramidean ikusten den moduan, irakasleen adinak kontuan hartuta, datozen urteetan gora egingo du nabarmen.

Sailak 2030era arte karrerako funtzionarioak diren irakasleen erretiroei buruzko prospekzioarekin lotuta emandako informazioaren arabera, MUFACEko langileek eta klase pasiboek 60 urterekin erretiroa hartuko dutela pentsatuta, eta Gizarte Segurantzakoak 65 urterekin, aurreikusten da 2030. urterako langile horien % 65-70 inguruk erretiroa hartuko luketela. 5 urteko epean (2016tik 2020ra) 3.803 pertsonak hartuko lukete erretiroa, (MUFACEko % 82k). Horien artetik, 1.839 Lehen Hezkuntzako karrerako funtzionarioak izango lirateke eta 1.542 Bigarren Hezkuntzakoak.

ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Atala honek, lehenik, *hezkuntzako gastu publikoak, BPGren ehuneko gisa* garatzen ditu. Azken eguneraketa 2012ko ekitaldiari dagokio; bertan, ikusten da jaitsiera arina gertatua dela EBko ia herrialde guztietan. Aurten, batez bestekoa % 4,6an dago (aurreko urtekoa baino 2 hamarren beherago).

Euskadik, % 4ko datuarekin, 2 hamarren egin du behera 2011ko datuekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, *guztizko gastu publikoaren ehunekoarekin alderatuta hezkuntzara bideratzen den gastu publikoaren* datuak aintzat hartuta, Euskadik, % 9,8ko datuarekin, Alemaniaren moduko herrialdeen maila lortzen du eta ia-ia EBren batez bestekoan kokatzen da (% 10).

Bestalde, *hezkuntzako gastu pribatuaren eta guztizko gastuaren* arteko harremana ere altua da Euskadin (% 20,6, % 11,4ko Europako batez bestekoaren aurrean); bistakoa denez, datu horrek zerikusia du ikastetxe pribatuetan edo pribatu/itunpekoetan eskolatutako ikasleen ehunekoarekin.

Daturik deigarriena *ikasle bakoitzeko urteko gastuari* dagokiona da; izan ere, lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan eta bigarrenaren osteko hezkuntzan eta bigarrenen/hirugarrenean, Euskadik leku nabarmena du Europako beste herrialdeekin edo beste autonomia erkidego batzuekin egindakoarekin alderatuta. Azken horiekin lotuta eta Estatuko Eskola Kontseiluak emandako datuetan oinarrituta, ikasle/irakasle ratioaren eragina edo biztanleriaren sakabanaketa ez dira erabakigarriak Euskadin; izan ere, ikasle ratioa txikiena du eta sakabanaketa ez da handia.

2013-14 eta 2014-15 ikasturteetan hobekuntza arina gertatu da Euskadiren ekonomian, *adierazitako testuinguruko adierazleak* aintzat hartuta. Hala eta guztiz ere, egoera ekonomikoa konplexua da; izan ere, batetik, krisi-garaian baino baliabide gutxiago daude, eta bestetik, defizit-eskakizunei eta zor publikoari dagokienez aurrekontu-egonkortasunaren arloan Europak dituen eskakizunak handiagoak dira.

Eusko Jaurlaritzak egindako aurrekontuak erakusten digu % 1,9ko jaitsiera izan dela bi aldietan eta horren arrazoia bi izan dira; batetik, 2013ko luzatutako aurrekontuak egiterako garaian jaitsiera (% -6,5), eta bestetik, 2014an neurri handi batean berreskuratzea (% 4,95).

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren hezkuntza-arloaren aurrekontuei dagokienez, 2013-2015 azterketa aldian, kontuan izan behar da legedi-aldaketak saila berrantolatzeke beharra ekartzen duela, eta ondorioz, bilakaeraren jarraipena konplikatzeko du zenbait ataletan. Hala eta guztiz ere, Sailak, Osasun Sailarekin batera, gainerakoen artean lehentasunezko lekua du, esleitutako aurrekontuaren ehunekoan oinarrituta, % 27,6 zorraren ordainketa kenduta. Gainera, 2014ko aldian, Hezkuntza arloan % 5,22 egin du gora hasierako aurrekontuak eta % 4,71 2013rekin alderatutako gastuak.

Atalkako banaketan nabarmendu beharrekoak dira gastu pertsonalari buruzko 1.a eta diru-laguntza arruntei buruzko 4.a, ordezkatzen duten bolumena dela eta (% 80 baino gehiago); horrek zerbitzuak eta programa guztietan txertatutako oinarritzko laguntza publikoak lehenesten direla erakusten du.

Aldiz, 2013ko aldian % 26 gora egin zuen ikastetxe publikoetako inbertsioei dagokien 6. atalak % 52,7 egin du behera 2014an. Era berean, ehuneko esleipenak % 3tik % 1,4ra egin du behera.

1. atalari dagokionez, egindako ahalegina aitortzen da; izan ere, bi aldietan, 2013an eta 2014an, langileen gastuek gora egin dute. Aldiz, 6. kapituluak erakunde honen arreta piztu du gertatutako jaitsiera dela eta. Hala eta guztiz ere, Eusko Legebiltzarreko hezkuntza-batzordearen aurrean aurkeztutako ekimena aitortzen da, hain zuzen ere, 2014-2018ko Azpiegitura Plan batena; izan ere, Kontseilu honek bere azken txostenean mahai gainean jarritako 9. proposamenaren zati bati erantzuna ematen dio. Bertan, lehenetsitako beharren azterketa eskatzen zuen.

(P17) Ildo horretatik, Kontseiluak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskatzen dio eskola-plaza berrien eskaera dagoen egoerari eta puntako eskakizunak biltzen ez dituzten azpiegitura-egoerei (batzuk aurrez fabrikatuta edo oztopo arkitektonikoekin) erantzun diezaion ahalik eta azkarren. Hori guztia gure ikasleen eskolatzean beharrei ahalik eta erantzunik onena ematen zaiela bermatze aldera.

Programa desberdinen exekuzioarekin lotuta, 2014an, gastuaren igoera gertatu da, % 4,7koa zehazki. Aurreko aldian jaitsiera % 6,2koa izan zen.

Gehienetan exekuzioa % 100era iritsi da, Hezkuntza Berrikuntzaren programan eta Irakasleen Etengabeko Prestakuntzan eta Euskalduntzean izan ezik. Lehen kasuan, 2012koaren exekuzio-ehuneko berberean mantendu da. Euskalduntzearen programan berriz, gastu-ehunekoak gora egin du 2012ko datuekin alderatuta, baxu mantentzen den arren.

(P18) Bi kasuetan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, eragina zuzenekoa eta garrantzitsua da; hori dela eta, Kontseiluak biltzen diren kontzeptuen berrikusketa egitea iradokitzen du, betiere, gastu-aurreikuspenak sistemaren beharren arabera egiten direla bermatuz.

Bestalde, ikastetxea itunpekotzeari buruz egindako azterketan, ondorioztatu dugu Aurrekontu Orokorretan onartutako moduluak mantendu direla eta bilakaera arina gertatu da itundutako unitate kopuruan.

Ikastetxe publikoetako irakasleen plantilari dagokionez, ratioak mantendu dira irakasle/ikasle, irakasle/ikasgela eta ikasle/ikasgela arteko harremanetan.

Hala eta guztiz ere, Kontseiluak badaki bi sareetan hezkuntzara zuzendutako baliabideen nahikotasunari buruz gizarte-eztabaida dagoela, eta horrela islatu du azken txostenetan, Eusko Legebiltzarreko 2012ko ekainaren 14ko Udalbatzaren akordioaren interesa nabarmentzean. Horrek, hain zuzen, euskal hezkuntza-sistemaren azterketa objektiboa eta gardenia egiteko balioko duten adierazleak ezartzeko txostena egiteko 63/2012 Legez besteko proposamena onartzen du. Ildo horretatik, eta gerta daitekeen Hezkuntza Lege baten aurrean, hezkuntza-sistemaren finantzazioaren erregulazioa lehentasunezko hartzen denean, eta ikastetxe guztiek gizartearen kohesioan, balio gisa aniztasuna sustatuz, lagundu behar dutela abiapuntu gisa hartuta, Kontseilu honek proposamen hauek aurkezten ditu:

(P19) Beharrezkoa ikusten du akordio parlamentarioaren garapena eta gai honi buruzko elkarrizketa lasaia mantentzea eragile guztien parte-hartzea izanik, betiere, kalitatezko irakaskuntza jasotzeko ikasleen eskubidea bermatzeko helburuarekin.

(P20) Sailari eskatzen dio profil sozio-ekonomiko baxuena duten eta bazterkeria-arriskuan dauden ikasleetako ikastetxe publiko eta itunpekoei arreta lehenetsia eman diezaion, betiere, antzemandako gabeziak konpentsatzen eta ikasle horien garapen osoa bermatzen lagunduko duten beharrezko baliabideak izateko.

Baliabide horiek esleitzeko zehatzak izateko asmorik gabe, adierazgarrienak iruditzen zaizkigunak proposatuko ditugu:

- Ikasle bekadunen ehunekoa, jantokietakoa nabarmen bereiziz.*
- Hezkuntza-laguntza behar bereziak dituzten ikasleen ehunekoa.*
- Ikastetxeko irakas-hizkuntzaren desberdina den hizkuntza duten ikasleen ehunekoa.*

(P21) Bestalde, gure ustez beharrezkoa da baliabideak esleitzeko garaian, bai gizatiarrak, bai materialak, kontuan izan beharreko beste irizpide batzuk ere ezartzea, betiere, hezkuntza-sistemaren bikaintasunean aurrera egite aldera:

- balio erantsia duten ikastetxeak,*
- prestakuntza-eragileekin parte hartzen duten ikastetxeak,*
- jardunbide egokiak partekatzen dituzten ikastetxeak*

Azkenik, plantilei dagokienez, itxura guztien arabera datozen urteetan erretiro-tasa oso altuak lortuko dituztela adierazten duten irakasleen adinari buruzko datuak kontuan hartuta, eta ondorioz, euskal hezkuntza-sisteman pertsona berriak txertatuko direla aintzat hartuta.

(P22) Kontseilu honek nabarmendu du Sailari eskatu nahi diola egin beharreko aldaketen aurreikuspena, betiere, irakasle-profil berriak (eleaniztasunaren aurrerapena, IKTen aplikazioa...) eta ikastetxeetan egonkortasuna behar direla kontuan hartua.

1. GEHIGARRIA

EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUAK EMANDAKO IRIZPEN ETA TXOSTENAK

2013-14 IKASTURTEA

- *Irizpenak*

13/05 Irizpena, Haur eta Lehen Hezkuntzaren maisu-maistren lanpostuen zerrendak arautzen dituen Dekretu proiektuari buruzkoa.

Irailaren 26ko Batzorde Iraunkorra

444/2013 Dekretua, azaroaren 12koa (EHAA 2013/11/26)

13/06 Irizpena, Bigarren Hezkuntzaren lanpostuen zerrendak arautzen dituen Dekretu proiektuari buruzkoa.

Irailaren 26ko Batzorde Iraunkorra

443/2013 Dekretua, azaroaren 12koa(EHAA 2013/11/26)

13/07 Irizpena, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-Mailako Teknikaria Tituluaren Ilustrazioari dagokion curriculuma ezartzen duen dekretu proiektuari buruzkoa.

Irailaren 26ko Batzorde Iraunkorra

71/2014 Dekretua, apirilaren 29koa(EHAA 2014/07/30)

13/08 Irizpena, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-Mailako Teknikaria Tituluaren publizitate-grafikari, dagokion curriculuma ezartzen duen dekretu proiektuari buruzkoa.

Irailaren 26ko Batzorde Iraunkorra

70/2014 Dekretua, apirilaren 29koa(EHAA 2014/10/09)

13/09 Irizpena, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-Mailako Teknikaria Tituluaren argazkigintzari dagokion curriculuma ezartzen duen dekretu proiektuari buruzkoa.

Irailaren 26ko Batzorde Iraunkorra

69/2014 Dekretua, apirilaren 29koa(EHAA 2014/10/13)

13/10 Irizpena, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi-Mailako Teknikaria Tituluaren animazioari dagokion curriculuma ezartzen duen dekretu proiektuari buruzkoa.

Irailaren 26ko Batzorde Iraunkorra

72/2014 Dekretua, apirilaren 29koa(EHAA 2014/10/13)

13/11 Irizpena, Sarrera-probak eta Musika-ikasketa profesionaletan ikasleak onartzeko prozesua arautzen duen Agindu proiektuari buruzkoa.

Urriaren 29ko Batzorde Iraunkorra

Agindua, urtarrilaren 30ekoa. (EHAA 2014-02-11)

14/01 Irizpena, Urriaren 16ko, 175/2007 Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen proiektu Dekretuari buruzkoa.

Otsailaren 27ko osoko Bilkura

47/2014 Dekretua, apirilaren 1ekoa (EHAA 2014-04-07)

14/02 Irizpena, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetarako irakasleen ordezkapenak egiteko ordezkagaien zerrenda kudeatzeko arautegia onartzen duen Agindua aldatzen duen agindu proiektuari buruzkoa.

Martxoaren 18ko Batzorde Iraunkorra

Agindua, apirilaren 16koa (EHAA 2014-04-22)

14/03 Irizpena, Berritzeguneetako lanpostuen zerrenda onartzen duen dekretua laugarren aldiz aldatzen duen Dekretu proiektuari buruzkoa.

Martxoaren 18ko Batzorde Iraunkorra

72/2014 Dekretua, maiatzaren 6koa. (EHAA 2014-06-05)

- *Beste txosten batzuk*

Txostena, Hezkuntza-Sisteman Hezkidetza eta Genero-Indarkeriaren prebentzioa lantzeko Plan Estrategikoaren zirriborroari buruzkoa.

2013ko irailaren 26ko Batzorde Iraunkorra

Txostena, 2013-16rako Bake eta Bizikidetza Planaren oinarriak eta proiektuak hezkuntza arloan", dokumentuari buruzkoa.

2013ko azaroaren, 28ko Batzorde Iraunkorra

Euskadiko Eskola Kontseiluaren akordioa LOMCEri buruzko

2014ko otsailaren 27ko Osoko Bilkura

Ekarpen txostena, Bake eta Bizikidetza planaren Aholku Kontseilua arautzen duen dekretu proiektuaren zirriborroari buruzkoa.

2014ko apirilaren 10eko Batzorde Iraunkorra

157/2014 Dekretua, uztailaren 29koa. (EHAA 2014/08/01)

2014-15 IKASTURTEA

- *Irizpenak*

14/04 Irizpena, Haur eta Lehen Hezkuntzaren maisu-maistren lanpostuen zerrendak arautzen dituen Dekretu proiektuari buruzkoa.

Irailaren 25eko Batzorde Iraunkorra

211/2014 Dekretua, urriaren 28koa. (EHAA 2014-11-03)

14/05 Irizpena, Bigarren Hezkuntzaren lanpostuen zerrendak arautzen dituen Dekretu proiektuari buruzkoa.

Irailaren 25eko Batzorde Iraunkorra

210/2014 Dekretua, urriaren 28koa. (EHAA 2014-11-03)

14/06 Irizpena, EAEn Ikas-Ekinezko erregimeneko Lanbide-Heziketa Duala arautzen duen proiektu Dekretuari buruzkoa.

Irailaren 25eko Batzorde Iraunkorra

83/2015 Dekretua, ekainaren 2koa. (EHAA 2015-06-8)

14/07 Irizpena, EAEko ikastetxe publikoen ikasleen eskola garraioa arautzen duen proiektu Dekretuari buruzkoa.

Abenduaren 9ko Batzorde Iraunkorra

